



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko abenduaren 1a

139. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00008. Foru legea, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-22/LEY-00018. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (67. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-22/PRO-00018. Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (68. or.).
- 10-22/PRO-00019. Foru Legea, aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua. Osoko Bilkurak onetsia (72. or.).
- 10-22/PRO-00017. Foru Lege proposamena, Nafarroako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorari buruzkoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (73. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00104. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, eta jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe. Hezkuntza Batzordeak onetsia (74. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 10-22/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa. Erregelamendu Batzordeak onetsia (75. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00008. Foru legea, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru legea, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa

HITZAURREA

I

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2006ko abenduaren 13an, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa onetsi zuen. Espainiako Estatuak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen konbentzio hori, eta 2008ko maiatzaren 3an hartu zuen indarra. Konbentzioak ekarri zuen desgaitasuna dutenen eskubideei begiratzeko eredu soziala finkatzea, eta, horrekin batera, desgaitasuna dutenak botere publikoek bermatu beharreko eskubideak dituzten pertsonatzat hartzea, eskubide horiek egiazki eta osotara egikaritzeko aukera izan dezaten, gainerako pertsonen baldintza berberetan.

Konbentzio horrek desgaitasunaren eredu asistentziala alde batera uztea ekarri zuen, hortik aurrera gaiari giza eskubideetan oinarrituta heltzeko: desgaitasuna dutenei eskubidedun subjektuen izaera integrala eman zien, eta ezarri ezen

haien eskaerei eta beharrei erantzun behar zaiela, gainerako herritar guztien aukera berdina izan ditzaten.

Bestetik, Nazio Batuen Konbentzioaren helburuak betetze aldera, Europar Batasunak Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia (2010-2020 eta 2021-2030) landu zuen, xede honekin hain zuzen: desgaitasuna duten guztiek modua izan dezatela beren eskubideez baliatzeko eta Europa-ko ekonomian eta gizartean parte hartzearen onura guztiak jasotzeko. Estrategia horrek lehenetasunezko zortzi jarduketa-eremu zehazten ditu, foru lege honen xede ere badirenak.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ere badu estrategia propio bat, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planean jaso.

Bertan, Konbentzioaren eredu soziala hartzen da. Eredu horren arabera, desgaitasunarekin zerkusia duen hori ez da hartzen gizabanakoaren gabezien arazotzat, baizik eta gainerako pertsonen baldintza berberetan gizarteratzea eragozten dioten oztopo sozialtzat.

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean, aho batez onetsi zuen apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzkoa. Arau horrek oztopo arkitektonikoen ezabaketaren kontzeptu klasikoa gainditu, eta eredu berri baten alde egin zuen, xede honekin: bermatzea pertsonen garapen erabatekoa eta librea, bai eta irisgarritasuna ere pertsona oroentzat, ingurune fisikoan, komunikazioan eta zerbitzuetan, bereziki irisgarritasun behar handiagoak dituztenentzat, hala nola desgaitasunen bat duten pertsonentzat, adinekoentzat edo aldi baterako bada ere ingurunearekin harremana izateko zailtasunak dituztenentzat.

5/2010 Foru Legeak indarra hartu ondoren, Espainiako estatuak abuztuaren 1eko 26/2011

Legea aldarrikatu zuen, estatuko araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziara egokitzeko. Horrela, bada, lege horren azken xedapenetako bigarrenen agindu zenez, testu bategin bat egin eta onetsi beharra zegoen, horren bidez honako lege hauek erregularizatu, argitu eta bateratzeko: apirilaren 7ko 13/1982 Legea, Desgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzeari buruzkoa; abenduaren 2ko 51/2003 Legea, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa; eta abenduaren 26ko 49/2007 Legea, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteei eta zigorre buruzkoa. Lege horiek bateratzeko lanaren erreferentea Nazioarteko Konbentzioa izan zen, eta emaitza, berriz, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duena. Haren bidez, berariaz indargabetu ziren aipatutako hiru legeak, eta konponbidea eman zitzaion dekretua argitaratu arte egondako arau-sakabanaketari.

Legegintzako errege dekretu hori berriki aldatu du martxoaren 31ko 6/2022 Legeak. Horren bidez, irisgarritasun kognitiboa eta hura exijitzeko eta aplikatzeko baldintzak ezartzen eta arautzen dira.

Bestalde, abenduaren 14ko 39/2006 Legea onesteak Estatuan arauzko pauso garrantzitsu bat ematea ekarri zuen. Lege hori autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa da, eta honela definitzen du mendekotasuna: adinarekin, gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin zerikusia duten eta autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sensoriala ez izatearekin edo galdu izanarekin lotuta dauden arrazoiengatik eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beste pertsona baten edo batzuen laguntza edo laguntza handia behar dutenen egoera iraunkorra, edo, desgaitasun intelektuala edo osasun mentaleko arazoak dituztenen kasuan, beren autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar dituztena.

II

Aurreko guztiaren ondorioa da irisgarritasun unibertsala legeen bidez arautzen segitu beharra duela Nafarroak, bat etorri Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta araudi eta estrategia berriekin, helburua izanik aurrera egiten segitzea gizarte inklusiboagoa eta irisgarriagoa lortzeko

bidean, pertsonen autonomia bermatzeko, diskriminazioa saihesteko eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bultzatzeko, batez ere desgaitasuna dutenena, adinekoena eta aldi baterako bada ere ingurunearekin harremanak izateko zailtasunak dituztenena.

Irisgarritasuna beharrezkoa dela ulertu behar da: ez desgaitasuna dutenentzat bakarrik, baizik eta bizitzaren hainbat etapatan haren onurak jaso ditzaketen guztientzat.

Horrekin batera, beharrezkoa da maila desberdineko arau sektorialetan sakabanatuta dauden arauak batzea, horietan guztietan desgaitasuna duten pertsonentzat funtsezkoak diren eta Konbentzioak jorratu dituen beste alderdi batzuk arautzen baitira.

Irisgarritasun unibertsalaren zeharkakotasuna bermatzeko helburua lortu da, Nafarroako Gobernu departamentu guztien eta pertsonen bizikaltate afizientziaz hobetzeko esku hartzen duten botere publiko guztien ekintza koordinatua bidez lortu ere. Hori horrela izanik, orain bidezkoa da foru lege bat garatzea, xedetzat honako hauen sustapena izanen duena: pertsonen autonomia, inklusioa eta gizarteko arlo guztietan parte hartzea (berezi hauetan: osasuna, eskubide eta zerbitzu sozialak, hezkuntza, enplegua eta lana, etxebizitza, kultura, turismoa, kirola eta aisialdiko jarduerak). Hori guztia arau berriekin bat. Gainera, desgaitasunaren bat edo bestelako mugaren bat duten pertsonen kopurua nabarmen ugartuko da biztanleria zahartu ahala. Estimazioen arabera, 2050. urtean, Nafarroako sei pertsonatik batek 65 urte baino gehiago izanen ditu. Halaber, Errealitate Sozialaren Behatokiak dioenez, mendekotasun-tasa %65,8koa izanen da 2035. urterako.

Erabakiak libreki hartu ahal izateko eskubidea pertsonen autonomia eta gizartean duten parte-hartzea sustatzeko oinarria da; beraz, gaitasun juridikoa baldintza berberetan aitortzea hartu beharko da abiapuntutzat. Bestalde, ez dira eskubideak inola ere mugatu behar, eta, horretarako, informazioa eta baimenak formatu egokietan eman beharko dira, baldintza pertsonalen arabera, eta diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinuaren erregelak betez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezzen. Ildo horretatik, honako hauek arautzen dira foru lege honen bidez: bategatik, gaitasun juridikoa egikaritzeko babesa eta laguntza; bestetik, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, kultura eta aisialdiko jarduerak inklusiboak izatearen eta desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokituak egotearen inguruko oinarrizko printzipioak; eta,

azkenik, komunikazioaren eta informazioaren irisgarritasuna, bereziki ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuena, bat etorri nazioarteko, Europako eta estatuko araudi berrienarekin.

Finan, desgaitasuna dutenek eskubidea dute bizimodu independentea izateko eta bizitzaren esparru guztietan bete-betean parte hartzeko, eta eskubide horrek lotura estua du botere publikoen betebeharrak batzuekin, alegia, pertsona guztientzako aukera-berdintasuna bermatzearen irisgarritasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko oinarritzko baldintza batzuk ezartzearekin. Oinarritzko baldintza horiek arautzea Estatuaren eskumena da, ezertan eragotzi gabe autonomia erkidegoek eta toki entitateek dituzten eskumenak, oinarritzko irisgarritasun-baldintza horiek hobetu edo areagotu baititzakete.

III

Hala ezartzen baitu bere 44. artikuluan abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoak, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eksklusiboa du arlo hauetan: lurralde-antolamendua, hirigintza eta etxebizitza; herri-lanak (Estatuaren interes orokorreko izatearen kalifikazio juridikorik ez badute edo horiek egiteak eraginik ez badu Estatuko beste lurralde batzuetan); kultura; ondare historikoa, artistikoa, monumentala, arkitektonikoa, arkeologikoa eta zientifikoa; artxiiboak, liburutegiak, museoak, hemerrotekak eta kultur gordailutzerako gainerako zentroak, Estatuaren titulartasunekoak ez badira; turismoaren sustapena eta antolamendua; kirolaren eta aisialdiaren erabilera egokiaren sustapena; ikuskizunak; gizarte-laguntza; garapen komunitarioa, berdintasun politikak, haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika; barne azokak eta merkatuak; adingabeen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 47. artikuluari jarraikiz, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntza arautu eta administratzeko, haren hedapen osoan, maila eta gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, betiere eragotzi gabe arlo honetan konstituzio aginduetan, agindu horiek garatzen dituzten lege organikoetan eta Estatuak titulu akademiko eta profesionalak lortzeko, luzatzeko eta homologatzeko dituen eskumenetan ezarritakoa, eta Estatuak haiek bete eta bermatzeko egiten dituen goi mailako ikuskapenak.

Beste alde batetik, legearen 49. artikulua arabera, Nafarroak eskumen eksklusiboa du beren ibilbidea osoki foru lurraldean duten trenbide, errepide eta bideetan; baita, neurri berean, bitarteko

horietaz baliatuz egiten den garraioan ere. Hurrengo artikulua, 50.ak, hain zuzen, eskumen eksklusiboa ematen dio Nafarroari naturagune babestuen arloan.

Barne-osasunaren eta higienezaren arloetan, berriz, Foru Hobetzeari buruzko Legearen 53. artikulua Nafarroari esleitzen dizkio gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak, eta, gainera, Estatuko oinarritzko legedia lege bidez garatu eta betearaztekoa.

Lege beraren 58.1.b) artikuluan, Nafarroari esleitzen zaio Estatuaren lan arloko legedia betearaztea, eta haren esku uzten ditu, lan-harremanei dagokienez, Estatuak gaur egun dituen betearazte ahalmen, eskumen eta zerbitzuak, Estatuaren goi mailako ikuskapena eragotzi gabe.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 55.1 artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen dio irratien eta telebistaren araubidea lege bidez garatzeko eskumena, baita hura betearaztekoa ere, irradi eta telebistaren estatutu juridikoa arautzen duen legean ezartzen den moduan eta kasuetan.

Toki administrazioaren arloari dagokionez, legearen 46. artikuluan xedatzen da ezen Nafarroari dagozkiola bere zuzenbide historikoa dela-eta gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak, bai eta aurrekoekin bateragarriak izan eta autonomia erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak ere, udalen autonomiaren aitortzea eragotzi gabe betiere.

Beste alde batetik, lege beraren 58.2 artikulua-ekin bat, Foru Komunitateari dagokio, halaber, nazioarteko tratatu eta hitzarmenak bere lurraldean betearaztea, Nafarroaren eskumeneko gaiak ukitzen dituztenean.

Horrela, bada, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen horiek guztiak betetzean sartzen dira Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateko, haien eskubideak bermatzeko eta irisgarritasun unibertsalean aurrera egiteko baldintzak ezartzeko beharrezkoak diren ekintza publikoak, zeharkako izaera baitute.

Foru lege hau aldarrikatuta, Nafarroari arau-esparru berekia eman nahi zaio desgaitasunari arreta ematearen arloan, genero-ikuspegiarekin, betiere gogoan hartuta nazioarteko, Europako eta Estatuko jarraibideak eta bizi itxaropenaren luzapena eta populazioaren zahartzea ekarriko dituen eszenatoki demografikoa.

IV

Foru lege honek honako egitura du: hamar titulu, hamahiru xedapen gehigarri, bi xedapen ira-

gankor, xedapen indargabetzaile bat eta hamahiru azken xedapen.

I. tituluaren I. kapituluan, foru legearen xedea eta oinarrizko printzipioak ezartzen dira, bai eta legearen edukia ulertzen laguntzen duten zenbait definizio ere. II. kapituluan, berriz, foru legearen aplikazio-eremuak arautzen dira. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean aurreikusitakoez gain, aplikazio-eremu berriak gehitu dira, hala nola osasun-sistema, gizarte-babesa eta gizarte-zerbitzuak eta garapenerako lankidetzak.

Desgaitasuna duten pertsonen definizioari dagokionez, ikuspegi biomedikoan oinarritutako kontzeptua gainditzen da, eta kontzeptu sozialari erreparatzen zaio, horrek esku-hartze sozialak eskatzen baititu gainerako eremuetan. Horrek ez du galarazten azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako prestazioen ondorioetarako arau horrek jasotzen duen kontzeptua edo une bakoitzean indarrean dagoena.

Konbentzioaren arabera, desgaitasuna ezin da urritasunen ikuspegitik bakarrik definitu, baizik eta urritasun horien eta urritasun horiek dituzten pertsonen gizartearen bete-betean, egiaz eta gainerakoen baldintza berberetan parte-hartzea eragozten dieten oztopoen arteko interakzioaren ondorio gisa.

II. titulua diskriminaziorik ezari eta autonomiari buruzkoa da, eta pertsonen autonomiarekiko errespetua eta berdintasunerako eta bizimodu independenterako eskubidea aitortzen ditu. I. kapituluan, neurri batzuk garatzen ditu berdintasun formala bermatzeko, diskriminazio oro saihestuta, bai eta benetako berdintasuna ere, ekintza positiboko neurrien bidez. Konbentzioak bezala, desgaitasuna duten emakumeei eta neskei buruzko neurriak eta kontzientziazioa nabarmentzen ditu.

Diskriminazio interseksionalaren definizioa jaso da, kontuan har dadin desgaitasuna duten emakumeek sexuan oinarrituta jasaten duten diskriminazioa, haien zaugarritasuna areagotu eta diskriminazioa biderkatzen baitu.

Zehazki, kapitulu horretan eta beste batzuetan, balioen aldaketa bultzatzen da, eta genero-ikuspegi erabiltzen da Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako tresna gisa; eta, lege horretan finkatutako helburuak erdiesteko, nabarmentzekoa da, halaber, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, 8. artikuluan eta beste ba-

tzuetan aurreikusitakoari dagokionez duen garrantziagatik.

II. kapituluan, desgaitasunarekin lotutako politiken ikuspegi prebentiboa bermatzeko arau nagusiak jorratzen ditu, eta III. kapituluan, berriz, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentearen sustapena. Horretarako funtsezkoak diren gaiak jorratzen ditu, hala nola desinstituzionalizazioa (desgaitasuna duten pertsona askori sentiarazten dielako beren bizitzan askatasun- eta kontrol-falta dutela), laguntza pertsonala, esku hartzeko ibilbideak edo telelaguntza.

IV. kapituluan eta azken xedapenetako lehenean, Foru Hobetzeari buruzko Legearen 48.1 artikuluan babesean, foru ordenamendua Konbentzioaren 12. artikulura egokitzen da, eta oinarrizko printzipioak ezartzen dira eta laguntzak emateko sistema berri bat sustatzen da, desgaitasuna dutenek gaitasun juridikoa egikaritzen dutela bermatuko duena, hura ukatu beharrean. Aipatutako xedapenean, gure Foru Zuzenbide Zibilaren arauak eta aipamenak (Foru Berriari jasoak) osatzen eta aldatzen dira, aintzat hartuta ekainaren 2ko 8/2021 Legearen ondorioz araubide erkidean eta prozesalean izandako aldaketak. Lege horren bidez, legedia zibila eta prozesala aldatu zen, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko.

V. kapituluan xedatzen denez, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek nahitaezko txostenak eman beharko dituzte irisgarritasunaren eta desgaitasunaren inpaktuari buruz foru lege proiektuak eta erregelamenduzko xedapenak onesteko prozeduretan. Horrez gain, kapitulu horretan Konbentzioaren 32. artikulua garatzen da nazioarteko lankidetzari dagokionez.

III. tituluan, alde batetik, desgaitasuna dutenek beren osasuna babesteko duten eskubidearen bermeak jasotzen dira, alderdi zehatzak, pertsona horien osasuna zaintzeko berariazko neurriak jasotzen dituztenak, kolektibo horri osasun-informazioa ematearekin lotutako gaiak edo Nafarroako osasun-sistemako estrategiak pertsona horientzat eta osasun mentaleko arazoak dituztenentzat.

Bigarren kapituluan, gizarte-zerbitzuen esparruko espezifikotasunak garatzen dira, barnean sartuta pertsonarengan zentratutako prestazioaren oinarrizko printzipioak, eta mota jakin bateko desgaitasuna duten edo inguruabar jakin batzuetan (esaterako, neurri judizialen ondoriozkoetan) dauden pertsonen zahartzeari arreta emateko zainketari, kalitateari eta araubide bereziei lotutako arlo guztien sustapena.

III. kapitulua arreta soziosanitarioa bermatzeko funtsezko gaiei buruzkoa da.

IV. tituluan hezkuntza inklusiboa definitzen eta garatzen da, abiapuntutzat hartuta horren oztopokak gizarteak berak jarritakoak direla. Izan ere, bali-teke gizarteak hezkuntzari buruzko ikuspegi baldintzatuak edukitzea, halako moldez non joko baillitzaiteke hezkuntzaren helburu nagusia eta ia bakarria dela trebetasunak eskuratzea lehia handiagokoak eta indibidualistagoak diren lan-merkatu eta gizarte-bizitza baterako, kontuan hartu gabe hezkuntzak helburu izan behar duela prestakuntza ematea, lanabes emozional eta sozialak direnak ere erabiliz aurre egin ahal izateko pertsonen suertatzen zaizkien zirkunstantzia desberdinei, jende guztiak jarrera kritiko eta solidarioagoko gizarte batean parte har dezan, non dibertsitatea ondasun eta aberastasun gisa ulertuko baita gizarte osoarentzat.

I. kapituluan definitzen da zertan datzan hezkuntza inklusiboa unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren esparruan, eta eskubide gisa egituratzen da, Konbentzioaren 24. artikuluan eskatzen diren funtsezko oharrekin. Era berean, inklusibitateko kultura eta estrategia arautzen dira, bai eta praktika inklusibo nagusiak ere, eta beste alderdi nagusi batzuk garatzen dira: ikaskuntzen diseinu unibertsala, espazioen irisgarritasuna eta beharrezko prestakuntza.

II. kapituluan, unibertsitatearen eremuan hezkuntza inklusiboa bermatzeko gutxienekoak jasotzen dira.

V. titulua, Konbentzioaren 27. artikulua garatuz, honako hauek arautzen ditu: desgaitasuna dutenek enpleguan izan dezaketan diskriminazioaren aurkako babesa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen lan-zerbitzuetan berdintasunez sartzeko arauak, kolektibo horrentzako prestakuntzari buruzko aurreikuspen espezifikokoak, kolektibo horrentzako enplegua sustatzeari buruzkoak, gerora etorritako desgaitasunaren kasuan enplegua lortzeari buruzkoak, eta sentsibilizazioari, plangintzari, koordinazioari eta kontrolari buruzkoak.

VI. tituluan, Konbentzioaren 30. artikulua garatu eta babesten da, desgaitasuna dutenek honako arlo hauetan duten parte-hartzeari dagokionez: bizitza kulturala, aisialdiko jarduerak eta aisia, turismoa barne, eta kirola; bilatzen da parte-hartze hori berdintasunez gauza dadila, bai eta arlo horietan desgaitasuna dutenen ahalmena sustatzea, eta horrez gain, prestakuntza, sentsibilizazioa eta sustapena.

VII. tituluan (berariazko xedapenak), irisgarritasuna arautzen da 4. artikuluan aurreikusitako esparru guztietan.

Konbentzioaren atarikoak garbi aitortzen du ezen, desgaitasuna dutenek bizimodu independentea izateko eta bizitzaren esparru guztietan bete-betean parte hartzeko, oso garrantzitsua dela arlo hauetarako irisgarritasuna: ingurune fisiko, soziala, ekonomikoa eta kulturala, osasuna, hezkuntza, informazioa eta komunikazioak. Izan ere, irisgarritasunik ez izatea traba da eskubide eta askatasun horietaz baliatzeko.

Irisgarritasun unibertsala hau da, finean: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Printzipio horrek "diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuaren" estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izaneren egin beharreko arazoizko egokitzapenatarako.

Desgaitasunari buruzko Europako Estrategiak (2010-2020) adierazten du, halaber, komeni dela irisgarritasuna arautzea beste esparru batzuetan, besteak beste, komunikazioan eta informazioan, eta ondasun eta zerbitzuetan, esparru horiek eragin handia dutelako, bai desgaitasuna duten pertsonen autonomian, bai zerbitzuen gainerako erabiltzaileen baldintza berberetan parte hartzeko aukerari dagokionez. Azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten bilakaera handia dela-eta, horiek kontuan hartzen dituen arau erregulazio berria behar da, gaur egun etengabe presente daudelako gure eguneroko bizimoduan eta frogaturik dagoelako funtsezkoak direla lege honek biltzen dituen helburuak lortzeko; baina, aldi berean, traba bihurtzen dira biztanleria osoa haietaz baliatzeko modurik izatea lortu ezean.

Alde horretatik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentaraua argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, 2016ko abenduaren 2koan. Zuzentarau hori sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa da. Amaituta dago zuzentarau horren transposizio-epea. Zuzentarau hori estatuko legedian txertatzeko, irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretua eman zen, sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa. Hori horrela, errege dekretu horrek ordeztu eta hobetu egin zituen ordura arte 1494/2007 Errege Dekretuaren

bidez administrazio publikoen atariei eskatzen zitzaizkien baldintzak. Nafarroari dagokionez, ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretua eman zen, zeinaren bidez, irisgarritasun politika onetsi baitzen webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta foru sektore publiko instituzionalean. Horrela, bada, Europako EN 301 549 V1.1.2 (2015-04) arauan (Espainiako katalogora UNE-EN 301549 V1.1.2:2015 arau gisa egokitua) ezarritako irisgarritasun berrmatuko mailaren baliokideari darraio gaur egungo Europako UNE-EN 301549:2020 araua (IKT produktuei eta zerbitzuei eskatzen zaizkien irisgarritasun-baldintzak).

Hauxe da zuzentarauaren abiapuntua: gizarte digital baterantz egiten den aldaketaren joerak informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko bide berriak eskaintzen dizkie erabiltzaileei, eta sektore publikoko erakundeen webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak erabilerrazagoak izatea da haren xedea, irisgarritasuneko betebeharrak komunitan oinarritzen direlako eta elkarrengarritasuna sustatzen dutelako. Horrela, herritarrek sektore publikoko zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago izanen dituzte webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen bidez, beren eguneroko bizimodu erraztuko duten zerbitzuak eta informazioa lortuko dituzte, bai eta Europar Batasun osoan beren eskubideak baliatzeko modua ere.

Era berean, Irisgarritasun Unibertsalaren UNE170001-1 eta 2 arauaren erreferentzia mantentzen da foru legearen erregelamenduzko garapenerako, eta beste betebeharrak gehitzen da, hots, Nafarroako administrazio publikoek neurriak hartu beharko dituztela beren webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasuna handitzen joateko pixkanaka, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentzarauan, hau da, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoan, aurreikusitakoarekin.

Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei esleitutako eskumenak eragotzi gabe, foru legeak berariaz aipatzen du Nafarroan aplikatzekoak direla irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan Estatuko oinarritzko araudian ezarritako baldintza oinarritzaileak.

Nafarroako administrazio publikoek irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak betetzeko eta kontrolatzeko dituzten betebeharrak zenbait neurriekin indartzen dira: diskriminazioaren kontrako neurriak, ekintza positiboko neurriak eta sustapen, bultzada eta partaidetzarako neurriak, irisgarritasun unibertsala

lortzeko bidean zuzeneko eragina dutenak, bai eta, azken batean, bizimodu independentea lortzekoan; hori guztia, eragotzi gabe beste aplikazio-eremu batzuetan erregelamenduzko garapena egitea, beharrezkotzat jotzen bada.

VIII. tituluaren lehen kapituluaren honako hauek arautzen dira: Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateko jarduketarako publikoaren plangintza (aldeztatik diagnostiko bat eginda) eta ebaluazioa; gai horri buruzko informazioarekin, hedapenarekin eta azterlanekin zerikusia duen guztia; eta ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen aurreikusitako prestakuntza zabalteko aurreikuspenak.

II. kapituluaren parte-hartzea arautzen da, barnean sartuta, lehenik eta behin, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluaren bidez gauzatzen dena, eta horrekin batera, Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseiluaren bidez egiten dena; azken horren xedea da irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna sustatzea pertsona guztientzat, ez bakarrik desgaitasuna dutenentzat. Legearen artikuluko guztietan islatzen da hedapen hori, kontuan hartu baitira, batetik, populazioaren zahartzea, eta, bestetik, pertsona guztien irisgarritasun beharrianak. Nolanahi ere, ezin zen bestela izan, zenbait eskubide desgaitasuna aitorturik dutenei baizik ez zaizkie aitortzen, jarraikiz Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoari.

Era berean, aurreikusten da desgaitasuna eta nahasmendu mentala dutenek ordezkari izan behar dutela Pertsonarengan zentratutako arretari sostengua emateko Sarearen Batzordean (abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuaren bidez ezarria); mekanismoak ere aurreikusten dira desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeek ordezkari izan behar duten eremuetan parte hartzen dutela bermatzeko; horrez gain, ikusten da beharrezkoa dela desgaitasuna duten haurrak edo nerabeak haurren partaidetzarako organoan sartzeko (arau honen seigarren xedapen gehigarrian dago jasota) edo sektore horrek Nafarroako Gizarte Arretaren Etika Batzordearekin duen harremana bermatzea.

IX. tituluaren irisgarritasun unibertsalaren arloko arbitrajea eta bitartekaritza aurreikusten dira.

X. tituluaren ezartzen da ezen Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege

Dekretuaren bidez onetsitakoan– aurreikusitako zehapen araubide bera aplikatuko dela Nafarroan, legegintzako errege dekretu horretan ezarritako moduan.

Lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Nafarroako Gobernuak jarduketa plan bat aurkeztu beharko dio Nafarroako Parlamentuari, irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona ororentzako diseinurako eskubideari dagokionez dauden gabeziak zuzentzeko xedea izanen duena.

Bigarren xedapen gehigarrian, berriz, jasotzen da Nafarroako toki entitateek irisgarritasunaren arloko jarduketa plan integral bat onetsi beharko dutela.

Hirugarren xedapen gehigarrian, terminologia-aren aldetik egindako egokitzapenak jasotzen dira, aldaketaren xede ez diren hainbat arauditan Konbentziora egokitu gabe zeuden erreferentziei dagokienez.

Laugarren xedapen gehigarriak aurreikusten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak progresibitate-irizpideen arabeko tributu-neurriak hartuko dituela desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat.

Bosgarrenean, gerora etorritako desgaitasunaren kasuetan enpleguari eusteko aurreikuspenak jasotzen dira, beste administrazio batzuen menpe dauden neurrian.

Seigarren xedapen gehigarrian, enplegu-zentro berezien kalifikazioa eta inskripzioa arautzen dira, eta azken xedapenetako seigarrenean, berriz, kontratu publikoei buruzko foru legedia aldatzen da, gizarte-ekimeneko kontratuei lehentasuna emateko kontratuen erreserban.

Zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen ditu desgaitasuna duten pertsonentzat zentro okupazionaletan behar beste plaza izateko printzipioak, horietarako sarbidea eta zentroek emanen dituzten programak.

Zortzigarren xedapen gehigarriak aurreikusten du desgaitasuna duten haur eta nerabeak Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseilura batzea.

Bederatzigarrenean, errenta haztatzeko arau bat ezartzen da, pertsona edo familia batentzat desgaitasuna izateak dakarren gastu handiagoari erantzuteko, dirulaguntzak errentaren arabera eskuratzen direnean edo laguntza horien zenbatekoa errentaren arabera denean.

Hamargarrenean zentro okupazionalerako sariak edo konpentsazioak jorratzen dira, eta hamaikagarrenean bertsio ofizial elebidunen ira-

kurketa errazeko dokumentazioa, euskarari buruzko araudiaren arabera.

Lehen xedapen iragankorrak dio 5/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenek indarra izaten segituko dutela foru lege honen erregelamenduzko garapenek indarra hartu arte.

Bigarren xedapen iragankorrak Aukera Berdintasunerako Arbitraje Batzordeen eginkizunen zati bat benetan garatzea aurreikusten du, horiek martxan jartzen ez diren bitartean.

Xedapen indargabetzaile bakarrak berariaz indargabetzen du Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea. Bestalde, hauek ere indargabetzen ditu: 57/1990 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, Garraioetako oztopo fisiko zein sentsorialak kentzeko arautegia onesten duena, eta 154/1989 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea garatu eta aplikatzeko erregelamendua onesten duena. Izan ere, gainditurik gelditu dira estatu mailan irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak ezartzen dituzten geroagoko beste arau batzuk direla-eta.

Azken xedapenetako bigarrenak Konbentziora egokitzen ditu Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen manu batzuk.

Azken xedapenetako hirugarrenak beste xedapen gehigarri bat sartzen du mendekotasun egoera aitortzeko prozeduraren erregulazioan, sinplifikazioa sustatzeko desgaitasuna zein mendekotasuna baloratu behar direnean.

Azken xedapenetako laugarrenak zenbait aldaketa egiten dizkio Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeari, zertarako eta Konbentzioaren 12. artikulua eta 8/2021 Legera egokitzeko, eta beste helburu batzuk ere erdiesteko, besteak beste, aurrepausoak ematea zentro soziosanitarioetan erabiltzen diren euskailuak murrizteko eta ezabatzeke.

Azken xedapenetako bosgarrenak klausula sozialak sartzen ditu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean, helburu sozialak lortzeko ere baliatu dadin horien erabilera estrategikoa.

Azken xedapenetako seigarrenak aurreikusten du Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea, irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro bereziek, ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziek eta laneratze-

enpresek kontratu publikoak adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeari dagokionez.

Azken xedapenetako zazpigarrenak aldatu egiten du Gizarteratzerako eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, eta zortzigarrenak, aldiz, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea.

Azken xedapenetako bederatzigarrenak aurreikusten du erregelamenduz garatuko direla bertan aipatzen diren artikulua, eta azken xedapenetako hamargarrenak entitate laguntzailatzat jotzen ditu desgaitasun-alorreko gizarte-erakundeak.

Azken xedapenetako hamaikagarrenak artikuluen izaera identifikatzen du, Nafarroak arlo bakoitzean dituen eskumenen arabera. Azken xedapenetako hamabigarrenak Nafarroako Gobernuari baimena ematen dio foru lege hau aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman eta behar diren neurriak har ditzan. Azken xedapenetako hamahirugarrenak legea indarrean sartzeari arautzen du.

V

Foru lege hau prestatzeko lanetan honakoek hartu dute parte, kontsulta egin baitzaie: Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak, Desgaitasuna duten Pertsonak ordezkatzen dituzten Entitateen Nafarroako Batzordea (CERMIN), Toki Araubidearen Foru Batzordea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF), Nafarroako Adingabearen Kontseilua, Nafarroako Adinekoen Kontseilua, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua, Irigarritasun Unibertsalaren eta Desgaitasunen bat duten Pertsonentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua, Foru Zuzenbide Zibilaren Aholku Kontseilua, Kontratazio Publikorako Batzordea, Nafarroako Kirolaren Kontseilua, Nafarroako Kultura Kontseilua eta Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Foru legearen xedea, printzipioak eta definizioak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da, batetik, Nafarroan desgaitasuna dutenen eskubideak bermatzea eta jarduketari batzuk ezartzea haiei arreta emateko, eta, bestetik, irigarritasun unibertsalerako baldintzak finkatzea, beharrezkoak baitira desgai-

tasunen bat dutenen eta haien familien aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitateko inklusioa, parte-hartzea eta bizi-modu independentea bermatzeko.

Hori guztia eragotzi gabe garapen-bidean dauden herrialdeetan desgaitasuna duten pertsonen arreta eta irigarritasuna hobetzea sustatzea, 26. artikuluekin bat.

2. Foru lege honetan edo Estatuko legedian – Konstituzioko eskubideak erabiltzean eta betebeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzen dituen horretan – aipatzen diren prestazioen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira Estatuko legedian ezarritakoak, eta foru lege honetan aitortutako gainerako eskubideen ondorioetarako, berriz, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira aurreikusitakoaren arabera iraunkorrek izanen diren urritasun fisikoak, mentalak, intelektualak edo sentsorialak dituztenak, hainbat oztoporekin topo egiten dutenez ezin dutenak gizartean bete-betean eta egiaz parte hartu, besteek dituzten baldintza berberetan.

2. artikulua. Printzipioak.

Foru lege honek printzipio hauek ditu oinarri:

a) Pertsonari datxekion duintasunaren, autonomia pertsonalaren eta erabakiak hartzeko askatasunaren errespetua:

Pertsona guztiei datxekien duintasuna eta balioa aitortzeak berekin dakar haien eskubide berdinak eta besterenezinak ere aitortzea, eta askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarri dira horiek.

Autodeterminazioa posible izan dadin, beharrezkoak dira autonomia pertsonala eta, horrekin lotuta, pertsonentzat esanguratsuak diren jardueretan askatasunez erabaki ahal izatea, norberaren identitatea garatzen baita norberaren bizitzaren eragile kausal nagusi gisa, pertsona bera izanik hautuak egin edo erabakiak hartzen dituen, bere kabuz edo behar dituen laguntzekin, bere bizi-kalitatea mantentzeko edo hobetzeko bere bizi-proiektuaren arabera.

b) Bizimodu independentea: horrek esan nahi du desgaitasuna dutenek behar diren baliabide guztiak izan behar dituztela aukerak egin eta beren bizitzak kontrolatu ahal izateko, eta eragiten dieten erabaki guztiak hartzeko, eta komunitatearen bizitzan aktiboki parte har dezaten, pertsonaren garapen askerako eskubidearekin bat etorri.

c) Diskriminaziorik eza: modalitate guztiak barne, bat etorri giza eskubideen nazioarteko tratatuekin eta hurrengo artikuluan ezarritakoarekin.

d) Desgaitasuna duten pertsonen desberdintasuna errespetatzea eta onartzea, giza dibertsitatearen eta gizatasunaren zati den aldetik, eta desgaitasuna bera ere identitatearen zati den aldetik, ezin baita desgaitasuna arrazoi legitimoztat hartu giza eskubideak ukatu edo murrizteko; orobat, desgaitasuna duten pertsonen artean dagoen aniztasuna ere errespetatzea eta onartzea, eta horretarako, beharrezkoa da indibidualizatzea.

e) Aukera-berdintasuna, berdintasun inklusiboren eredu gisa. Lau dimentsio dauzka:

– Bidezko birbanaketa, desabantaila sozioekonomikoei aurre egiteko.

– Aitortza, estigmari, estereotipoei, aurreiritziei eta indarkeriari aurre egiteko.

– Parte-hartzea, pertsonen izaera soziala berresteko.

– Egokitzapena, desberdintasunari tokia egiteko, aurreko apartatuarekin bat.

f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, sexuak eragindako zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazio oro desagertzea ekarriko duena, eta balioak aldatzea eragin eta bizitzaren eremu guztietan berdintasun sustantiboa lortzeko bermea ere ekarriko duena.

g) Normalizazioa, desgaitasuna dutenek eskuira izan ditzaten beren gizarteko bizimoduak eta eguneroko jarduerak, horrek eskatzen dituen doikuntzekin.

h) Irigarritasun unibertsala, aurretiazko baldintza gisa desgaitasuna dutenak beren eskubideez eta askatasunez baliatzeko, modu independentean bizitzeko eta gizartean bete-betean parte hartzeko, erabakiak hartzeko eta botere kotak baldintza berberetan erdiesteko.

i) Diseinu unibertsala edo desgaitasuna dutenentzako eta pertsona ororentzako diseinua, ahalik eta neurri handienez aplikatu beharrezkoa ondasun, produktu, instalazio, teknologia eta zerbitzu berri guztiei, berraztertuta gera dadin pertsona guzti-guztiek erabat, berdintasunez eta mugarik gabe eskuratzen ahal dituztela, halako moduz non aintzat hartuko baita pertsona horien berezko duintasuna eta aniztasuna.

j) Parte-hartze eta inklusio sozial osoak eta egiazkoak, desgaitasuna dutenak aurki ditzaketen oztopoak ezabatuz, izan jarrerari lotutako oztopo-

ak, izan oztopo fisiko, juridiko, ekonomiko, sozial edo komunikaziokoak.

k) Elkarrizketa zibila; horrek eskatzen du kontsultak egitea, horretarako informazio nahikoa eta egokia emanaz, eta desgaitasuna dutenen lankidetzak aktiboa ahalbidetzen duten bideak erabiltzea, hurrengo artikuluen o) apartatuan jasotzen den moduan, erabakiak hartzeko prozesuetako azken emaitzan lagundu ahal izan dezaten.

l) Desgaitasuna dutenen nortasunaren garapena errespetatzea, eta, bereziki, desgaitasuna duten haurrek beren identitatea zaintzeko eta beren interes gorenari erantzuteko duten eskubidea, neurriak pertsona bakoitzaren bizi-ziklora egokituz.

m) Irigarritasun unibertsalaren eta artikuluko honetako gainerako printzipioen zeharkakotasuna Foru Komunitateko Administrazioaren politika guztietan.

n) Prebentziozko ikuspegia politika publikoetan, desgaitasuna duten pertsonak ukitzen dituzten arazoei aurrea hartzeko eta arazo horien kautsetan esku hartzeko.

ñ) Lurralde kohesioa, landa ingurunearen eta hiri eremuaren artean egon daitezkeen desberdintasunen ondorioz zerbitzuak, azpiegiturak eta baliabideak eskuratzeko dauden zailtasunak zuzentzeko.

o) Erantzunkidetasuna: aintzat hartuta desgaitasuna dutenak eskubideak eta zainketak bermatzea gizarte osoaren zeregina dela, ez bakarrik botere publikoena, familia eta horretan diharduten erakundeena, eta gizonen eta emakumeen zeregina dela, neurri berean.

p) Edozein motatako desgaitasuna duten pertsonen enplegua lor dezaten sustatzea.

3. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira honako hauek:

a) Irigarritasun unibertsala: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izan daitezkeen, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz erabiltzekoak, betiere. Printzipio horrek “diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuaren” estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izan egin beharrezko arrazoizko egokitzapenentzako.

b) Diseinu unibertsala edo ororentzako diseinua: jarduera honen bidez, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, lanabesak, programak, gailuak eta antzeko elementuak jatorritik pentsatu eta diseinatzeko dira pertsona orok erabiltzeko modukoak izan daitezten, ahalik eta hedadura handienarekin, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik egin beharrik gabe. "Diseinu unibertsalak edo ororentzako diseinuak" ez ditu baztertuko desgaitasuna dutenen talde partikularrentzako laguntza produktuak, halakorik behar badute.

c) Gizarte-inklusioa: prozesu honen bidez, gizarteak balio konpartituak sustatzen ditu guztien ongia eta kohesio soziala lortzeko, horrela desgaitasuna duten guztiak behar diren baliabideak eta aukerak izan ditzaten, bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean, hezkuntzan, lanean eta kultur arloan bete-betean parte hartzeko eta gainerakoen bizi-baldintza berdinarazteko.

d) Aukera-berdintasuna: desgaitasunak eragindako inolako diskriminaziorik, zuzeneko nahiz zeharkakorik, ez egotea da, barne harturik edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, helburutzat edo emaitzatzat duena desgaitasuna duten pertsonen arlo politikoan, ekonomikoan, hezkuntzakoan, sozialean, lanean, kulturean edo bestelako arlo batean trabak jartzea edo haien indarrak gabe uztea giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak baldintza berberetan aitortu, gozatu edo erabiltzeko modua.

e) Zuzeneko diskriminazioa: desgaitasuna duen pertsona batek bizi duen egoera da, bere desgaitasuna dela-eta beste pertsona batek baino tratatu okerragoa jasotzen duenean antzekoa den egoera batean.

f) Zeharkako diskriminazioa: zeharkako diskriminazioa dagoela ulertuko da baldin eta lege edo erregelamendu mailako xedapen batek, hitzarmen edo kontratu bidezko klausula batek, banakako itun batek, alde bakarreko erabaki batek edo irizpide edo jardunbide batek, edo itxuraz neutroa den ingurune, produktu edo zerbitzu batek, desgaitasuna dela-eta desabantaila eragiten ahal badiu pertsona bati beste batzuen aldean, objektiboki helburu legitimo bat ez duenean eta helburu hori lortzeko baliabideak egokiak eta beharrezkoak ez direnean.

g) Asoziazio-diskriminazioa: honelako diskriminazioa gertatzen da pertsona batek edo bera kide duen taldeak tratatu diskriminatzailea jasotzen duenean beste batekin duen loturagatik, tratatu hori desgaitasunak eragindakoa denean.

h) Jazarpena: pertsona baten desgaitasunarekin lotutako eta haren gogoz kontrako jokabide oro, duintasunaren aurka egitea edo giro beldur-eragilea, etsaitasunezkoa, apalgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzeko asmoa duena edo ondorio hori eragiten duena.

i) Diskriminazio anizkoitza: pertsona batek bi arrazoiengatik edo gehiagorengatik jasaten badu diskriminazioa, eta horrek konplexua edo larriagoa bihurtzen badu diskriminazioa.

j) Diskriminazio interseksionala: kasu honetan, hainbat arrazoik jarduten dute aldi berean, elkarri eraginez, eta bereizezinak dira; hori horrela, ukitutako pertsonak desabantaila eta diskriminazio mota berezien eraginpean jartzen dituzte.

k) Genero-ikuspegia: emakumeen eta gizonen desberdinkeria ikusarazteko eta horiei aurre egiteko beharrezkoa den azterketa- eta lan-metodologia, haien egoera eta posizio desberdinak aitortzen baititu.

Foru lege honen esparruan, genero-ikuspegia behar da desgaitasunari buruzko politiketan, eta desgaitasun-ikuspegia genero-berdintasuneko politiketan.

l) Ekintza positiboko neurriak: berariazko neurriak dira, bideratuta daudenak desgaitasunak eragiten dituen desabantailak saihestu edo konpentsatzera, edo desgaitasuna dutenen egiazko berdintasuna eta bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean, hezkuntzan, lanean eta kultur arloan bete-betean parte hartzea bizkortu edo lortzera, desgaitasun mota eta maila desberdinak aintzat harturik.

m) Bizimodu independentea: egoera honetan dago desgaitasuna izanik bere bizitzaren gainean erabakitzeko ahalmena eta eskubidea egikaritzen dituen pertsona, parte-hartze aktiboa duena bere komunitatearen bizitzan, nortasuna libreki garatzeko eskubidearekin bat; modua dauka non eta norekin bizi nahi duen hautatzeko, gainerako baldintza berberetan, bizimodu zehatz baten arabera bizitzeko beharrik gabe.

n) Normalizazioa: printzipio honen arabera, desgaitasuna dutenek berdintasun baldintzetan bizitzeko aukera izan behar dute, bai eta beste edozein pertsonak eskura dituen leku, esparru, ondasun eta zerbitzu berberak eskuratzeko ere.

ñ) Arrazoizko egokitzapenak: giro fisikoa, soziala eta jarreraren ingurukoa desgaitasuna dutenen behar berariazkoetara egokitzeko behar diren aldaketak eta egokitzapenak dira, modu eraginkor eta praktikoa eta neurritz gaineko edo bidegabe karga ekarri gabe, desgaitasuna duten per-

tsonen irisgarritasuna edo partaidetza errazten dutenean eta eskubide guztiak baliatu edo egikaritzea bermatzen, gainerako herritarren baldintza berberetan.

o) Elkarrizketa zibila: printzipio honen bitartez, desgaitasuna dutenak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezartzen dutenari jarraituz, desgaitasuna dutenen alorrean garatzen diren politika ofizialak prestatzen, gauzatzeko, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten; betiere desgaitasuna duten haurren eskubide hau bermatu behar dute: beren iritzia libreki adierazteko beraiengan eragina duten gai guztiei buruz, bai eta, eskubide hori erabiltzeko, beren desgaitasunerako eta adinerako egokia den asistentzia jasotzeko ere.

p) Desgaitasunaren arloko politiken zeharkatasuna: printzipio honen arabera, administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez dira mugatzen desgaitasuna dutenentzako soilik pentsatutako plan, programa eta ekintza berariazkoetara; aitzitik, barnean hartzen dituzte izaera orokorreko politikak eta ekintza-ildoak ere, jardueraren publikoaren edozein esparrutakoak, betiere desgaitasuna dutenen beharrezkoak eta eskaerak aintzat harturik.

q) Desgaitasuna: egoera bat da, bi faktore hauen arteko interakziotik sortzen dena: batetik, aurreikusitakoaren arabera iraunkorrak izan diren urritasun fisikoak, organikoak, sentorialak, intelektualak, garapenekoak edo mentalak dituzten pertsonak, eta, bestetik, edozein motatako oztupoak, eragozpen edo traba direnak pertsona horiek gizartearen bete-betean eta egiaz eta gainerrakoen baldintza berberetan parte hartzeko.

r) Irisgarritasunaren arloko jarduketaren plana: plan horren bidez zehazten da zer jarduketa egin behar diren planaren aplikazio-eremuan lor daitezkeen foru lege honetan eta kasuan kasuko garapen araudian ezarritako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak, eta jarduketa horiek planifikatzen dira, orobat.

s) Osasuna: erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala, eta ez soilik gaixotasunik ez izatea.

t) Irakurketa erraza: hizkuntza erraz eta argiarekin laburtu eta egindako edukiak, desgaitasun kognitiboa edo desgaitasun intelektuala duten pertsonak uler ditzaten. Eduki juridikoa duten egintzei buruzkoak direnean, inola ere ez dituzte ordezkatzeko edo aldatzeko jatorrizko dokumentuaren edukia eta ondorio juridikoak.

u) Zahartze aktiboa: ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala bizitza guztian zehar izateko aukerak ahalik eta gehiena aprobetxatzeko prozesua da, helburu duena bizi-kalitatea, produktibitatea eta bizi-itxaropena adin zaharrera hedatzea desgaitasun-prebalentzia minimoarekin.

II. KAPITULUA

Foru legearen esparrua

4. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Nafarroaren eskumenen esparruan, honako hauek dira foru lege honen aplikazio-eremuak:

- a) Espazio publiko urbanizatuak, azpiegiturak eta eraikuntzak.
- b) Garraioak.
- c) Komunikazioak eta informazioaren gizartea.
- d) Jendearentzat eskuragarri dauden produktuak eta zerbitzuak.
- e) Administrazio publikoekiko harremanak.
- f) Justizia Administrazioa.
- g) Kultur ondarea.
- h) Kultura-, aisia-, turismo- eta merkataritza-jarduerak.
- i) Kirol-jarduerak eta ariketa fisikoa.
- j) Enplegua.
- k) Hezkuntza-sistema.
- l) Osasun-sistema.
- m) Gizarte-babesa, gizarte-zerbitzuak eta garapenerako lankidetzak.
- n) Parte-hartze sozial eta politikoa

2. Aplikazio-eremu horiei dagokienez, foru lege honen menpe egonen dira Nafarroan finkatutako pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, lurralde horretan foru lege honek jasotako zerbitzuren bat ematen dutenak.

II. TITULUA

Diskriminaziorik eza eta autonomia

I. KAPITULUA

Diskriminaziorik eza eta aukera-berdintasuna

5. artikulua. Berdintasuna bermatzera bideratutako neurriak.

1. Nafarroako administrazio publikoei dagokie beharrezkoak diren irisgarritasun-baldintzak ezartzeko aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezkeen, per-

tsona guztien autonomia eta inklusioa bermatu behar baita, eta, bereziki, desgaitasuna dutenena.

2. Berdintasunerako eskubidea egiazkoa izan dadin, Nafarroako administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak bermatuko dituzte pertsonak eskubideak baldintza berberetan egikaritzea egiazkoa eta eraginkorra izan dadin bizitzaren esparru guztietan, arreta berezia eman ez desgaitasuna dutenen eskubideen babesari, gai zehatz batzuetan bereziki: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, osasuna, enplegua, etxebizitza, gizarte-babesa, hezkuntza, benetako babes judiziala, mugikortasuna, komunikazioa, informazioa eta kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren eskuragarritasuna, eta gai publikoetan parte hartzea, betiere foru lege honetan eta aplikatzeak diren gainerako arauetan aurreikusitako moduan.

Era berean, Nafarroako administrazio publikoek arreta berezia emanen diete diskriminazio anizkoitza eta diskriminazio interseksionala jasateko arrisku gehiago duten pertsona edo taldeei, hala nola desgaitasuna duten haurrei eta emakumei, desgaitasuna duten adinekoei, desgaitasuna izan eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumei, desgaitasuna duten LGTBI+ pertsonari, askotariko desgaitasuna dutenei eta gatazka armatuen biktima izanik desgaitasuna dutenei edo gutxiengo etnikoetako kide edo migratzaile izanik desgaitasuna dutenei.

6. artikulua. Diskriminazioaren aurkako neurriak.

Diskriminazioaren aurkako neurriek hauxe dute xedea: prebenitzea edo zuzentzea pertsona batek, zuzenean nahiz zeharka, beste batek baino tratatu okerragoa jasotzea, antzekoa edo konparagarria den egoera batean.

Irisgarritasun faltarekin zerikusia duen diskriminazioari aurre egiteko, zenbait eskakizun ezarriko dira irisgarritasunari buruz edo oztopoak kentzeari buruz, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzat edo taldeentzat osagarri gisa egokitzapenak egiteko beharra ere, halakorik behar badute.

Ondorio horietarako, ulertzen da irisgarritasun eskakizunak direla inguruneek, prozesuek, produktuek, ondasunek eta zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak, eta horrez gain, diskriminaziorik ezaren baldintzak egotea arau, irizpide, politika publiko eta jardunbideetan, irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona ororentzako diseinuaren printzipioekin bat eta baldintza horien xede den diskriminaziorik ezaren ondorioetarako.

Egokitzapen bat arrazoizkoa den ala ez erabakitzeke, foru lege honen 3.n) artikuluan ezarritakoarekin bat (eta, beraz, diskriminazioa saihesteko nahitaezkoa den ala ez), kontuan hartuko dira neurriaren kostuak, hura ez hartzeak desgaitasuna dutenei ekartzen dizkien ondorio diskriminatzaileak, hura gauzatu behar duen pertsona, entitate edo erakundearen egitura eta ezaugarriak eta finantzabide ofiziala edo beste edozein laguntza eskuratzeko aukera.

7. artikulua. Ekintza positiboko neurriak.

Nafarroako administrazio publikoek ekintza positiboko neurriak hartuko dituzte desgaitasuna dutenen alde. Era berean, neurri osagarriak ezarriko dira kolektibo kalteberei zuzenduak, arriskua dutelako diskriminazio handiagoa jasateko –diskriminazio anizkoitza eta diskriminazio interseksionala barne– edo aukera-berdintasun gutxiago izateko. Horien artean daude, besteak beste, desgaitasuna duten emakumeak –bereziki, genero-indarkeriaren biktima badira–, desgaitasuna duten LGTBI+ pertsonak, desgaitasuna duten haurrak, desgaitasun motaren bat duten adinekoak, beren autonomiaz baliatzeko edo erabakiak libreki hartzeko laguntza handiagoa behar dutenak, askotariko desgaitasuna dutenak eta desgaitasuna izan eta bazterketa soziala pairatzen dutenak, bai eta desgaitasunen bat izanik landagunean bizi ohi direnak eta gatazka armatuen biktima edo desgaitasuna duten gutxiengo etnikoetako kide direnak edo migratzaileak direnak.

Larrialdi-egoeretan, neurri osagarri horiek salbuespenak ekartzen ahal dizkiete neurri orokorre; esate baterako, desgaitasunen bat duten errefuxiatuei arreta eskaintzeagatik edo ezgaitasunak sortzen dituzten eboluzio azkarreko gaixotasunak dituzten pertsonentzako prestazioak baloratu eta ezartzeagatik sortzen ahal direnak.

Ekintza positiboko neurri horiek laguntza osagarriak izan daitezke, bai eta arau, irizpide eta jokabide onuragarriagoak ere. Laguntza osagarriak honakoak izaten ahalko dira: laguntza ekonomikoak, laguntza teknikoak, laguntza-zerbitzu pertsonala, zerbitzu espezializatuak eta komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak.

8. artikulua. Desgaitasuna duten emakumeak.

1. Nafarroako administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, eta aintzat hartuta desgaitasuna duten emakumeak egoera bereziki ahulean daudela, behar dena egiten dute haien alde:

a) Emakume horiek ez daitezten inolako indarkeriaren biktima izan, Espainiak gaiari buruz sinatutako nazioarteko tratatuen arabera eta Estatuko eta Foru Komunitateko araudi indardunaren arabera, eta inolako egoeratan haien baimen aske eta informatua baztertu ez dadin.

b) Uneoro errespetatu daitezten emakume horien osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak, gainerako emakumeen eta nesken baldintza berberetan.

c) Ez dezaten sexuagatik diskriminaziorik jasan, ez eta axolagabekeriarik ere beren lehentasun, nahi eta borondatearen aurrean, eta ez dezaten horregatik errepresaliarik jasan.

2. Genero arrazoiengatik eraginari buruzko txostenetan eta irisgarritasunari eta desgaitasunari buruzkoetan, eskura dauden datuak aztertuko dira, desgaitasuna duten emakumeentzat edo neskatoentzat aukera- edo emaitza-desberdintasuna azaltzen dituzten eremuei dagokienez, datuok oinarri izanen baitira horiek ezabatzeko edo murrizteko neurri eta erabakiei begira.

3. Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntzea sustatuko da, esku-hartzeek beren autonomia, autoestimuan eta autozaintetan lagun dezaten eta eremu guztietan parte hartzen eta protagonismoa izaten lagun dezaten.

9. artikulua. Desgaitasuna duten haurrak.

Adingabearen interes gorenaren printzipioa aplikatuko zaie desgaitasuna duten haur eta nerabeei, desgaitasun mota bakoitzaren inguruabarrak berariaz kontuan hartuta, eta bermatuko da behar bezala informatu, kontsultatu eta entzun zaiela haien egoerarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesu guztietan, eta zainduko da edozein indarkeria edo eskubide-urraketa prebenitzen dela, eta estrategiak sustatuko dira familian integratzeko eta, egoitza-zentroetan biziz gero, desinstituzionalizatzeko.

10. artikulua. Kontzientzia hartzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak neurriak hartuko ditu gizartea sentsibilizatzeko, baita familien artean ere, kontzientzia handiagoa hartzeko desgaitasuna dutenen eskubideekiko eta eskubide horiekiko eta pertsona horien duintasunarekiko errespetua sustatzeko.

2. Aurre eginen die desgaitasuna duten pertsonen buruzko estereotipoen, aurreiritziaren eta praktika kaltegarriaren, barnean direla generoan edo adinean oinarritzen direnak, bizitzako esparru guztietan.

3. Desgaitasuna duten pertsonen gaitasunez eta zenbait esparrutan egiten dituzten ekarpenez jabetzea sustatuko du, aniztasunarekin lotutako aberastasuna eta sormena zabalduta.

4. Horretarako, sentsibilizazio-kanpainak eginen dira arlo guztietan eta hainbat publikitate eskarritan, eta bereziki kontuan hartuko da hezkuntza-sisteman.

5. Komunikabideetan antzeko ekimenak garatzea sustatuko da, eta kanpainak irisgarriak eta ulergarriak izatea pertsona guztientzat, desgaitasuna dutenak barne.

6. Neurri horiek guztiak gauzatzean, bateratu eginen dira alderdi inklusibo guztiak Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotakoekin eta haien gainerako lehentasunekin, eta bereziki nabarmenduko dira klima-aldaketarekin lotutakoak.

7. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, zainduko dute desgaitasuna duten LGTBI+ pertsonak ez direla indarkeria LGTBIfobikoaren biktima izanen, bat etorritik LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako foru legedian ezarritakoarekin.

II. KAPITULUA

Desgaitasunaren balorazioa eta prebentzioa

11. artikulua. Arreta goiztiarra.

1. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bermatuko dute arreta goiztiarra ematen zaiela, familiekin koordinatuta, 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei, baldin eta behar iraunkorrak edo iragankorrak badituzte garapenerako alterazio edo nahasmenduen ondorioz edo faktore biologiko edo psikosozialak direla-eta arrisku handiko egoeran badaude, bat etorritik haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko araudian eta erregelamenduzko garapen-xedapenetan aurreikusitako baldintzekin eta printzipioekin.

2. Honako irizpide hauek zuzenduko dute arreta hori: detekzio goiztiarra, deszentralizazioa, adingabeen eta haien familien ingurunean esparruetako arduradun publikoen arteko koordinazioa, bereziki hezkuntza-zikloen artekoa; horretarako, sistema protokolizatuak izanen dira, esku-hartzeen jarraitutasun egokia bermatuko dutenak, baita oporraldietan ere.

12. artikulua. Desgaitasunaren balorazioa.

1. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak desgaitasuna baloratzeko zerbitzuen berri emanen du, eta horretarako, zerbitzuen gidak edo mapak edukitzen ahalko ditu for-

matu irisgarrietan, eta zabalkunde-kanpainak antolatzen ahalko ditu.

2. Irakurmen-zailtasunak dituzten pertsonen desgaitasuna aitortzeko ebazpenak halaber jaulki-ko dira irakurketa errazeko formatuan eta beste formatu batzuetan, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten, pertsonaren edo haren familiaren beharriaren arabera.

3. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak autonomia pertsonala sustatzeko eta desgaitasuna edo hura larriagotzea prebenitzeko zerbitzuak bultzatuko ditu.

13. artikulua. Desgaitasunaren prebentzio soziosanitarioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ekintza batzuk abiaraziko ditu desgaitasuna bizitzako fase guztietan prebenitzeko, honako hauen bidez:

a) Jaio aurreko prebentzio-jarduerak haundun dauden emakumeekin.

b) Txertaketa programak eta kanpainak.

c) Detekzio goiztiarreko programak aplikatzea, hipoakusiak edo metabolopatiak detektatzeko berariazko programekin.

d) Jaioberriaren diagnostikoa egitea eta haurra modu osasuntsuan garatzen dela zaintzea, desgaitasuna eragin dezaketen alterazioetan arreta jarrita, barnean dela garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskuan dauden hurrei arreta goiztiarra ematea, haurtzaroari buruzko araudian aurreikusitako baldintzetan.

e) Osasun mentala sustatzeko eta prebenitzeko planak, bereziki haur eta gazteen artean, eta sexuaren araberako prebalentzia-aldeak kontuan hartuta.

f) Adinekoen eta gerora etorritako desgaitasunen arreta eta jarraipena.

g) Familientzako laguntza.

h) Zahartze aktiboa.

14. artikulua. Zahartze aktibo eta goiztiarra.

Nafarroako Gobernuak programak bermatuko ditu zahartze aktiboaren estrategiaren esparruan eta Osasun Planak ezarritako beste estrategia batzuetan, aintzat hartuta desgaitasun mota desberdinetatik eratorritako berezitasunak, eta barnean sartuta helburu terapeutikoa duen jarduera edo ariketa fisikoa eta errehabilitazio funtzionala eta kognitiboa, taldeko fisioterapia, arreta berezia jarrita hauskortasunari eta erorikoei aurrea hartzeko, garaiz detektatzeko eta artatzeko, eta tratu

txarren egoerak detektatzeko jarraibideak biltzen dituzten protokoloekin.

III. KAPITULUA Autonomia

15. artikulua. Autonomia pertsonala eta bizi-modu independentea bermatzeko neurriak.

1. Erabakiak hartzeko askatasuna bermatzeko, informazioa eta baimena formatu egokietan eman beharko dira, diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuaren erregelak betez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten. Horri buruzko informazio eguneratua jendaurrean jarriko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egoitza elektronikoen eta informazioa argitaratzeko espazio digitaletan.

Edozein kasutan, aintzat hartuko dira pertsona bakoitzaren inguruabarrak eta erabaki bakoitza hartzeko gaitasuna, eta bermatu egingen da behar den laguntza emanen zaiela.

2. Bizimodu independentea izateko eta bizitzaren eremu guztietan bete-betean parte hartzeko eskubidea sustatzeko, botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte irisgarritasun unibertsala bermatzeko inguruneetan, prozesuetan, ondasunetan, produktu eta zerbitzuetan, garraioan eta informazio eta komunikazioetan, barnean direla informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak, eta komunikabide sozialak eta jendaurreko edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuk, hiriguneetan nahiz landaguneetan.

3. Mendekotasuna eta desgaitasuna prebenitzeko, autonomia sustatzeko zerbitzuak bultzatuko dira. Zerbitzu horiek ezarrita daude autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko araudi orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan.

4. Desgaitasuna dutenen autonomia pertsonala sustatzeko, laguntza ekonomikoak ezarriko dira pertsona bakoitzaren beharretara eta bizi-modura eta berrikuntza teknologikoetara egokitutako laguntza-produktuak eskuratzeko eta berritzeko, eta laguntza-produktuen zentro bat izanen da, aholkularitza, orientazioa eta beste neurri lagungarri batzuk emateko, mailegu-sistema gisa, irisgarritasunaren arloan erreferente gisa jardunez.

16. artikulua. Desinstituzionalizazioa eta borondatezko neurriak sustatzea.

1. Desinstituzionalizazio-politikak bultzatuko dira bi alderditan, desgaitasunen bat duten per-

tsonak bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon ez daitezten, eta bizitza duina dutela bermatuko da:

a) Desgaitasuna dutenek beren bizi-proiektua aukeratu eta erabaki ahal izan dezaten; izan ere, komunitateko beste pertsona batzuekin bizitzeko aukera izanen dute, hala nahi dutenean, laguntza egoki eta nahikoarekin.

b) Desgaitasuna duten pertsonak, egoitza-zerbitzuetan badaude, foru lege honen 35.2 artikuluan eta foru legea garatzeko erregelamenduetan aurreikusitako kalitate-baldintzak izan ditzaten, Pertsonarengan zentratutako arretarako sareari sostengu emateko batzordeak ezartzen dituen osagarri eta jardunbide egokiekin, bereziki zentroa edo zerbitzua komunitatean integratzeari dagokionez.

2. Azalduko da zer eremutan har ditzaketen pertsonak borondatezko neurriak, beren bizi-ziklo osoan, eta araubide bat ezarriko da pertsona horien borondatea, nahiak eta lehentasunak babestuta egon daitezten, gerora etorritako mugak direla-eta, ezin izanen balituzte ere neurriok adierazi, eta bereziki laguntza eskatu ahal izateko alderdi hauei dagokienez: beren gaitasun juridikoa egikaritzea edo bestelako helburu batzuk (laguntza horiek kontrolatzeko sistemekin), eta bizitzaren amaierari edo hiltzeko laguntza emateari buruzko erabakiak.

17. artikulua. Laguntza pertsonala eta bizimodu independenterako bulegoa.

1. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak laguntza pertsonala sustatuko du, desgaitasuna duenari giza laguntza emateko tresna gisa, haren askatasuna, autodeterminazioa, erabakimena eta bizimodu independentea ahalbidetzeko. Horren ezaugarriak izanen dira:

a) Behar bezala finantzatzea, irizpide pertsonalizatuetan oinarrituta.

b) Desgaitasuna duen pertsonak kontrolatuko du zerbitzua, eta erabili beharreko kontrol-maila aukeratzeko ahalko du, zerbitzuaren kontratatzaile edo enplegatzaile gisa, bere bizi-proiektuan oinarrituta eta, hala badagokio, erabakiak hartzeko behar duen laguntzarekin.

c) Harreman pertsonal gisa eratuko da, eta ez partekatua, esanbidezko adostasunik ezean, pertsona bera buru duela.

2. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzuak bermatuko ditu, Nafarroako Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren aurreikuspe-

nen arabera, bizimodu independenterako zerbitzuen edo bulegoaren bidez. Hona hemen zerbitzu edo bulego horren ezaugarriak:

a) Bizimodu independentea, irisgarritasun unibertsala eta laguntza pertsonala aldarrikatzea pertsonari dagozkion esparru guztietan.

b) Bizimodu independentea egiteko proiektu indibiduala diseinatzen eta garatzen laguntzea.

c) Laguntzaile pertsonalak prestatzea eta hautatzea.

d) Laguntza pertsonala kudeatzeko laguntza.

e) Berdinen arteko taldeak erraztea.

f) Gizartean, politikan, kulturaren eta komunitatean parte hartzen laguntzea.

18. artikulua. Esku hartzeko ibilbideak.

Eskumena duten departamentuek, desgaitasuna duten pertsonentzako arreta sustatzeko, ibilbideak prestatuko dituzte, pertsonen desgaitasunetara, bizi-ziklora eta borondatera egokituta, eta inor ere baztertu gabe bizi-proiektu independenteak garatu ahal izateko laguntza handiak behar izateagatik.

19. artikulua. Telelaguntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko telelaguntzaren zerbitzu publikoa laguntza eta esku-hartze sozialeko zerbitzu bat da, eta xede du desgaitasuna dutenei beren ohiko ingurunean arreta ematea, pertsona guztientzat irisgarriak diren komunikaziorako teknologiak eta gailu teknologikoak erabiliz eta behar diren bitarteko pertsonalak erabiliz, premia dagoenean berehala erantzun ahal izateko (larrialdietan, segurtasunik ez dagoenean edo bakardade eta isolamendu egoeretan).

2. Erabiltzaileek arreta iraunkorreko zerbitzua izanen dute etxean, eguneko hogeita lau orduetan eta urteko egun guztietan, ekipamendu teknologiko espezifiko baten bidez. Telelaguntzako zentral batetik arreta ematen duten pertsonak beharrezkoa den prestakuntza izanen dute larrialdi edo behar sozialeko egoerei erantzuteko, baliabide propioen bidez edo baliabide publiko edo komunitarioen bidez. Era berean, beharrezkoa den kasuetan, zerbitzu hori bizilekutik kanpo emanen da.

3. Telelaguntza zerbitzua osasun- eta gizarte-sistemetakoinformazio zerbitzuekin eta erreferentziako profesionalekin konektaturik egonen da, atzemandako laguntza beharrezko arabera jarduteko prozesu eta protokoloak garatzeko.

4. Landa-eremuetako zerbitzua bermatuko da, eremu bakoitzean dauden komunikazio-sistemek ahalbidetzen duten baldintza teknikoetan.

5. Gailu espezifikoak instalatuko dira entzuteko desgaitasuna edo hitz egiteko zailtasunak dituzten pertsonen telelaguntza erabili ahal izan dezaten, haien beharretara egokitutako komunikazioa bermatuta.

6. Telelaguntzaren erabilerari buruzko informazioa hizkera errazean eta ulerterrazean emanen da, eta ezaugarri horiek berak dituen esku-orri informatibo batekin osatuko da.

IV. KAPITULUA Gaitasun juridikoa egikaritzea

20. artikulua. Gaitasun juridikoaren printzipioak eta jarduteko gaitasuna.

1. Norbaitek desgaitasun edo urritasun bat izatea ez da inoiz arrazoi izanen gaitasun juridikoa ukatzeko, eta gaitasun horren barruan sartuko da eskubideen titular izateko eta zuzenbidez jarduteko gaitasuna, eta laguntza emanen zaio, hala behar badu, gaitasun horretaz baliatzeko.

2. Gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntzak ematen direnean, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Helburu nagusia izanen da laguntza jasotzen duen pertsonaren nortasunaren garapen osoa erraztea, zuzenbidez jardun dezan, berdintasun-baldintzetan, haren duintasuna, eskubideak, borondatea, lehentasunak eta nahiak errespetatuta, eta horiek adieraz ditzan sustatuz horretarako zailtasunak daudenean.

b) Beharrezkoa dena baino ez dute eginen, eta beharrekiko proportzionalak izanen dira, lagundutako pertsonaren ordez jardun gabe, ezinbestekoa ez denean.

c) Lagundutako pertsonak gero eta laguntza gutxiagorekin jardun ahal izatea bilatuko dute.

d) Aldian-aldean, behar diren laguntzak berrikusiko dira, erabakiak hartzean eta horiek adierazi eta gauzatzean ahalik eta autonomia handiena sustatzeko.

e) Laguntza behar duen pertsonak aurreikusitako babesa izan dezan zainduko da, eta agintari eskudunei balizko abusuen, interes-gatazken edo eragin bidegabeken berri emanen zaie betiere.

21. artikulua. Borondatezko neurriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazioa emanen du desgaitasuna duten pertsonen berek ezarritako laguntza-neurrien

lehentasunezko izaerari buruz, eta, bere lurralde-eremuko notario-elkargoekin eta laguntzak ematearekin lotutako gainerako eragile publiko eta pribatuarekin lankidetzan, sentsibilizazioa eta ezagutza sustatuko ditu, laguntza horien inguruan erabakitzeke gaitasunari buruz ez ezik, laguntzak ematen dituztenei buruz, laguntzaren norainokoari buruz eta zainketa eta kontrolei buruz ere.

2. Era berean, sustatuko da desgaitasuna duten pertsonen informazioa eta prestakuntza ematea 16. artikuluan aurreikusitako kasuetan erabakiak planifikatzeko beste modu batzuei buruz.

22. artikulua. Egitezko zaintza eta horren akreditazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak desgaitasuna dutenen egitezko zaintzaren araubide juridikoa eratu eta horren berri emanen du, eta inguruabar horren akreditazioa emanen du.

23. artikulua. Presako jarduketak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzak ematen zaizkiola premiaz hala eskatzen duen eta egitezko zaintzarik ez duen pertsona orori.

Kasu horietan, egoera horren berri duen departamentuak edo zerbitzuak Fiskaltzari jakinaraziko dizkio gertakariak, eta, hala badagokio, presako neurriak hartzeko eskatuko dio. Beharrezkoa balitz, desgaitasuna duten pertsonen laguntzea dagoen Nafarroako erakunde publikoaren esku-hartzeari eskatuko du, behin-behinean lagundu diezaien.

24. artikulua. Desgaitasuna dutenei laguntzak emateko Nafarroako erakunde publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du, desgaitasuna dutenei laguntzak emateko eskumena duen erakunde publikoaren bidez, behar diren laguntzak ematen zaizkiela Foru Komunitatean bizi diren eta desgaitasuna duten helduei, agintaritzak judizialak hala erabakitzen duenean eta hark ezarritako baldintzetan.

Era berean, bermatuko da erakunde publiko horren zerbitzuak doan eskuratzen direla. Nolanahi ere, legezko aurreikuspenen arabera, ordainsari bat onesten ahalko da judizialki, betiere erakundearen gobernu-organoaren akordio bidez ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Bere jarduera garatzean, desgaitasuna dutenei laguntza emateaz arduratzen den Nafarroako erakunde publikoak zainduko du erabiltzaileek behar

bezala egikaritzen dutela beren gaitasun juridikoa, eta beren nortasuna erabat garatzen dutela eta jarduera juridikoa berdintasun-baldintzetan egiten dutela, beren duintasuna errespetatuta eta beren oinarritzko eskubideak zainduta.

V. KAPITULUA Xedapen komunak

25. artikulua. Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginari buruzko txostena.

Foru lege proiektuak eta erregelamenduzko xedapenak onesteko prozeduretan, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginari buruzko txosten bat jaso beharko da nahitaez, bertan ezarzen diren neurrien gainekoa.

Era berean, Nafarroako toki entitateek arazko xedapenak onesteko prozeduretan ere horrelako txosten bat jaso beharko da nahitaez.

Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginari buruzko txostena egiteko ereduak edo metodologiak zehaztuko dira, bai eta txostena nork egin behar duen zehazteko irizpideak ere, hargatik galarazi gabe laguntza eta aholkularitza eskatzea desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuari.

26. artikulua. Garapenerako lankidetzak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du Nafarroako nazioarteko lankidetzak finantzatzutako esku-hartzeak inklusiboak eta desgaitasuna dutenentzat irisgarriak izan daitezela.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, garapen-bidean dauden herrialdeetako proiektuen bidez, lankidetzak teknikoak sustatzen ahalko du honako hauek erraztu eta laguntzeko: desgaitasuna dutenen gaitasuna sustatzea, desgaitasunarekin zerikusia duten ezagutza zientifikoak eta teknikoak ikertzea eta eskuratzea edo teknologia irisgarriekin laguntzea edo horiek transferitzea.

III. TITULUA

Osasuna, gizarte-zerbitzuak eta eremu sozio-sanitarioa

I. KAPITULUA Osasuna

27. artikulua. Desgaitasuna dutenen osasuna babesteko eskubidea bermatzea, osasun publikoari dagokionez.

1. Nafarroako osasun-sistema publikoak bermatuko du desgaitasuna dutenek beren bizitzaren

fase guztietan osasuna babesteko duten eskubidea, osasun laguntzaren eta osasun publikoaren esparruetan, osasun eta ongizate mailarik handiena lor dezaten, gainerako baldintza berberetan eta kalitate eta aniztasun berarekin, barnean direla sexu- eta ugalketa-osasuna, bat etorritik Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko eskubide eta betebeharrei buruzko araudian eta Osasun Sistema Nazionalaren Zerbitzu Erkideen Zorroan ezarritako printzipio orokor berberekin, baita foru araudi osagarriarekin ere.

2. Horretarako, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak desgaitasuna dutenen irisgarritasuna ziurtatuko du, bai instalazioetan, informazioan eta komunikazioan, bai tratamendu, programa eta zerbitzuetan; horiek guztiak pertsona horien beharrezan pertsonaletara egokituko dira, eta behar dituzten laguntzak desgaitasuna duten pertsonen eskubidetzat hartuko dira.

Zehazki, honako hauen egoera berrikusiko da: ginekologia kontsultak, obstetrizia kontsultak, bularreko minbizia diagnostikatzeko kontsultak eta mugikortasun egokia bermatzeko garabiak edo bestelako laguntza-produktuak behar dituztenak.

Halaber, bereziki osasun-larrialdietako zerbitzuan bermatuko da badaudela sistemak zerbitzu hori irisgarriago gerta dakien desgaitasuna duten pertsona guztiei; batez ere, entzumen-degaitasuna eta mintzamen-problemak dituzten pertsonen.

3. Desgaitasuna dutenak zer komunitatetan dauden, horietatik ahalik eta hurbilen emanen dira zerbitzuak, landa-eremuak ere aintzat hartuz.

4. Osasungintzako arretak, ahal den orotan, barne hartuko ditu etxeko errehabilitaziorako ekimen publikoak; horretarako, behar adinako giza eta diru baliabideak paratu beharko dira.

5. Sistema batzuk garatuko dira oinarritzko osasun-laguntzan dagoen kontsulta-eskaera arruntari erantzuteko zirkuituetan, beren desgaitasun eta behar mota dela-eta arreta berezia behar duten pazientei lehentasuna emateko.

6. Uneoro zainduko da, pazienteak osasun laguntzaren mailetan bideratzen direnean, diskriminaziorik egon ez dadin, baizik eta eskura dagoen ebidentzia zientifikorik onenean oinarritutako irizpide teknikoetara egokitzea, alde batera utzita adina edo desgaitasun-egoera bezalako beste faktore batzuk.

28. artikulua. Osasun-laguntza espezifikokoak.

1. Aho-hortzen osasuna indartuko da ahoko gaixotasuna izateko arriskua dagoenean, bereziki

desgaitasun aitortuaren ehuneko handia duten eta hirugarren baten laguntza-premia handia dutenentzat.

2. Sistema bat izanen da osasun prestazioen katalogo nazionalean sartuta dauden prestazio ortoprotesikoak estaltzeko, osasungintzako profesionalak agindutako prestazioak direnean. Desgaitasuna dutenek prestazio horiek eskuratu ahal izatea erraztuko da, establezimendu banatzaileei gastua itzultzeko edo zuzenean ordaintzeko sistemak ezarri, produktu mota bakoitzerako ezarritako behin betiko fakturazioaren gehieneko zenbatekoari edo azken prezioari dagokionez.

3. Osasun larrialdietan, dagozkion sistemak egonen dira, haiek irisgarriak izan daitezen entzuteko desgaitasuna edo hitz egiteko arazoak dituztenentzat.

29. artikulua. Informazioa.

1. Osasun-laguntzan bermatuta egonen da informazioa eta baimen aske eta informatua eskuragarriak eta ulergarriak direla desgaitasuna dutenentzat.

2. Informazio- eta hezkuntza-jarduera espezifikoak egiten dira (hala nola pazienteen eta zain-tzaileen eskola), desgaitasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsoneri edo familiei zuzenduta, zertarako eta, genero-ikuspegia baliatuta, haiei laguntza emateko eta beren bizitzan osasunarekin lotutako erabakiak hartzeko duten gaitasuna hobetzeko, genero-indarkeriari buruzko informazioa eskaintzeko eta gizonek zainketetan parte har dezaten sustatzeko.

3.- Mekanismoak ezarriko dira osasun arloko informazioa eskuratzea errazteko, informazio hori eskuratzekeo laguntza behar dutenentzat.

30. artikulua. Inklusioa estrategietan.

1. Humanizatzeko estrategiaren esparruan, desgaitasunen bat dutenen beharrei buruzko ekin-tzak garatuko dira, desgaitasunaren hirugarren sektorearekin lankidetzan.

2. Desgaitasunari eta desgaitasunen bat dutenei arreta emateari buruzko prestakuntza sartuko da zuzeneko arretako langileentzat, eta harreman-erako gaitasun profesionala eta beste zenbait alderdi azpimarratuko dira.

3. Behar den guztietan, desgaitasuna edo patologia anitzak dituzten pertsonen egoera txertatuko da kronikotasunari buruzko estrategian.

4. Emakumeen kontrako indarkeria kasuei arreta emateko protokoloak egokiak izanen dira desgaitasuna duten emakumeentzat, eta protoko-

lo horietan kontuan hartuko da emakume horien testigantzek beste edozein emakumek emandakoen sinesgarritasun bera izan behar dutela, eta arlo horretako prestakuntza sustatuko da.

5. Genero-ikuspegia aintzat hartuko da gaixotasunen diagnostikoari eta tratamenduari behar bezala heltzeko, eta bereziki emakumeengan eragin handiagoa duten gaixotasunei dagokionez, hala nola fibromialgiari edo lupusari.

6. Desgaitasunei eta gaixotasunei buruzko informazioa erregistratzeko eta ustiatzeko sistemak hobetuko dira, errealitatea zorrotasun eta zehaztasun handiagoz ezagutzeko, eta horrela, arreta-prozesuetan hobekuntzak diseinatu eta ezarri ahal izateko.

31. artikulua. Osasun Mentala.

1. Beharrezko neurriak hartuko dira desgaitasuna duten pertsonen, hala behar izanez gero, osasun mentalean arreta jasotzeko duten eskubi-dea bermatzeko.

2. Zeharkako programak, banakako arretarako planak, arreta psikoterapeutikoko taldeak eta zenbait ekin-tzaren programazioak egokituko dira desgaitasuna dutenentzat irisgarriak izan daitezen.

3. Desgaitasuna dutenen autonomia eta parte-hartzea sustatuko da banakako arreta-prozesuan.

4. Desgaitasuna dutenek osasun mentaleko arazoak badituzte eta osasun eta gizarte arreta eskatzen badute, pertsona horiek zaintzen jarraitzea bultzatuko da, osasun baliabideen, gizarte laguntzako, erakundeen eta elkarri laguntzeko sareen arteko koordinazioa sustatuta.

5. Ekintza egokiak egiten dira profesionalak desgaitasunarekin lotutako alderdiei buruz sensibilizatzeko eta prestatzeko.

32. artikulua. Koordinazioa.

Koordinazioa bermatuko da osasungintzako maila guztien artean, bermatze aldera informazio-trukea eta desgaitasuna duten pertsoneri eman beharreko arretaren jarraitutasuna; eta, beharrezkoa denean, beste autonomia-erkidego batzuetarako igorpenak ere egiten dira, osasun arloko arauetan ezarritakoari jarraituz.

II. KAPITULUA **Gizarte-zerbitzuak**

33. artikulua. Gizarte-zerbitzuak eskuratzea eta horien ezaugarriak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu desgaitasuna dutenek babes sozial egokia izateko duten

eskubidea egikaritzea babesteko eta sustatzeko. Eskubide horren barruan sartuko dira, batetik, Gizarte Zerbitzuen Zorroan oro har dauden zerbitzuak eskuratu ahal izatea, eta, bestetik, oinarrizko premiak beteta ez dituztenean, haientzako eta haien familientzako prestazioak edo neurriak eskuratzea, eta, hala badagokio, beren gizarte-inklusioa erabatekoa eta eraginkorra izateko behar dituzten sostengua eta laguntza personalizatua jasotzea.

2. Honako printzipio hauek hartuko dira kon-tuan desgaitasuna dutenei Zorroan sartzen diren zerbitzuak ematean:

a) Zaintzea pertsona bakoitzaren duintasuna aitortzen dela, hori errespetatzen dela eta hark bere bizi-planak garatzeko baldintza egokienak sustatzen direla.

b) Zainketak eta autozainketak indibidualizaz-zea eta gaitasunak sustatzea.

c) Autonomia, bizimodu independentea eta norberaren arretaren plangintzan parte hartzea sustatzea.

d) Zerbitzuak integralak izatea, oinarri hartuta zerbitzuak ematen dituzten langileen zainketa egokiak eta etengabeko hobekuntzara bideratuta-ko kudeaketa-sistemak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioak desgaitasunaren arloko prestakuntza susta-tuko du gizarte-zerbitzuen sistemako profesioalantzat.

4. Gizarte-zerbitzuak ematean, gizarte-zerbi-tzuen arloan eskumena duen departamentuak horien funtzionamenduan parte hartzeko eskubi-dea bermatuko du, eta erregelamendu bidez aurreikusitako bideen bitartez parte hartzea susta-tuko du, eta zainduko du zerbitzu horiek ematen dituzten gainerako erakundeek eskubide hori errespetatzen dutela.

Desgaitasuna dutenen parte-hartzea sustatuko da, bai desgaitasuna edo nahasmendu mentala dutenentzako zerbitzuen arloko zentro eta zerbi-tzuetan, bai gizarte-zerbitzuen gainerako arloetan.

5. Zentro berekietan bermatuko da neurriak hartuko direla erabiltzaileen arretan genero-ikus-pegia txertatzeko, eta kasuan kasuko berdintasun-planak edo -neurriak aplikatuko direla langileen-tzat, eta beste erakunde batzuek emandako zerbitzuetan bi gauza horiek sustatu eta zainduko dira, berdintasunari buruzko araudiak horri buruz ezartzen dituen betebeharrak beteko direla bermatzeko.

6. Pertsonak senideekin, lagunekin, sare infor-malekin eta komunitateko gainerakoekin izan nahi dituzten harreman esanguratsuak mantentzen direla bermatu eta sustatuko da, eremu horiekiko guztiekiko elkarreragina erraztuta eta erabil-tzaileek kultura-jardueretan parte har dezaten sus-tatuta, batez ere haiek protagonista direnetan.

7. Boluntarioritza sustatuko da, gizarte-zerbi-tzuetan sortutako harremanak areagotu eta jaso-tako zerbitzuak osatzeko, eta laguntza komunita-rioko sare informalak sortzea ere sustatuko da, desgaitasuna dutenen parte-hartzea eta gizartera-tzea areagotzeko.

8. Erabiltzaileek lagun egiteko animaliekin ego-teko modua edukiko dutela aurreikusiko da.

34. artikulua. Zainketak.

1. "Zaintzaren itunak" direlakoak sustatuko dira, honako helburu hauek lortzeko:

a) Laguntza behar dutenen zainketan eta laguntzan parte-hartzeak eta inplikatzeko duen garrantzia nabarmentzeko eta duin bihurtzeko, bai gizonen aldetik, bai emakumeen aldetik.

b) Zainketen erantzukizun ez partekatuak emakumeentzat (eta bereziki desgaitasuna duten emakumeentzat) duen kostu sozial eta ekonomi-koa eta osasun kostua ikusarazteko.

c) Zainketetan inplikaturako dagoen edo interesa duen edozein eragileren ekintzak koordinatzeko.

2. Familiak desgaitasuna duten pertsonak zain-tzeko trebatuko dituzten esku-hartzeak sustatuko dira (bereziki desgaitasuna duten haurrak dituzten familien kasuan), bai eta eskatzen diren laguntzak ere.

3. Zainketak ingurune komunitarioan ematea sustatuko da, eta horretarako, instituzionalizazioa saihesteko beharrezkoak diren zerbitzuak eta laguntzak garatuko dira.

4. Zainketek familiakoentzat edo beste per-sona batzuentzat dakartzaten gainkargen ondo-rioei kasu eginen zaie: autozainketarako tresnak emanen dira eta atsedeen plazak eta zaintzaileei laguntzeko bestelako neurriak ere aurreikusiko dira.

5. Autozainketarako behar diren laguntzak sus-tatuko dira.

6. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak nabarmendu eginen du desgaita-suna duten pertsonak zaintzen dituzten profesio-nalek edo boluntarioek egiten duten ekarpenaren garrantzia, haiek eskatuta edo proposatuta, eta horretarako, jardunaldiak eta foru lege hau heda-

tzeko ekintzak eginen dira, bai eta Pertsonarengan zentratutako arretarako sarerako proiektuak ere, hari sostengu ematen dion batordearen bidez.

7. Suizidioari eta osasun mentalari buruzko azterlanetan desgaitasunaren aldagaia sartzea eta ikertzea bultzatuko da, bai eta arlo horretan jardunbide hobekak ebaluatzea eta aplikatzea ere.

35. artikulua. Kalitatea.

1. Zerbitzuak emateko instalazioak seguruak eta irisgarriak izanen dira, eta komunitatetik hurbil egonen dira. Ingurune estimulatuak eta erosoak behar dute izan, erabiltzaileentzat atseginak, eta, horrexegatik, haien parte-hartzearekin eginen dira.

2. Gutxieneko kalitate-estandar batzuk ezarriko dira erregelamendu bidez, arretari, langileei, antolaketa eta kudeaketa dagokienez, pertsona eta haren bizi-proiektua zentroan kokatzen dituen ikuspegitik, eta jardunbide egokiak sustatuko dira, Pertsonarengan zentratutako arretari sostengua emateko Sarearen bidez, etengabeko hobekuntza bultzatzeko.

3. Desinstituzionalizazioa sustatuko da, eta hura ahalbidetzen duten zerbitzuetan plazak egotea bermatuko da.

4. Bitarteko propioekin ematen ez diren zerbitzu publikoak, lehentasunez, itun sozialen bidez emanen dira, baldin eta horretarako arauzko baldintzak betetzen badira.

5. Gizarte-zerbitzuetako ikuskapen-lana osatzeko, jasotzen dituzten zerbitzuak ebaluatzeko eta salatzeko bitartekoak emanen zaizkie erabiltzaileei. Bitarteko horiek erregelamendu bidez garatuko dira, eta zerbitzu horien gaineko ikuskapena indartzeko eta horien kalitatea hobetzeko erabiliko dira.

6. Desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeria kasuak prebenitzeko, detektatzeko eta artatzeko protokoloak egoitza-zentroetan txertatzea sustatuko da.

7. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumeneren esparruan, zainduko dute zerbitzu horietan errespetu dadila sexu-orientazioa, genero-adierazpena eta sexu- edo genero-identitatea erabiltzaileen, haien senideen eta langileen eta zerbitzuaren kargura daudenen aldetik, eta beren barne-araudietan txerta daitezela LGTBIfobia egotzen aurrean jarduteko protokoloak edo lehendik dauden protokoloen parte izan daitezela, edozein motatako diskriminazioak edo tratu txarrak saihesteko.

36. artikulua. Adinekoentzako prestazioak eskuratzeko araubide bereziak.

Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak desgaitasuna dutenak onartzen ahalko ditu adinekoentzako zerbitzuen plazetan nahiz eta adinari buruzko baldintza orokorrak bete ez, zahartze goiztiarreko egoerei erantzuteko, edo, sustraitze-egoera kontuan hartuta, beren familia-inguruneak diren eta adinaren betebeharrak betetzen dutenekin batera egon ahal izateko, eta horrela, elkarrekin bizitzen jarraitzea posible egiteko. Arreta berezia jarriko da landa-eremuetan, eta kontuan hartuko dira laguntza espezializatuak premiak.

37. artikulua. Desgaitasuna dutenentzako araubide bereziak, baldin eta horien gainean neurri judizialak hartu badira.

Desgaitasuna duten pertsonen zigorrek edo bestelako neurri judizialak ezarri bazaizkie, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak aukera izanen du neurri osagarriak edo ordeko neurriak hartzeko horien orde, edo neurri horien betearazpena errazteko. Horretarako, dagokion agintaritzaren judizialarekin bat jardunen du, eta, hala badagokio, espetxeekin bat, eta zigor-arloko betearazpenaren eta justizia errehabilitatiboaren arloan eskumena duen unitatearen laguntza edo aholkularitza eskatzen ahalko du.

III. KAPITULUA

Eremu soziosanitarioa

38. artikulua. Koordinazioa.

1. Berariazko koordinazioa egonen da, eritasun edo berariazko osasun premiez gain, beharrezko sozialak dituzten pertsonen zuzeneko eta osasun-arreta integrala emateko, eta desgaitasuna duten pertsonak gizarte- eta osasun-arreta integral horren xede izanen dira.

2. Arreta Soziosanitario Integratuko Programean, koordinazioa, ahal dela, oinarrizko osasun-laguntzako taldeek bultzatuko dute, ikuspegi holistikoa batetik, sarean lan eginez eta, kontuan hartuz, kasu-kudeatzaileen bitartez, arreta jasotzen duten pertsonen ingurune guztiak, bereziki gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuena, etapa-trantsizioetan arreta jarri eta erreferentziarako profesionalekin lan eginez.

39. artikulua. Egoitza-zentroetan daudenenentzako osasun-laguntza.

1. Osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan eskumena duten departamentuek osasun- eta gizarte-informazioaren irisgarritasuna erraztu eta integratuko dute baliabide soziosanitarioen erabil-

tzaileentzat, Nafarroako osasun sistema publikoko historia sozial bateratuaren eta historia kliniko elektronikoaren bitartez, baliabide horien erabil-tzaile diren pertsonentzako arretaren jarraitutasu-naren eta segurtasunaren mesedetan.

2. Era berean, bi departamentuek honako hau ziurtatuko dute: egoitza-zentroa non dagoen, ber-tako oinarrizko eskualdeko osasun sistema publi-koarekin koordinatzeko plan funtzional bat eduki beharko du egoitzak oinarrizko osasun-lagun-tzarako, egoiliarrei arreta egokia ematen zaiela bermatzeko.

IV. TITULUA Hezkuntza inklusiboa

I. KAPITULUA Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza

40. artikulua. Hezkuntza inklusiborako eskubi-dea.

1. Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du desgaitasuna duten pertsonen berdintasunez jaso ahal izatea hezkuntza inklusiboa, kalitatezkoa eta doakoa, Estatuko legerian ezarritakoarekin bat.

2. Horretarako, hezkuntza-sistema inklusiboa ziurtatuko du hezkuntza-maila guztietan, eta honako eskubide hauek bermatuko ditu:

a) Desgaitasuna duten ikasleentzako ikaspostu bat izatea oinarrizko hezkuntzan, arreta eskainita desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-premien aniztasunari, ikasteko edo gizarteratzeko arreta berezia behar dutenentzako zentzuzko laguntzak eta egokitzapenak araututa. Era berean, desgaitasuna duten ikasleei eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak Nafarroako hezkuntza-sisteman egin nahi dituztenei sarbidea bermatuko zaie erreserba kupoaren sistema bidez edo eskolatzeko lehentasunezko irizpide gisa, legedi sektorialean aurreikusitako moduan.

b) Ikastetxeetan parte hartzeko eskubidea, ikasle guztientzako zerbitzuetan eta jardueretan sartuta, ikastetxe barruan zein kanpoan, eta parte-hartze horretarako egon daitezkeen oztipoak kenduta.

c) Hartu beharreko neurriak hartzeko eskubi-dea, kalitatezko hezkuntza bermatzeko, genero joerarik gabekoa, haien behar, interes eta gaitasunetara egokitutako lorpenak erdiesteko bidea ematen duena, titulazioa barne, hori eskuratzeko ezarritako helburuak betetzen direnean.

3. Salbuespenezko neurriak behar direnean, lehentasuna emanen zaie etengabeko ebalua-

zioan oinarritutako laguntzekin esku hartzeko erantzunak ematen dituzten ereduak, bai eta erantzun gradualak finkatzeari ere. Erantzun horiek, hasieran, ikasle guztientzat dira, eta inoiz ez dira gainerakoetatik etengabe bereizten.

Salbuespen gisa baino ez dira eskolatuko ikasleak hezkuntza bereziko ikastetxeetan edo orde-zko unitateetan, ikasle horien premiak ezin direnean bete ikastetxe arruntetan aniztasunari erantzuteko neurrien esparruan, eta gurasoen edo legezko tutoreen iritzia kontuan hartuta betiere. Kasu bakoitzean, ohiko neurriekin arreta jasotzeko aukera agortu dela justifikatu beharko da, eta zehaztuko dira zein diren eremu arruntan bete ezin diren alderdiak, eta kasu horietan bermatuko da ikasle horiekin baterako ekintzak egiteko neurriak planifikatzen direla.

Salbuespenezko kasu horiek apurka-apurka murriztea sustatuko da, bitarteko etapetan pertsona bakoitzaren beharrei erantzuteko gabeziarik sortu gabe.

4. Desgaitasuna duten ikasleei eta haien familiari informazio eta orientazio egokia bermatuko zaie hezkuntza-prozesuan zehar, baita laneratzeari buruz ere, ikasleei parte-hartzea eta arreta eskainiz, baldintza berberetan.

41. artikulua. Hezkuntza inklusiborako kultura eta estrategia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hezkuntza inklusiboaren kultura sustatuko du hezkuntza komunitate osoan, eta haren araberrako hezkuntza politikak bultzatuko ditu:

a) Etengabe planifikatzen, garatzen eta ebaluatzen diren prozesuak sustatuko ditu, edozein traba mota detektatu, ezabatu edo murrizteko eta inklusio handiagoa lortzeko.

b) Bermatuko du Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeek aniztasunari erantzuteko plan orokorrak onartuko dituztela, eta urteko programazioan aniztasunari erantzuteko neurriak sartuko dituztela, hezkuntzaren arloan eskumena duen departamentuak finkatzen dituen gutxieneko edukiekin. Horretarako, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren hasierako ebaluazioan oinarrituko dira, genero-ikuspegia eta premia handienak dituzten ikasleen beharrak kontuan hartuta.

c) Kontuan hartuko du hezkuntza inklusiboa ikastetxe osoak batera egiten duela eta irakasle talde osoak sustatzen duela, betiere aniztasunari arreta emateko berariazko profilen eskumenak eragotzi gabe.

d) Berariazko prestakuntza programak garatu-ko ditu desgaitasunetan eta hezkuntza-premia berezietan espezializatuta ez dauden irakasleentzat eta irakasle ez diren langileentzat, bai eta etengabeko prestakuntza eta birziklatzea ere langile espezializatuentzat.

e) Ikasleak, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak eta gurasoen elkarrekin ordezkatzen dituzten erakunde ordezkatzaileekin aholkularitza eta lankidetzaren sustatuko du, haiekin eta ikasleekin lan eginda komunikazioa, hezkuntza-arreta eta eskolaz kanpoko laguntza hobetzeko, barnean sartuta ikasleek, beren desgaitasunaren arabera, behar dituzten egokitzapenak.

f) Xedetzat hartuko du, betiere, desgaitasuna duten ikasleei eta haien familiei arreta eta orientazioa ematea, bizi-kalitatea lortzeko.

g) Etapa eta maila guztietan, eta hezkuntza-komunitate osoan, desgaitasuna dutenen eskubideekiko errespetuzko jarrera eta sentsibilizazioa sustatuko ditu, eta aniztasunaren garrantzia azpimarratuko du; eta horrez gain, arreta berezia eskainiko dio, bai bizikidetzarako protokolo eta planetan bai hezkidetzako neurrietan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egin dakiekeen eskola-jazarpenari, errotik kentzeko desgaitasuna dutenei egiten zaien eskola-jazarpena, gatazkak modu baketsuan konpontzeko kultura sortzeko eta ikasle jazartuak sendotzeko, modu asertiboan jardun dezaten eta horrelako egoerak sala ditzaten.

h) Osasun, hezkuntza, lan eta gizarte-zerbitzuen sistema publikoen artean modu koordinatuan garatuko ditu jarduketak, eta behar izan ditzaketen beste entitate eta baliabide batzuekin lankidetzan arituko da.

i) Hezkuntza-arreta ikasle guztiei laguntzeko moduan antolatuko du, salbuespenik gabe, titulazioak sustatu eta lortzeko.

j) Ibilbide akademiko inklusiboak eta berariazkoak sustatuko ditu, desgaitasuna dutenak lan munduan sartzea errazteko.

k) Bermatuko du, eskolatze-prozesuetan, ikasleak funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen artean modu orekatuan banatzeko mekanismoak daudela, hezkuntza-arreta egokia eta gizarteratzea ahalbidetzeko.

2. Hezkuntza arloaren eskumena duen departamentuak Aniztasunari Erantzuteko Plan bat prestatu eta eguneratuta mantenduko du. Horren xedea hezkuntza inklusiboa izanena da, eta hezkuntza inklusiborako arreta- eta baliabide-zentro bat ere izanena du, Foru Komunitateko ikastetxeentzat erreferentziazkoa izanena dena.

42. artikulua. Hezkuntza-praktika inklusiboak.

1. Ebaluazio psikopedagogikoetan, eskatutako ikastetxearen inguruneak ikasleei sortzen dizkien oztopoak aztertuko dira, ikasleek beharren eta interesen arabera, bai eta oztopo horiek neurri arruntan bidez murrizteko edo kentzeko behar diren neurriak ere, ahal den guztietan. Malguak eta berrikusteko modukoak izan beharko dute, une bakoitzean proposatzen den konponbidea ikasleek egungo beharretara egokitzen dela bermatzeko.

2. Langile espezialisten parte-hartzea sustatuko da, beste batekin batera, ikasgelaren barruan, hainbat mekanismoz baliatuz ikasle guztiek ikaskuntza-prozesu bera izan dezaten.

3. Curriculumak malgutzeko ikuspegiak sustatuko dira, irekia eta inklusiboa izan dadin hasierahasieratik, geroko egokitzapenak minimizatzen, eta ikasle horiek titulazioa lortzea errazteko.

4. Hezkuntza-etapetan egoteko gehieneko denbora malgutuko da, indarrean dagoen legediaren arabera beharrezkoa denean.

5. Neurriak hartuko dira desgaitasuna duten ikasleei jolasaldietan eta aisialdian sozializatzen eta dinamizatzen laguntzeko, baita eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan ere, bereziki jantokian eta eskola garraioan.

6. Etengabeko irakaskuntza sustatuko da desgaitasuna duten helduen bizitzan zehar.

7. Arreta pertsonalizatua bermatuko zaie desgaitasunen bat izanik ospitaleetan nahiz beren etxeetan emandako arreta iraunkorra behar duten ikasleei, ahal den heinean mantendurik adingabe bakoitzak ikastetxean dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, harik eta hura ikasgelara modu presentzialean itzultzeko beharrezkoak diren osasun-baldintzak betetzen diren arte.

8. Hezkuntzaren arloan eskumena duen departamentuak, aplikagarria den araudiarekin bat, honako hauekin lotutako prozesu guztiak gainbegiratuko ditu: ikasle guztien hezkuntza beharren identifikazioa, balorazioa, horiei emandako hezkuntza erantzuna eta lorpenen eta aurrerapenen ebaluazioa.

9. Hezkuntza inklusioari buruzko eta aisian, jostetan eta eskolaz kanpoko jardueretan dagoen gizarte-inklusiorek buruzko azterlanak eta ikerketak egiten dira, bai eta desgaitasuna dutenei ikasgeletan egiten zaien jazarpen edo indarkeria mailari buruzkoak ere.

43. artikulua. Ikaskuntzen diseinu unibertsala.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ikaskuntzen diseinu unibertsala sustatuko du, honako hauek kontuan hartuta ikasle guztientzat:

a) Alderdi emozionalak, inplikazioa, iraunkortasuna eta autorregulazioa lantzeko.

b) Pertzepzioari eta ulermenari lotutako alderdi kognitiboak, ikasleen behar zehatzetara egokitutako bideak erabilita.

c) Helburuak finkatzearekin, ekintzarekin eta adierazpideekin lotutako alderdiak, ikasle guztiek eskuragarri dituztenak.

44. artikulua. Irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren arloko prestakuntza.

Estatuko oinarrizko legediarekin bat, Lanbide Heziketako tituluen diseinuan eta horiei dagozkien curriculumen garapenean, irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren arloko prestakuntza sartuko da.

II. KAPITULUA

Unibertsitateko hezkuntza

45. artikulua. Unibertsitateko hezkuntzaren arloko neurriak.

1. Jarraikiz unibertsitateen arloko araudi indardunean eta Desgaitasuna dutenen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.c) artikuluan xedatutakoari, Nafarroan irakaskuntza ematen duten unibertsitateek modua ziurtatu behar dute desgaitasuna dutenek unibertsitateko ikasketak gainerakoen baldintza berberetan egin ahal izan ditzaten, barnean direla unibertsitateko praktikak, eta bermatuko dute, bestetik, unibertsitatearen eremuan bete-betean eta egiaz parte hartzen dutela.

2. Unibertsitatearen eremuan hezkuntza inklusiboa bermatzeko:

a) Desgaitasunari arreta emateko edo laguntzeko unitate edo zerbitzu egokia izan behar dute. Horren bidez, zuzeneko arreta eskainiko zaie desgaitasuna duten ikasleei, eta ikasle horien berriazko beharrei erantzuteko garatutako irisgarritasun, prestakuntza eta boluntaritzako planak koordinatuko dira.

b) Estatistika orokorrak izan behar dituzte desgaitasuna duten unibertsitateko ikasleei buruz, eta horietan jasoko dira desgaitasun motari eta mailari

buruzko datuak eta ikasleek behar dituzten laguntza pertsonalak, sexuaren arabera bereizita.

c) Irisgarritasunari buruzko plan berezi bat egin behar dute, unibertsitateko inguruneetan dauden oztopo fisikoak eta informazioari eta komunikazioari traba egiten diotenak ere kentzeko. Unibertsitateko ingurune horiek dira, esate baterako, eraikinak, instalazioak eta gelak, baita espazio birtualak ere, barnean sartuta zerbitzuak, prozedurak eta informazioa ematea. Hori guztia irisgarritasun unibertsalari buruzko araudian ezarritako baldintza eta epeetan.

d) Irakasgaiak zentzuz egokitzen edo doitzen ahalko dira, baldin eta, hezkuntza-laguntzako berriazko premiak direla-eta, ikasle batek hala eskatzen badu, baldin eta egokitzapen edo doikuntza horiek galarazten ez badiote kasuan kasuko ikasketetarako aurreikusitako helburuak behar bezala garatzea. Horretarako, unibertsitateek dagokion prozedura gaituko dute.

e) Desgaitasunaren arloko prestakuntza ekin-tzak antolatuko dituzte irakasleentzat eta administrazioari eta zerbitzuetako langileentzat.

f) Desgaitasuna duten ikasleek gainerakoen baldintza berberetan ikasi ahal izan dezaten, desgaitasunari arreta emateko edo laguntzeko unitate edo zerbitzuei behar adina diru eta giza baliabide bermatuko dizkiete.

g) Bermatuko dute desgaitasuna duten ikasleek Espainiako eta nazioarteko ikasleen mugikortasun programetan parte hartzen dutela.

h) Administrazio publikoek berriazko neurriak sartuko dituzte beren deialdietan, bermatzeko desgaitasuna duten ikasleak baldintza berberetan sartzen direla unibertsitateko ikasketetan.

i) Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeekiko koordinazio eta komunikazio estrategia hobetuko da, sarbidea behar bezala prestatzeko eta dauden dispositibo berri emateko, hala nola, ikaspostuen erreserba, tasen salbuespenak edo beharrezko egokitzapenak.

j) Aniztasunari erantzuteko plan bat prestatuko da. Hartan jasotako neurrikerikuzia izan behar dute desgaitasunari buruzko ezagutzak pixkanaka sartzarekin, titulazioak ororentzako diseinatuta egotearekin eta esparru horri lotutako ikerketa sustatzarekin.

46. artikulua. Irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren arloko prestakuntza.

Estatuko oinarrizko legediarekin bat, Nafarroan irakaskuntza ematen duten unibertsitateek irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari

buruzko prestakuntza neurriak hartuko dituzte beren titulazioak diseinatzean, eta kontuan hartuko dituzte desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzeko eta laguntzeko produktuei buruzko ikerketak.

V. TITULUA Enplegua eta lana

47. artikulua. Diskriminaziorik eza eta doikuntza eta neurri positiboak hartzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak diskriminaziotik babestuko du pertsona oro, Kontseiluaren azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentarauak hartzen dituen eremu guztietan (zuzentzarau hori enpleguan eta laneratzean tratu-berdintasunerako esparru orokor bat ezartzeari buruzkoa da):

a) Norberaren konturako enplegu edo jarduerarako sarbidean, hautapen-irizpideak barne, datuak babesteko araudia betetzen dela zainduz desgaitasunari buruzko informazioari dagokionez, eta bereziki, erabaki automatizatuak esku hartzen dutenean edo profilak erabiltzen direnean erabakiak hartu edo aurreikusteko.

b) Kontratatze eta mailaz igotzeko baldintzetan.

c) Lanbide orientazioko eta lanbide heziketako mota eta maila guztietarako sarbidean.

d) Enplegu- eta lan-baldintzetan, barnean direla arrazoizko egokitzapenak arrazoirik gabe ukatzeko debekua, kaleratzeko eta ordaintzeko baldintzak, lan- eta osasun-baldintzak eta segurtasun-baldintzak.

e) Sindikatu eta edo patronaletako afiliazioan eta parte-hartzean.

2. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, eremu horietan desgaitasuna dutenen aukera- eta tratu-berdintasuna betetzen dela zainduko dute, baita ekintza positiboko neurrien eta lanbide heziketako eta enplegu politiken bidez ere.

3. Bai legearen aurrean diskriminazio oro saihesteko, bai ekintza positiboko neurriak eta lanbide heziketako eta enplegu politika hartzeko, kontuan hartuko da, genero-ikuspegiarekin, emakumeen egoera espezifikoak, eta beharrezko neurriak hartuko dira honako guzti hau ziurtatze aldera: emakumeen garapen osoa, aurrerapena eta sustapena; beren adinagatik lan egin dezaketen nesken babes egokia lantokian; zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika ikasketetan (STEM) berdintasunez sartzeko sustatzen duen

prestakuntzaren eskaintza; eta lan-jazarpenaren aurreko babesak, besteak beste.

Arreta berezia jarriko da desgaitasuna duen pertsonarengan diskriminazio anizkoitzaren modu indartuak sortzen dituzten faktore jakin batzuek egiten dutenean: generoa (bereziki genero-indarkeriaren kasuan), laguntza premia handiagok dituen desgaitasuna, adina, pobrezia- edo bazterketa-egoerak, edo landa-inguruneetako baldintzak. Faktore horiek tarteko, pertsona horiek zailtasun bereziak dituzte enplegu-baliabideak eskuratzeko, eta horregatik, egiazko aukera-berdintasuna eta lan-merkatuan diskriminaziorik ez egotea sustatuko da, enplegarritasun txikiagoa eragiten duen horri helduz: kualifikazioan dauden desorekak, esperientzia profesionala eskuratzeko zailtasunak edo lana bilatzeko eta mantentzeko trebetasunak.

4. Lanpostuak edo lan-baldintzak desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren egoera zehatzera egokituko dira, arrazoizko egokitzapenen printzipio eta arauen arabera, eta egokitzapen hori sustatuko da, barnean sartuta, beste egokitzapen posible batzuen artean, lanaldiaren iraupenaren egokitzapena.

5. Neurri horiek hartzean, lurralde kohesiorako irizpideei jarraituko zaie, eta, horretarako, behar diren hitzarmenak sustatuko dira Nafarroako toki entitateekin.

48. artikulua. Enplegu-zerbitzuetarako eskurabidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du desgaitasuna dutenek enplegu-zerbitzu publikoen zerbitzu erkideak eta osagarriak erabiltzeko aukera dutela, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak aplikatzen direla ziurtatzen duten baldintzetan.

2. Arreta pertsonalizatua emanen du, pertsonaren itxaropen eta beharretara egokitua, haren profilean oinarrituta.

3. Desgaitasuna dutenen enplegarritasuna hobetuko du, haien lanbide-karrera sustatuko du eta haien kontratazioa erraztuko du edo autoenplegura bideratuko ditu, haien beharren diagnostikotik abiatuta, desgaitasuna dutenentzako lanbide-orientazioko, aktibazioko eta gizarteratzeko zerbitzu espezializatuen bidez.

4. Desgaitasuna duten eta enplegu eta zerbitzuen eskatzaile gisa izena eman dutenen profila egiten da, behar duten arreta hobeki diseinatzeko, aintzat hartuz ahalmenak, gaitasun profesionalak eta kualifikazio mailak, baita gene-

roa, adina, desgaitasun maila eta mota, pobrezia edo bazterketa egoerak, landa-inguruneak edo iraupen luzeko langabezia ere, enplegua eskatzen dutenei eskaintzen zaizkien baliabideak hobetzeko, haien beharrei erantzuteko diseinu personalizatuan oinarrituta.

5. Enpleguko ibilbide pertsonalizatuen diseinua ziurtatuko du, zenbait neurri eta politika konbinatuko dituztenak, behar bezala ordenatuta eta desgaitasuna duten pertsonen profil profesionalari eta haien behar espezifikoiei egokituta.

6. Enplegu eta autoenplegurako programa integralak garatuko ditu, desgaitasuna dutenei egokituak, eta genero-arrakalarik gabe irisgarritasuna sustatzen duten tresnak garatuko ditu.

7. Lankidetzak sustatuko du orientazio-prozesuak egiteko ardura duten erakundeen eta enplegu-zentro berezien artean.

8. Enpresekin edo erakundeekin egindako prospekzioa orientazio-lanaren parte dela bermatuko du.

9. Lan-eskaintzak identifikatu eta kudeatuko ditu, Europako Esparru Ekonomikoko gainerako herrialdeetakoak edo beste herrialde batzuetakoak barne, eta enplegurako aukera berriak bilatu eta garatuko ditu desgaitasuna dutenentzat. Gainera, profil eta gaitasunen arabera haietara hobekien egokitzen diren erabiltzaileekin lotuko ditu aukera horiek, enplegatzaileei beren eskakizun eta beharretara hobekien egokitzen diren langileak helarazte aldera, bai eta kontratazio-prozesuei buruzko informazioa ere, eta langileei lan-eskaintza egoki eta eskuragarrietarako sarbidea errazte aldera.

10. Desgaitasuna dutenei egokitutako prospekzio-planak egitea aurreikusiko du.

11. Enplegu-zentro berezietako laneratzeko zerbitzuen eta merkatu arrunteko enpresen arteko koordinazioa bultzatuko du.

12. Kanpainak eginen dira bete dadin enpresei, bertan lan egiten duten pertsonen arabera, gutxieneko ehuneko batek desgaitasuna izatea eskatzen dien araudia.

49. artikulua. Enplegurako prestakuntza.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek enplegurako prestakuntza sustatuko dute desgaitasuna dutenentzat, ekintza positiboko neurriak hartuz; besteak beste, desgaitasuna dutenentzako tokiak gordez prestakuntza-ikastaroetan edo erakundeekin lankidetzan arituz prestakuntza-praktikak egiteko. Prestakuntzak irisgarria eta ulergarria izan beharko du desgaitasuna duten pertsonentzat.

2. Desgaitasuna dutenen prestakuntza, lanbide-kualifikazioa, birkualifikazioa eta gaitasun profesionalen etengabeko eguneratzea sustatzeak enplegura igarotzea erraztuko du, eta, horretarako, prestakuntza-eskaintza eta prestakuntza-hornitzaileena lan-merkatuaren beharretara egokitu dira, deialdiak eginen dira gerora kontratatzeke konpromisoei lotutako prestakuntza diruz laguntzeko eta metodologiak egokitu dira ohiko prestakuntzaren barruan. Egokitzapen horien barruan sartuko dira, kasuaren arabera, bekak, antolaketa deszentralizatua edo garraioari buruzko edo ohikoa baino tamaina txikiagoko taldeen antolaketari buruzko neurriak eta desgaitasuna dutenek prestakuntza berdintasunez eskuratu eta aprobetxatu ahal izateko bestelako egokitzapenak edo doikuntzak.

3. Desgaitasuna duten pertsonen teknologia berriak eskura izatea bultzatuko da, generoaren arabera arrakala digitala kontuan hartuta.

4. Etengabeko prestakuntza berariazkoa ematen zaie enplegu-zerbitzu publikoetan desgaitasuna dutenei enpleguaren arloko orientazio espezializatua eta laguntza ematen dieten langileei, bai eta enplegu-zentro berezietan doitze-zerbitzuak ematen dituzten langileei ere.

50. artikulua. Enplegua sustatzea.

1. Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, desgaitasuna dutenen laneratzeko sustatuko du.

2. Lan babestuaren merkatuan kalitatezko enplegua sortzea eta mantentzea sustatuko du, barnean sartuta Estatuko araudiaren arabera desgaitasuna duten langileen lansarietarako dauden dirulaguntzen osagarriak, desgaitasuna izan eta zailtasun bereziak dituztenentzat.

3. Enplegua indartuko du enpresa arruntetan, laguntzaren eta lan-enklabeen bidez.

4. Enpresari laguntzeko eta aholku emateko neurriak bultzatuko ditu, desgaitasuna duten langileak enplegu egonkorrean sartzeko prozesua errazteko.

5. Desgaitasuna duten langileak lan-enklabeetatik eta enplegu-zentro berezietatik enpresa arruntetara igarotzea bultzatuko du.

6. Enpresa arruntetako lanpostuak egokitzea sustatuko du, irisgarritasun unibertsala, kognitiboa eta komunikaziokoa bermatzeko, irisgarritasun unibertsalari buruz indarrean dagoen foru araudiaren arabera, eta horretarako laguntzak daudela jakinaraziko du.

7. Desgaitasuna duten pertsonen kalitatezko kontratazioa bultzatuko du, kontratazio mugagabea sustatuz.

8. Desgaitasuna duten emakumeen lan-okupazioa sustatuko du, bai haien kontratazioa lortzeko, bereziki ordezkari txikia duten sektoreetan, bai kontratazio hori arlo guztietan kalitatezkoa izan dadin, kontziliario neurriak edo erantzukidetasunaren aldekoak hartuta, eta bultzatuko du, orobat, hautapen-prozesu gardenak eta objektiboak egitea, zuzendaritza-postuetara berdintasunez sartzeko.

9. Nafarroako administrazio publikoek sustatu egingen dute beren plantillan desgaitasuna duten langileak dituzten enpresak kontratatzea. Horretarako, kontratuak erreserbatuko dizkiete enplegu-zentro berezietan, eta klausula sozialak sartuko dituzte administrazio klausula partikularren agiri-tan, kontratazio publikoa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Enpresa horiek sarituko dira, baldin eta, besteak beste, beren plantillan desgaitasuna dutenen kopuruak legezko kuota gainditzen badu, lan-enklabeak erabiltzen badituzte, langileak enplegu-zentro berezien bidez kontratatzen badituzte, desgaitasuna duten emakumeak kontratatzen badituzte edo plazak eskaintzen badituzte desgaitasuna duten pertsonen praktikak egin ditzaten beren titulua lortzeko edo titulua lortu ondoren.

10. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak klausula sozialen erabilera, kontratuen erreserbak eta helburu sozialak lortzeko bestelako tresnak koordinatu eta bultzatzeko mekanismoak aurreikusiko ditu, Administrazioak beste xede batzuetarako dituen harreman juridikoen bidez.

11. Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte desgaitasuna dutenen berdintasuna berma dadin enplegu publikoan sartzeko eta barne igoeretan, bai langile finkoak hartzeko deialdietan bai aldi baterako kontratazio-zerrendetan, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraikiz.

Horrekin batera, enplegu lagunduaren arloko neurriak ezarriko dira, beharrezkoa den kasuetan, lortutako lanpostuak desgaitasuna dutenei egokitzeko gain, pertsona horiei lanpostu horietan behar bezala sartzeko laguntzeko.

51. artikulua. Enplegua, gerora etorritako desgaitasunaren kasuan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak neurriak bultzatuko ditu, gerora etorritako desgaitasunaren bat izanez gero, enpleguari eustea edo lanera itzultzea errazteko, eta, horretarako,

enprekin sustapen- edo bitartekaritza-lanak egingen ditu lanpostuak egokitu ditzaten edo lanpostuetan sartzeko modua malgutu dezaten.

52. artikulua. Sentsibilizazioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ekimenak garatuko ditu enpresek, administrazio publikoek eta gizarteak desgaitasuna dutenen gaitasunei eta lan-ahalmenei buruz duten ezagutza hobetzeko, eta dibulgaziozko kanpainak egingen ditu kolektibo hori gizartean ikusgai jartzeko, bereziki lan-merkatu arruntean duen balioari begira.

2. Enplegu-zerbitzu publikoek eskaintzen dituzten enplegu-zerbitzu eta -baliabideen berri ematen die desgaitasuna dutenei eta enpresei.

53. artikulua. Ezagutza eta plangintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak diagnostiko bat garatuko du desgaitasunaren bat duten pertsonen lan-egoerari buruz, gutxienez ere honako aldagai hauek kontuan hartuta: zenbat diren desgaitasuna duten pertsonak, zer desgaitasun mota eta zer mailatakoa duten eta gizartean eta lanean behar dituzten egokitzapenak, helburua baita enplegu politika aktiboak modu egokiagoan zuzentzea, eta azpimarratzea, alde batetik, pertsona ez-aktiboek enplegu- eta zerbitzu-eskaintzaile gisa sartu behar dutela lan-merkatua eta askoz ere agerikoagoak izan behar dutela enplegatzaileentzat, eta, bestetik, hobetzen segitu beharra dagoela desgaitasuna duten langabeek eta landunek lana eskuratzeko eta hari eusteko dauzkaten baldintzak, bizi osoko prestakuntza eta enplegu-zerbitzu publikoetako lan-orientazioko zerbitzuen bidez ematen zaien laguntza, zerbitzu horiek kalitatezko zerbitzu integrala, unibertsala eta doakoa ematen duen koordinazio-, informazio- eta elkarrizketa-erakundea baitira.

2. Sexuaren arabera bereizitako datuak eta egon daitezkeen joerak agerian jartzen dituzten alderdiei buruzko informazioa lortuko ditu, hala nola ordainsarien politikari, zuzendaritza-postuak betetzeari edo sexu-jazarpenagatik edo sexuagatik jazarpenagatik jarritako salaketei buruzkoak.

3. Desgaitasuna izan eta lan-merkatuan parte hartzen dutenei buruzko informazioa biltzea eta tratatzea sustatuko du, bai eta horiek garatutako laneratze- eta igarotze-ibilbideei buruzkoa ere.

4. Enplegu-planek, enplegu politika aktiboaren planen barruan, estrategia bat izan behar du, desgaitasuna duten pertsonen enplegu inklusiboa eta aukera-berdintasuna erraztearekin lotutakoa.

54. artikulua. Koordinazioa eta kontrola.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak koordinazioa erraztuko du enplegu-politikak eta gizarte-arlokoak garatzen dituzten erakundeen artean, hirugarren sektoreko erakundeak eta prestakuntza- eta hezkuntza-esparruetakoak barne, inplikaturako bitartekoen eta baliabideen eta horien emaitzen ahaleginak optimizatuko dituen esku-hartze integrala bultzatzeko. Bereziki indartuko dira, batetik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekiko lankidetzak eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen eta enpleguaren arloetan eskumenak dituzten departamentuen edo erakundeen eta Nafarroako toki entitateen arteko lankidetzak.

2. Desgaitasuna dutenentzako tokiak erreserbatzeko kuotaren ordeztutako neurriak bidezkoak eta egokiak diren kontrolatuko du, eta kuota betetzen dela edo neurri alternatiboak aplikatzen direla kontrolatzeko koordinazioa gauzatuko du.

3. Desgaitasuna dutenen enpleguaren kalitatea eta lan-baldintzak zainduko ditu, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin lankidetzan.

4. Desgaitasuna dutenen laneko arriskuen prebentzioa planifikatzen eta kontrolatzen lagunduko du, eta berariaz kontrolatuko du prebentzio-neurriak ez direla diskriminatzaileak desgaitasuna duten pertsonentzat, eta kolektibo horrentzako informazioa, araudia eta jardunbide egokiak argitaratu eta zabalduko ditu. Horretarako, Nafarroan osasun publikoaren eta lan-osasunaren arloan eskumena duen unitatearen edo erakundearen bitartez, bere eskumenen esparruan, honako eginkizun hauek sustatuko ditu:

a) Aholkularitza eta laguntza teknikoak ematea osasun- eta lan-arloko erakundeei, bai eta zerikusia duten beste erakunde batzuei, langileei eta haien ordezkariari, enpresei eta haien prebentio-zerbitzuei ere, lan-osasunari, lan-baldintzei eta laneko arriskuei dagokienez.

b) Jarduketa programa espezifikoak diseinatzea eta garatzea, bereziki sentikorrek diren pertsonen –desgaitasuna duten emakumezko langileek batez ere– betetako edo bete ditzaketan lanpostuetan laneko arriskuen prebentzioa txertatzeari dagokienez. Lehentasunez, jazarpenaren eta generoagatiko diskriminazioaren aurkako babesarekin lotutakoak.

c) Desgaitasuna duten langileei, enpresaburuei, profesionalari eta administrazio publikoari laneko arriskuen prebentzioari eta lan-baldintzei

buruzko informazioa eta prestakuntza ematea bultzatzea eta sustatzea.

d) Aholkularitzako, zaintzako eta kontroleko jarduketak garatzea, prebentzioa bideratuak, lantokiei, instalazioei, makinei, babes-ekipoari eta lanpostuen diseinuari dagokienez bereziki sentiberak diren langileekin lotutako laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta gomendioak betetzen direla ziurtatzeko, eta lantokian desgaitasuna dutenentzako arrazoizko doikuntzak egiten direla zaintzea.

e) Desgaitasuna duten langileen laneko arriskuen prebentzioari eta lan-osasunari buruzko prestakuntza-, informazio-, hedapen- eta sustapen-jarduketak garatzea.

f) Desgaitasuna duten langileen kolektiboan eragina izan dezaketen lan-baldintzei, laneko arrisku-faktoreei, lesioei eta gaixotasun profesionalari eta lanarekin lotutako buruzko azterlanak eta ikerketak sustatzea eta haien kausak aztertea.

5. Ekonomia sozialaren plangintzan, desgaitasuna dutenentzako jarduketa-ildoak sartuko ditu.

6. Erantzukizun soziala sustatuko du desgaitasunak dituztenekin zerikusia duten neurriak biltzen dituzten enpresetan eta erakundeetan.

VI. TITULUA**Kultura eta beste aisialdi-, kirol-, josteta- eta merkataritza-jarduerak****I. KAPITULUA
Eskubide kulturalak**

55. artikulua. Kultura berdintasunez eskuratzeko.

1. Nafarroako administrazio publikoek zainduko dute behar diren baldintzak daudela kultura egiazko berdintasunez eskuratu ahal izateko eta bizitza kulturalean ere berdintasunez parte hartu ahal izateko, Nafarroako eskubide kulturalari buruzko araudiari eta bertan ezarritako printzipioei jarraikiz.

2. Nafarroako administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, informazio eguneratua emanen dute kultur zentro, museo, artxibo, liburutegi, antzoki, auditorium eta kultur ekipamenduetako sarbide- eta irisgarritasun-baldintzei buruz, Nafarroako eskubide kulturalari buruzko araudiarekin bat, eta pertsona guztientzako irisgarritasuna jasoko duten protokoloak egiten dituzte.

3. Desgaitasuna dutenek eskubidea dute Nafarroako kultur ondareaz berdintasunez gozatzeko,

bai eta Nafarroako ondare ez-materiala osatzen duten ondasunez ere, eta, horrez gain, Nafarroako dokumentu ondarea osatzen duten ondasun guztiak kontsultatzeko, Nafarroako museoetara eta bilduma museografiko iraunkorretara sartzeko eta Nafarroako liburutegi publikoen oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko, hori guztia horiek arautzen dituen araudiaren arabera.

4. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, kultura eta arte bitartekaritzako prozesuak egokituko dituzte desgaitasuna dutenen beharretara.

5. Nafarroako administrazio publikoek zainduko dute, bakoitzak bere eskumenen esparruan, kultur eskaintzaren ardura duten erakunde publiko edo pribatuak badituztela behar adina giza baliabide eta baliabide material, desgaitasuna dutenek kultura- eta aisialdi-eskaintza eskuratu ahal izateko, desgaitasun mota guztiak kontuan hartuta. Ezarritako neurriek, segurtasunaz gain, desgaitasuna dutenen borondatea eta lehentasunak errespetatuko dituzte, teknologien erabilera sustatuko da desgaitasuna dutenentzako egokitzapenak egitean egon daitezkeen mugak gainditzeko, eta neurriak eskatzen direnean neurriok eraginkorrak izatea bultzatuko da.

6. Nafarroako administrazio publikoek Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren ezagutza sustatuko dute, eta, bereziki, eskura dauden leku, eraikin edo espazio kultural garrantzitsuen bisita birtualei buruzko informazioa.

7. Kulturaren arloan eskumena duen departamentuak ahaleginak eginen ditu kultur eskaintzan behar diren teknologiak bultzatzea, desgaitasuna dutenei bizitza kulturean parte hartzen laguntzeko, haien aniztasuna kontuan hartuta.

8. Nafarroako administrazio publikoek lagunduko dute jakinarazten zer egile-eskubidedun lan jarri dituzten entitate baimenduek eskueran dohainik eta irisgarritasun-formatuan, 2013ko ekainaren 27an onetsitako Marrakexeko Tratatuari jarraikiz. Tratatu horren xedea da itsuek eta ikusteko desgaitasuna edo inprimatutako testua ulertzeko beselako zailtasunak dituztenek argitaratutako obrak eskuratu ahal izatea.

56. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak kultura-jardueretan.

1. Kultura-jarduerak irisgarritasun unibersalaren baldintzak bermatu beharko dituzte, desgaitasuna dutenek haietat gozatu, haiek ulertu eta haietan parte hartu ahal izan dezaten. Informazio guztia formatu ulergarri eta hizkera ulerterrazee-

an emanen da, erregelamenduz jardueraren arabera ezarritakoarekin bat.

2. Erregelamenduz ezarriko da zein diren kultur ekipamenduek, espazioek eta zerbitzuek irisgarritasunaren arloan bete beharreko gutxieneko baldintzak.

3. Entitate hornitzaile pribatuek sustatuko dute kultur eta aisialdiko eskaintzaren zabalkundea pertsona guztientzat irisgarriak eta ulergarriak diren formatuetan egin dadin.

57. artikulua. Desgaitasuna dutenek sormenerako duten potentziala.

1. Nafarroako administrazio publikoek desgaitasuna dutenen parte-hartzea sustatuko dute mota guztietako arte jardueretan, beren onura propiorako zein gizartea aberasteko.

2. Desgaitasuna dutenen kultur sorkuntza sustatuko da Foru Komunitatean, eta deialdien eta laguntzen programak diseinatu eta kudeatuko dira desgaitasuna dutenen ahalmen artistikoa, sorkuntzailea eta intelektuala garatzen laguntzeko. Horretarako, desgaitasuna dutenek parte hartzeko moduko jarduerak sustatuko dira, zeinetan desgaitasunari arreta ematearen arloko prestakuntza berezia duten langileak izanen baitira, eta eskaintza adin-tarte guztietara egokitzen saiatuko da.

58. artikulua. Arte-sorkuntza eta irakurketa hedatzea eta sustatzea desgaitasuna dutenen artean.

1. Kulturaren arloan eskumena duen departamentuak arauak, sustapen-neurriak eta laguntza egokiak ezarriko ditu, desgaitasuna dutenei kultura-jardueretara iristeko bidea errazteko, bai ekimen publikoaren bidez bai pribatuaren bidez garatutakoetara. Horretarako, kontuan hartuko ditu inguruabar ekonomikoak, laguntzaileekin joateko beharra eta laguntza gehien behar duten jarduerak antolatzekeo kostuak, eta taldekako zein banakako jarduerak sustatuko ditu.

2. Artearen hedapenerako programak gauzatuko ditu kultur-eragileekin, erakunde publiko eta pribatuekin eta elkarteekin elkarlanean, bai eta interes publikotzat jotzen diren ekimenak dituztenekin ere.

3. Liburutegi publikoek irakurketa sustatzeko planak prestatu eta garatuko dituzte. Planak aldi-aldi ebaluatu eta eguneratuko dira, behar den aurrekontu-zuzkidura izanen dute, eta berrikuntza teknologikoetara egokituta egonen dira. Irakurketa sustatzeko planek arreta berezia eskainiko diete desgaitasuna duten haur eta gazteei, irakurtzeko ohitura sendotze aldera, bai eta

desgaitasuna duten eta gizartean egoera ahulagotan dauden pertsonen edo, gainera, hizkuntza menderatzeko zailtasunak dituzten migratzaileen beharrei ere, eta irakurketa errazeko klubak bultzatuko dira bereziki.

59. artikulua. Prestakuntza eta sentsibilizazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute entitate publikoek eskaintzen dituzten kultura jardueraz arduratzen diren langileek desgaitasuna dutenei laguntza emateko prestakuntza jasoko dutela, eta bereziki kontuan hartuko dituzte tratu pertsonala eta segurtasun-, larrialdi- eta irisgarritasun-neurriak.

2. Kulturaren arloan eskumena duen departamentuak irisgarritasunari buruzko eskuliburu bat emanen die Nafarroako Foru Komunitateko kultur eragileei, eta bere web-orrian ere eskura jarriko du.

3. Kulturaren arloan eskumena duen departamentuak prestakuntza eskainiko die aldi behin Nafarroako kultur eragileei, irisgarritasun unibertsalaren arloko eskubide eta tresnei buruz sentsibilizatzeko.

4. Nafarroako administrazio publikoek kultura jarduerak bultzatu eta zabalduko dituzte, desgaitasuna dutenen eskubideez eta gizarteari egiten dizkieten ekarpenez kontzientziatu eta sentsibilizatzeko jendartea.

II. KAPITULUA Kirola eta turismoa

60. artikulua. Kirol inklusiboa sustatzea.

1. Kirolaren arloan eskumena duen departamentuak kirol-jarduera fisikorako programak diseinatu eta sustatuko ditu, desgaitasuna dutenen parte-hartzea sustatzeko, onuragarriak izanen direnak gizabanakoarentzat eta gizartearentzat eta haien erabateko gizarteratzea lortzen lagunduko dutenak.

2. Fisikokiroleko programa eta jarduera horiek parte-hartzaileen gaitasun-garapenera egokituta egotea bultzatu eta zainduko du, eta gaitasunok hobetzeko aukera ematea. Programa eta jarduera horietan, desgaitasunaren arloan prestakuntza berezia duten langileek parte hartuko dute; kirol-lanbideetan hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legean ezarritako lanbide-kualifikazioak izan beharko dituzte.

3. Kirolaren arloan eskumena duen departamentuak eta, hala badagokio, hezkuntza-arloan eskumena duenak, bermatuko dute desgaitasuna

duten pertsonen modua dutela kirol-jarduera fisikoak berdintasunez egiteko, baita eskolaren eremuan egiten direnak ere, eta desgaitasun mota dela-eta ezinbestekoa denean soilik ezarriko da kirol berezia.

4. Kirol-jarduerarako erraztasunak emanen ditu, laguntzen eta dirulaguntzen bidez.

61. artikulua. Turismo inklusiboa sustatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak sustatuko ditu instalazio eta zerbitzu turistiko irisgarri eta inklusiboak hobetzeko, eta dauden instalazio, baliabide eta zerbitzu irisgarri eta inklusiboen berri emanen du eta sustatu egiten ditu.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere dirulaguntzen bidez, irisgarritasun eta inklusio turistikoaren arloko inbertsioak sustatu eta bultzatuko ditu, bai eta turismo-enpresa eta -entitateen sustapen- eta komunikazio-jarduerak ere.

62. artikulua. Kirol eta aisialdi jardueretako irisgarritasun-baldintzak.

1. Kirol edo aisialdi jardueretan eta antzeko ekitaldi publikoetan irisgarritasun unibertsalerako baldintzak bermatu beharko dira, desgaitasuna duten pertsonen modua izan dezaten jarduera eta ekitaldi horietaz gozatzeko, haiek ulertzeko eta haietan parte hartzeko, guztientzako segurtasunez eta berdintasunez. Informazio guztia formatu irisgarri eta ulergarrietan emanen da, erregelamenduz jarduera motaren arabera ezarritakoarekin bat.

2. Erregelamenduz ezarriko da zein diren kirol eta aisialdiko zerbitzuek eta ekipamenduek irisgarritasunaren arloan bete beharreko gutxieneko baldintzak.

3. Hornitzaile pribatuek sustatuko dute kirol eta aisialdiko eskaintzaren zabalkundea pertsona guztientzat irisgarriak eta ulergarriak diren formatuetan egin dadin.

III. KAPITULUA Merkataritza-jarduera

63. artikulua. Merkataritza-jarduera inklusiboa sustatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak sustatuko ditu, saltegien eta merkataritza-zerbitzuen irisgarritasun- eta inklusibitate-baldintzak hobetzeko.

Halaber, administrazioak bere dirulaguntzen lerroen bidez sustatu eta bultzatuko ditu saltegien irisgarritasunerako eta inklusibitateerako inbertsioak, bai eta merkataritzako enpresen eta entitateen sustapen- eta komunikazio-jarduerak ere.

VII. TITULUA

Irisgarritasunari buruzko xedapen espezifikoak

I. KAPITULUA

Irisgarritasuna

64. artikulua. Irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei esleitutako eskumenak eragotzi gabe, Estatuko oinarrizko araudian ezarritako irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak aplikatuko dira Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean.

2. Pertsona guztiei aukera-berdintasuna, autonomia pertsonala eta bizimodu independentea bermatzea da irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzen xedea.

3. Irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzek neurri zehatzak ezarriko dituzte esparru edo arlo bakoitzerako, diskriminazioak prebenitzeko edo desagerrarazteko, eta desabantailak edo zailtasunak orekatzeko.

4. Desgaitasun mota eta maila desberdinak kontuan hartuta ezarriko dira irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarrizko baldintzak, eta aplikagarriak izanen dira foru lege honen aplikazio-eremu bakoitzeko ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen hasierako diseinuan eta egokitzapen arazoizkoetan.

Erregulazio hori pixkanaka eginen da, bai denborari dagokionez bai ezarritako betebeharren norainokoari eta edukiari dagokienez, eta 4. artikuluko 1 a) apartatutik n) apartatura bitarte aipatzen diren esparru guztiak hartuko ditu.

5. Irisgarritasunari buruzko politikek, bereziki hirigintzaren eremuan, barnean hartu behar dute autonomiarekin, segurtasunarekin, soziabilitatearekin, atsegintasunarekin eta bizigarritasunarekin zerikusia duen alderdia, genero-ikuspegiz.

65. artikulua. Sustapena, bultzada eta parte-hartzea.

Nafarroako administrazio publikoek irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua sustatuko dituzte foru lege honetan deskribaturiko eremuetan; eta eskatuko dute, bestetik, planek eta proiektuek, sustapen publikoak izan edo pribatukoak izan, bete dezatela foru lege honetan eta

legea garatuko duten erregelamenduetan ezarritakoa.

Horretarako, sustapen-lana eginen da, desgaitasuna dutenek eta haien familiek edo beren gaitasuna gauzatzeko laguntza ematen dietenek, nork bere kasa nahiz beren ordezkaritza-erakundeen bitartez, parte har dezaten berengan eragina duten erabakiak proposatzen, prestatzen eta hartzen. Nafarroako administrazio publikoen betebeharra da, bestalde, bakoitzaren eskumenean esparruan, parte-hartze hori egiazkoa eta eragin-korra izanen dela ziurtatzeko baldintzak sustatzea. Era berean, sustatuko da pertsona horiek presentzia jarraitua izan dezatela Nafarroako administrazio publikoetako desgaitasunaren arloko berariazko parte-hartze eta aholkularitza organoetan, baldin eta haien eginkizunek zuzeneko lotura badute desgaitasuna dutenentzat lehentasunezko interesa duten alorretako gaiekin.

Nafarroako administrazio publikoek informazio-jarduerak, sentsibilizazio-kanpainak eta prestakuntza-ekintzak garatu eta sustatuko dituzte, baita aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko beharrezkoak diren bestelako neurriak ere.

Horrekin batera, herritarren arretaren arloan, pertsona guztientzako arreta bermatuko duten profil profesionalak trebatzea eta funtzio publikoan pixkanaka sartzea bultzatuko dute.

Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainei irisgarriak izan behar dute pertsona guztientzat, eta eskuragarri egonen dira irakurketa errazeko formatuan, braille sisteman, letra handituan, zeinuhizkuntzan, azpituiluekin edo beste sistema alternatibo batzuetan.

Nafarroako administrazio publikoek araudi teknikoa gara dadin bermatu eta babestuko dute, bai eta dagoen araudia berrikus dadin ere, horren bidez segurtatzeko ez dela diskriminaziorik egonen teknologia, produktu, zerbitzu eta ondasunen prozesu, diseinu eta garapenean, eta, horretarako, lankidetzan arituko dira desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea ziurtatzeko zereginetan aritzen diren entitate eta erakundeekin. Horrekin batera, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuko dituzte irisgarritasun unibertsalarekin lotutako arloetan.

66. artikulua. Irisgarritasun unibertsalaren kudeaketa eta erregelamenduzko garapena.

1. Foru lege honetan jasotako xedapenak erregelamendu bidez garatzean, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko UNE 170001-1 araua bete beharko dute Nafarroako administrazio publikoek. 1. zatia:

DALCO irizpideak, ingurunerako irisgarritasuna errazteko, eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko UNE 170001-2 Araua. 2. zatia: irisgarritasuna kudeatzeko sistemak. Beharrezkoa izanen da irisgarritasun globala kudeatzeko sistema bat ezartzea, pertsona guztiei bermatze aldera aukera berberak izanen dituztela ingurune eraikirako sarbidea izateari dagokionez eta ondasun eta zerbitzuen eskuragarritasunari dagokionez, ahalik eta erabilera-autonomia handienarekin, zein ere den haien adina edo desgaitasun mota.

2. Era berean, Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak hartu beharko dituzte beren webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen eskuragarritasuna pixkanaka handitzeko, eta horiek hautemangarriak, eragingarriak, ulergarriak eta sendoak izan daitezen, eta bermatuko dute gutxienez ere EN 301 549 V1.1.2 (2015-04) arauaren edo haren bertsio berrienaren irisgarritasun-maila baliokidea dutela. Nolanahi ere, bermatua egonen da Estatuko oinarrizko araudian eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/2012 eta 2019/882 (EB) Zuzentarauetan (2016ko urriaren 26koa eta 2019ko apirilaren 17koa, hurrenez hurren) aurreikusitako irisgarritasun-maila, horien transposizio-aldien eta araubide iragankorren arabera.

3. Nafarroako Gobernuak araudi teknikoa garatu beharko du, eta dagoen araudia berrikusi, ziurtatuta egon dadin ez dela diskriminaziorik egonen teknologia, ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuen diseinuan eta garapenean, eta, horretarako, lankidetzan arituko da normalizazio-eta ziurtapen-entitate eta erakundeekin eta desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea bermatzeko zereginetan aritzen diren eragile guztiekin. Horrekin batera, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuko ditu irisgarritasun unibertsalarekin lotutako arloetan.

4. Nafarroako administrazio publikoek prestakuntza programak sustatu eta emanen dituzte irisgarritasun unibertsalari buruz, eta neurriak hartuko dituzte herritarrak kontzientziatzeko irisgarritasun unibertsalaren betebeharez eta betebehaz horiek pertsona guztientzat dakartzaten onurez.

67. artikulua. Betetzea eta kontrola.

Nafarroako administrazio publikoek zaindu eta egiaztatuko dute beren xedapenak eta erabakiak bat datozela foru lege honekin eta foru legea garatuko duten erregelamenduzko arauekin.

68. artikulua. Irisgarritasunaren Nazioarteko Ikurra.

1. Produktu, ingurune, prozesu, ondasun eta zerbitzuen irisgarritasuna eta erabilerarako aukerak identifikatzeko, irisgarriak direnak Irisgarritasunaren Nazioarteko Ikurraz (INI) seinalatuko dira.

2. Produktu, ingurune, prozesu, ondasun edo zerbitzu bat desgaitasun jakin batzuetarako baizik ez bada irisgarria, zein desgaitasunetarako den irisgarria seinalatuko da dagokion ikurrarekin.

II. KAPITULUA

Irisgarritasuna lurraldean

69. artikulua. Irisgarritasuna erabilera publikoko hiriguneetan.

1. Erabilera publikoko hiriguneen planifikazioak eta urbanizazioak haien irisgarritasuna bermatu beharko du, planeamendu orokorraren bidez, garapen planeamenduaren bidez eta hirigintza antolamendurako eta planeamendua betetzeko gainerako tresnen bidez, foru lege honetan eta haren garapen arauetan ezarritako irizpideekin bat.

2. Hirigintza antolamenduko tresnek, urbanizazio-proiektuek eta obra arruntetarako proiektuek irisgarritasun-baldintzak betetzen direla frogatzeko atal bat eduki beharko dute, kontuan hartuz ukitutako sektoreak nolako lotura duen sektore mugakideekin. Irisgarritasun-baldintzetakoren bat betetzerik ez dagoenean, horren kausak adierazi beharko dira, eta arrazoizkoak diren kasuko egokitzapenak egin.

3. Egun dauden erabilera publikoko hiriguneek –zerbitzuen instalazioak eta hiri-altzariak barne– pixkanaka egokitzen joan beharko dute toki entitateak irisgarritasunaren arloan onesten duen plan integralean jasotako ebazpenen arabera. Bestetik, espazio horietan egiten diren esku-hartze guztiek egokitzapen arrazoizkoak bete beharko dituzte beti.

70. artikulua. Ibilbideak.

1. Oinezkoentzako ibilbideak –oinezkoek eta ibilgailuek etengabe edoaldi baterako konpartitzen dituzten eremuak barne–, oinezkoen erabilerarako eremuaren barrenean berariaz pertsonen joan-etorrietara bideratutako tokia diren aldetik, pertsona ororentzat irisgarriak izateko eta diskriminaziorik gabeko erabilera bermatzeko modukoak izan daitezen diseinatu eta eginen dira.

2. Ondorio horietarako, oinarrizko araudi indardunean xedatutakoa beteko da, foru lege honen erregelamenduzko garapena ukatu gabe.

71. artikulua. Aparkalekuak.

1. Automobilak aparkatzeko eremu guztietan, lur azpian nahiz gainean egon, erabilera publikoko bide edo eremuetan baldin badaude, behar bezala seinaleztatutako tokiak izanen dituzte erreserbatuta desgaitasuna dutenentzako aparkatzeko txartela lortu dutenek erabiltzeko; toki horiek modu iraunkorrean egonen dira erreserbatuta, eta oinezkoentzako sarbideetatik ahalik eta hurbilen, betiere foru lege honen 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta foru edo toki araudian araututako erabilera-baldintzak edo eskubideak eragotzi gabe, baldin eta hauek onuragarriagoak badira.

2. Nafarroako udalerriek ordenantza bidez zehaztuko dute zein diren jarduera zentroaren izaera duten hiriguneko eremuak. Eremu horietan, berrogei plaza bat erreserbatuko da gutxienez, eta beste plaza bat berrogeitik beherako frakzioko. Horrek ez du eragotziko Estatuko oinarrizko legegian ezarritako toki irisgarrien erreserba.

3. Desgaitasuna duten pertsonak erabiltzeko erreserbatutako tokiek erregelamenduz ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte, eta erregelamenduan xedatutako tamaina izan beharko dute. Oinezkoak toki horietara iristeko bideek irisgarriak izateko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

72. artikulua. Hirigintzako elementuak.

1. Hirigintzako elementuak dira urbanizazio-lanen elementu guztiak, hala nola zoladura, ur hornidura eta banaketa, saneamendua, estolda sarea, energia elektriko, gas eta telekomunikazioak hartu eta banatzeko sistemak, argiteria publikoa, bide-segurtasuna eta bide-seinaleak eta lorategiak, bai eta hirigintza antolamendurako tresnetan jasotako aurreikuspenak gauzatzen dituzten elementu guztiak ere.

2. Oinezkoentzako eremuetan kokatu behar diren hirigintzako elementuen diseinuan, kokapenean eta mantentze-lanetan, pertsona guztien segurtasuna, irisgarritasuna, autonomia eta diskriminaziorik eza ziurtatuko da, erregelamenduz ezartzen den moduan.

3. Erabilera publikoko eremuetan behin-behinekoz jartzen diren elementuak halako moduz kokatu eta seinalatu beharko dira non segurtasuna eta irisgarritasun unibertsala bermatuko diren.

4. Bide publikoan traba egiten duten obretan, behar diren babes- eta seinalizazio-bitartekoak jarriko dira, ahal dela ibilbide irisgarriak inbaditu gabe, eta ordezkotako ibilbide edo pasabideak jarri beharko dira.

73. artikulua. Hiri-altzariak eta haurren jolastokiak.

1. Hiri-altzariak dira erabilera publikoko hiriguneeetan dauden elementu higigarri guztiak, hirigintzako edo eraikuntzako elementuen gainean edo haiei itsatsita jarrita daudenak; hots, zutoinak, seinalizazio-zutoinak, telefono kabinak, paperontziak, gutunontziak, jarlekuak eta antzeko beste edozein elementu.

2. Pertsona guztiek modu autonomo eta seguruan erabiltzeko moduan diseinatu eta kokatu behar dira erabilera publikoko hiri-altzarien elementu guztiak, igarotzeko eremua inbaditu gabe, ez zoruaren planoan ez altueran ere, oinezkoen ibilbideetan.

3. Trafikoko seinaleak, semaforoak, argiztapeneko zutoinak edo seinalizatorako gainerako elementu bertikal guztiak, oinezkoentzako ibilbide batean kokatuta daudenak, pertsonen zirkulazioa ez oztopatzeko eta erosotasun handienarekin erabiltzeko moduan diseinatu eta kokatu behar dira.

4. Erregelamenduz ezarriko dira elementu horiek irisgarri eta ulergarritzat jotzeko bete beharreko parametroak eta ezaugarriak; edozein kasutan, gutxienez alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan: seinaleen azpiko altuera librea, espaloietako kokalekua eta botoien eta eskuz eragin beharreko mekanismoen kokalekua, bai eta zenbait teknika erabiltzea ere, hala nola soinu-zuko seinaleak, irakurketa erraza, piktograma homologatuen erabilera eta braille sistema, bidezkoa bada.

5. Kioskorik, tabernetako terrazarik, kutxazain automatikorik, salmenta-makinarik eta antzeko instalaziorik jarri gero, haiek espaloiak edo eremu publikoak partzialki okupatzen badituzte, aukera eman beharko dute betiere oinezkoak pasatzeko, eta bat etorriko dira oinezkoen ibilbide-etarako ezarritako arauekin.

6. Telefono kabinak, kutxazain automatikoak, salmenta- eta informazio-makinak eta antzeko elementuak, erabiltzeko manipulatutako egin behar direnez, desgaitasun mota desberdinak dituzten pertsonen irisgarritasuna bermatzeko moduan diseinatu behar dira, eta ahalik eta modu erosonean erabiltzeko moduan kokatuko dira, kontuan hartuta, gainera, ez dutela traba izan behar pertsonen zirkulaziorako.

7. Diseinuari eta kokapenari dagokienez, irisgarriak izan beharko dute, halaber, paperontziek, edukiontziek, gutunontziek eta antzeko beste elementu batzuek, eta oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzeko moduan kokatu beharko dira.

8. Baldintza berberak bete beharko dituzte oinezkoen espazioetan paratzen diren elementu irtenek, hala nola olanek eta halakoek, eta betiere ekidin beharko da horiek oztopo izatea pertsonen zirkulazio librerako.

9. Haurren jolastokiak irisgarritasun unibertsaleko eta ororentzako diseinuko irizpideen arabera diseinatu eta instalatuko dira, eremu inklusiboak izan daitezen haur guztiak batera jostatzeko. Era berean, haurren jolastokiaren inguruneak eta hartarako eta jostatzeko elementuetarako sarbideak irisgarriak izan beharko dute.

10. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, oinarrizko araudi indardunearan xedatutakoa bete beharko da, ezertan ukatu gabe foru lege honen erregelamenduzko garapena.

74. artikulua. Erabilera publikoko naturaguneak.

Erabilera publikorako jarduerak egiten diren naturaguneetan, oinezkoentzako ibilbide eta zerbitzu irisgarriak aurreikusi beharko dira, teknikoki posible den kasuetan eta moduan, halako moduz non uztartuko baitira ingurumenarekiko errespetua eta pertsona guztiek naturaz gozatzeko duten eskubidea, betiere horretarako onetsitako naturaguneetarako irisgarritasunerako gida orokorrekin bat.

Erregelamenduz ezarriko dira gida horien edukia eta gidak onesteko epeak, kasuan kasuko naturaguneak kudeatzeko planetan jasotako irisgarritasun aurreikuspenei jarraikiz betiere.

75. artikulua. Seinalizazio eta informazio irisgarria.

1. Oinezkoentzako ibilbideek seinalizazio osatua izanen dute, edozein desgaitasun duten pertsonen non dauden jakiteko eta orientatzeko aukera izan dezaten beti, eta seinaleak irakurgarriak eta ulergarriak direla bermatu beharko da.

2. Bermatuko da, bestalde, erraza izanen dela ingurune guztiak ekipamendu nagusiak aurkitzea, norabidea adierazten duen seinalizazioaren bidez, oinezkoentzako ibilbideetatik oinezkoek ongi irakurtzeko moduan. Erraztuko da, bestetik, eremu publikoan orientatu ahal izatea, irakurketa errazaren metodologiaren bidez eta piktograma homologatuak, braille sistema, soinuak seinalak edo unean-unean informazio-eskurapenerako berme gehien ematen dituzten sistemak erabilia. Bereziki hartuko dira kontuan errotuluaren tamaina eta kolorea, argiarengatik itsutzeko aukerarik ez izatea, gutxienean argiztapena, kokapena, altuera eta orientazioa, bai eta hautematea galarrak edo zaildu dezakeen oztoporik ez izatea.

Erabakitzen den guneetan, mapen eta informazio puntuen bidez osatuko da seinalizazioa, eremu publikoan orientatzen eta autonomiaz mugitzen laguntzeko, irisgarritasun unibertsala bermatze aldera.

III. KAPITULUA Irisgarritasuna eraikingintzan

1. atala Erabilera publikoko eraikinak

76. artikulua. Irisgarritasuna erabilera publikoko eraikinetan.

1. Erabilera publikoko eraikin, establezimendu edo instalaziotzat jotzen dira pertsona askok hainbat jarduera egiteko erabiltzen direnak: jarduera sozialak, jostetakoak, kirol, kultura eta hezkuntza arlokoak, merkataritzakoak, administratiboak, asistentzialak, etxebizitzakoak, erlijiosoak, osasun arlokoak edo antzekoak.

2. Erabilera publikoko eraikinak, titulartasun publiko nahiz pribatukoak izan, irisgarriak direla ziurtatzeko moduan proiektatu, eraiki, zaharritu, birgaitu, zaindu eta erabiliko dira, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta epeetan.

3. Erabilera publikoko eraikinak handitu, birgaitu edo berritzeko lanetan bitarteko tekniko edo ekonomiko neurrigabeak behar direnean egokitzapenerako, arrazoizko doikuntzak egiten ahalko dira, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

4. Erabilera publikokoak diren edo publikoaren joan-etorria daukaten eraikin, establezimendu eta instalazioen autobabeserako, larrialdietarako eta ebakuaziorako planetan, abisu-prozedura irisgarriak eta desgaitasuna dutenentzako eta adinekoentzako laguntza-produktuak ere jaso beharko dira.

77. artikulua. Eraikinetan sartzeko bideak.

Eraikin orotarako sarbideek irisgarritasuna bermatu beharko dute barrenera sartzeko, eraikina bide publikoarekin eta aparkalekuekin lotzen duten eta erraz aurkitzeko modukoak diren ibilbide irisgarrien bitartez. Multzo bera osatzen duten zenbait eraikin daudenean, horiek komunikatuta egonen dira, bai elkarren artean bai eremu komunean, ibilbide irisgarrien bitartez.

78. artikulua. Komunikazio horizontala eta bertikala.

1. Eraikin publiko baten erabilera edo zerbitzu desberdinak hartzen dituzten eremuen ezaugarriek modua eman behar dute pertsona guztiek modu independentean erabiltzeko, eta ibilbide iris-

garrien eta ulergarrien bidez egonen dira komunikatuta.

2. Gutxienez ibilbide irisgarri bat egonen da maila bakoitzean, kota berean dauden puntu irisgarri guztiak elkarrekin lotzeko, baita solairuko sarrera eta irteera, bertan dauden aterpe eremuak eta komunikazio bertikal irisgarrirako nukleoak ere.

3. Ibilbide horizontal irisgarri osoan barna honakoak egonen dira bermatuta:

a) Gurpil-aulkietan mugitzen direnen zirkulazioa.

b) Zoladura egokia, irristatzeko arriskua ahalik eta txikiena izateko eta desgaitasuna edo mugikortasun urria dutenen joan-etorriak errazteko, bai eta ikusteko desgaitasuna dutenak bertatik autonomiaz ibil daitezela ziurtatzeko ere; horrez gain, atsedenguneak jarriko dira ibilbide luzeetan.

c) Zenbait guneren ikusizko komunikazioa, haien erabileraren arabera, entzuteko desgaitasuna dutenen beharrak kontuan hartuta.

79. artikulua. Mugikortasun bertikala.

1. Kota desberdinetan dauden gune irisgarrien artean gutxienez ibilbide irisgarri bat egonen da, mailen artekoa, eskailerak ez diren bide irisgarri bat ere izanen duena gutxienez. Solairu bat baino gehiagoko erabilera publikoko eraikinek igogailu irisgarria izanen dute beti desgaitasun guztietarako, edo arrapala irisgarria.

2. Solairu bakoitzean, igogailuaren ate aurrean, behar besteko tokia egonen da gurpil-aulkien edo ibiltzeko beste lagungarri tekniko batzuen erabiltzaileak igaro ahal izateko, salbu eta berriak ez diren eraikinetan, haien ezaugarriek horretarako aukerarik ematen ez dutenean.

3. Informazio elementu irisgarriak paratuko dira, pertsona guztiei orientazioa eta eskailerak, arrapalak eta igogailuak erabiltzeko modua emateko.

80. artikulua. Komunak.

Erabilera publikoko eraikinek eta establezimenduek pertsona guztientzako komun irisgarriak izanen dituzte erabilera publikoko eremuetan, errege-lamenduz ezarritako moduan.

81. artikulua. Espazioen erreserba.

1. Bilkura aretoetan, ikuskizunetako aretoetan eta jarleku finkoak dituzten lokaletan jarleku aldagarriak jarriko dira ibilbide irisgarriaren ondoan, ongi seinaleztatuta, arazorik gabe aurkitzeko modukoak eta ebakuazio errazekoak, desgaitasuna,

mugikortasun urria eta/edo desgaitasun sensoriala dutenek erabil ditzaten; jarleku finkoak dituzten eremu horietan eta itzaroteko guneetan gurpil-aulkidunentzat erreserbatutako tokiak egon daitezela ziurtatuko da.

2. Eremu horietan guztietan, orobat, begizta magnetiko bat edo entzuteko desgaitasuna dutenen irisgarritasuna bermatuko duen sistema alternatibo bat duen eremu bat prestatuko da, eta behar bezala seinaleztatuko da. Zeinu-hizkuntzaren interpreteak hizlariengandik gertu jarriko dira, eta argitazpen berariazkoa izanen dute.

3. Gune horietan, irisgarritasun problemei konponbidea ematen dieten gailuak eta teknologia berriak egonen dira jarrita.

4. Desgaitasuna izan eta laguntza-txakurrak erabiltzen dituzten pertsonak osoki baliatzen ahaliko dute gune horiek erabiltzeko eskubidea, eta ezin izanen da haien ibiltzeko eta sartzeko askatasuna mugatu arrazoi horregatik, bat etorri Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen otsailaren 2ko 3/2015 Foru Legearen II. tituluan aurreikusitakoarekin.

82. artikulua. Altzariak eta informaziorako elementuak.

Altzari finkoen eta informazio eta komunikazio elementuen ezaugarriak, bai eta haien kokapena ere, desgaitasuna duten pertsonak erabiltzeko modukoak izanen dira. Elementu horien kokapena ez du inoiz ere oztopo izan behar ibilbide irisgarrirako.

2. atala

Titulartasun pribatuko etxebizitza-eraikinak

83. artikulua. Irisgarritasuna titulartasun pribatuko etxebizitza-eraikinetan.

1. Eraikinaren kanpoaldean, lurzatiak ibilbide irisgarri bat izanen du gutxienez, eraikinaren sarrera nagusiarekin lotuta egonen dena. Familia bakarreko etxebizitzaren multzoetan, etxebizitza bakoitzaren eremu pribaturako sarrera bat egonen da, bide publikoarekin eta kanpoko eremu komunekin lotzen duena, hala nola eraikinaren kanpoko aparkaleku propioekin eta lorategi, igerileku, kirol-eremu eta antzeko guneekin.

2. Eraikin berriek eta familia anitzeko edo bakarreko etxebizitzek, eraikineko solairuen artean, ibilbide irisgarriak izanen dituzte, bide publikoaren, etxebizitza bakoitzaren eta haien zerbitzura dauden erabilera komunitarioko eremuen arteko komunikazioa bermatzeko. Familia bakarreko

etxebizitzetan eta familia anitzeko eraikinetan, erregelamenduz ezartzen direnetan, bide publikoa eta etxebizitzaren sarrera komunikatzen dituen ibilbide irisgarriaren ordeztatu eremu bat aurreikus daiteke, beharrezkoak diren laguntza produktuak etorkizunean jartzeko nahikoa toki izanen duena. Familia bakarreko etxebizitzek osatutako etxebizitza multzoak familia anitzeko eraikintzat hartzen dira haien eremu komunek bete beharreko irisgarritasun baldintzei dagokienez.

3. Eraikinek ibilbide irisgarri bat izanen dute solairu bakoitzean, solairu guztietarako sarbide irisgarria (eraikineko sarrera nagusi irisgarria, igogailu irisgarria, arrapala irisgarria) etxebizitzekin komunikatzeko, baita erabilera komunitarioko eremuekin eta etxebizitzek atxikiak dituzten elementuekin ere (hala nola trastelekuak, aparkatze-tokiak eta solairu berean kokatutako antzeko eremuak).

Garajetarako, trastelekutarako edo etxebizitzaren erabilera komunitariorako solairuak daudenean, bertako igogailuen irisgarritasun eta sarrera baldintzak gainerako solairuetako berberak izanen dira.

Lursailaren baldintzak direla-eta aparkalekue-tako solairuen maldak ehuneko seitek beherakoa izan behar duenean, baimena emanen da arrapaltetako tarteei gehieneko luzera-mugarik ez izateko, salbu eta solairu horretako toki irisgarrien eta sarbide irisgarriaren arteko ibilbide irisgarrian.

4. Titulartasun pribatuko eta etxebizitza-erabilerako eraikinak berriak, birgaitu edo zaharberritzeko proiektuek, baldin eta ukitzen duten hasierako azaleraren portzentajea erregelamenduz ezarritakoa baino handiagoa bada, edo erabilera aldatu behar bazaie, obrak aurreikusitako beharko dituzte, kasu bakoitzerako, erabileraren, azaleraren eta esku-hartzearen mailaren arabera, erregelamenduz ezartzen diren irisgarritasun-baldintzetara egokitzeko behar direnak. Baldintza horiek betetzeko egokitzapenak eragindako kostua neurrigabea bada obraren kostuaren aldean, arrazoizko egokitzapenerako proposamen alternatibo bat eginen da.

5. Edozein kasutan ere, egindako berritze-lanek ez dituzte murriztuko lehendik zeuden irisgarritasun-baldintzak.

6. Etxebizitzaren titular edo erabiltzaile direnek egindako egokitzapen-lanei dagokienez, sektoreko legedian xedatutakoa bete beharko da.

3. atala

Informazioa, seinalizazioa eta segurtasuna

84. artikulua. Informazioa, seinalizazioa eta segurtasuna.

1. Eraikinek behar den informazioa, seinalizazioa eta argiztapena izanen dute edozein pertsona orientatzeko eta eremu eta ibilbide irisgarriak non dauden jakiteko, bai eta eraikina segurtasunez erabiltzeko ere.

2. Segurtasuneko informazioa erraz aurkitzeko moduko toki irisgarri batean egonen da, eta bide emanen du erabiltzaile guztiek ulertzeko, irakurketa errazaren metodologia erabilita, edo piktograma homologatuak, braillea, zeinu-hizkuntza, soinu-seinaleak, seinale argidunak, kontrastedunak, tipografiadunak edo unean-unean informazioa eskuratzeko berme gehien ematen duten sistemak erabilita.

3. Eraikinetako guneak eta ekipamenduak seinalizatzean, kontuan hartuko dira argiztapena eta gainerako baldintzak, ikusizkoak, entzutekoak eta, beharrezkoa bada, ukitzeak, hautemateko modua ematen dietenak zentzumenezko desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala duten pertsonen. Betiere, irisgarritasun kognitiboa eta ingurune ulergarriak bermatuko dira.

4. Informazioa eta seinalizazioa eguneratuta egonen dira. Eraikinean egiten diren egokitzapen, moldaketa eta irisgarritasuneko zerbitzu berri guztiak behar bezala seinalezatuta egonen dira, aurreko apartatuetan adierazitako ulerterratasun irizpideak kontuan hartuta.

4. atala

Etxebizitzak erreserbatzea desgaitasuna dutenentzat

85. artikulua. Etxebizitza irisgarriak erreserbatzea.

1. Etxebizitza babestuen kalifikazioa jasotzen duten etxebizitza proiektuetan, Nafarroan etxebizitza izateko eskubidea arautzen duen foru legedian desgaitasuna duten pertsonentzat ezartzen den portzentajea gordeko da.

2. Artikulu honetan aurreikusitako erreserbaren xede diren alokairuko etxebizitzak honakoei adjudikatzen ahalko zaizkie: desgaitasuna duten norbanakoei, desgaitasuna duen pertsona bat duten familia unitateei edo desgaitasunaren sektoreko irabazi-asmorik gabeko entitateei, azken kasu honetan entitate horiek etxebizitzak erabiltzen badituzte desgaitasuna dutenen inklusio soziala eta bizimodu autonomoa sustatzeko (esate baterako, laguntzadun etxebizitzak, etxebizitza

konpartituak, babeseko etxebizitzak, desgaitasuna dutenen bizimodu beregainerako proiektuak eta antzeko soluzioak).

3. Erreserba egiteko betebeharra izanen dute, halaber, administrazio publikoek eta sektore publikoaren menpeko edo harekin lotutako gainerako entitateek eraikitako, sustatutako edo diruz lagundutako beste edozein motatako etxebizitza proiektuek.

4. Lehen ezarritakoari jarraikiz desgaitasuna dutenentzat erreserbatutako etxebizitzak proiektatzen diren eraikinetan, etxebizitza horiekin lotutako aparkaleku-plaza irisgarriak ere erreserbatu beharko dira, etxebizitzaren kopuru berean, eta ibilbide egokitu bat ezarri beharko da garajeak eta etxebizitzak komunikatzeko.

Proiektua konplexu arkitektoniko bat osatzen duten eraikin eta instalazio multzo bati dagokionean, konplexuaren proiektuak eta eraikuntzak, ezinbestean, aukera eman behar dute higiezin eta instalazio osagarri guztiak desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak izan daitezen.

5. Desgaitasuna duten pertsonen eskura izanen dute etxebizitza erreserbatuen eskaintzari eta horiek kudeatu eta erosteko prozedurei buruzko informazioa, formatu irisgarri eta ulergarrian betiere.

5. atala

Balio historiko-artistikoa duten eraikinak

86. artikulua. Balio historiko-artistikoa duten eraikinak.

Nafarroako Kultur Ondarea osatzen duten ondasun higiezinetan, irisgarritasun unibertsala bermatzeko behar diren egokitzapenak egiten ahalko dira, babestutako balioen beharrezko zainketa eragotzi gabe. Oinarrizko irisgarritasun-baldintzetako bat betetzerik ez dagoenean, behar diren zentzuzko egokitzapenak aplikatuko dira. Nolanahi ere, ondasun mota honetan esku hartzeko, ondare historiko-artistikoaren arloko legegian aurreikusitako betebeharrak bete beharko dira.

Era berean, bitarteko alternatiboak sustatuko dira kultur ondarrera iristerik ez dutenek hartaz gozatzeko, hala nola bisita birtualak, audiodeskribapenak eta erreproduzioak.

Erregelamenduz ezarriko dira egokitzapenerako epeak eta baldintzak, baita, beharrezkoa bada, zentzuzko egokitzapena aplikatzekoak ere.

IV. KAPITULUA

Irisgarritasuna garraioan

87. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak errepideko garraio publikoan.

1. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira garraio bideak: bidaiarien garraiorako erabiltzen diren ibilgailuak edo gainerako unitateak, eta zerbitzua emateko behar diren erabilera publikoko eraikinak, nabeak eta eremuak, horiekin lotutako azpiegiturak, instalazioak eta altzariak barne.

2. Bidaiarien garraiorako ibilgailu edo gainerako unitate erosi berriek irisgarritasun unibertsalari buruzko araudian aurreikusitako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

3. Garraioarekin lotutako azpiegiturretara bideratutako eraikin, establezimendu, espazio publiko eta bestelako elementu berriak proiektatu, eraiki eta mantenduko dira halako moduz non bermatuko baita pertsona guztiek baldintza berberetan, modu independentean eta seguruan erabiltzen ahal dituztela, irisgarritasun kognitiboko irizpideen araberrako seinalizazioa eta pertsona guztiek ulertzeko moduko inguruneak barne.

4. Garraio bide publikoen titular diren pertsonen edo entitateen elementuak egoera egokian mantenduko dituzte haien irisgarritasuna bermatzeko.

5. Bidaiarien garraio bide publiko erregularrek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Toki Administrazioaren eskumenekoak direnek, irisgarritasun unibertsala bermatu beharko dute:

a) Azpiegituren parte diren erabilera publikoko barneko eta kanpoko guneetako sarbidean eta erabileretan.

b) Ibilgailuetako eta haien barnean egokitutako eremuetako sarbideetan.

c) Eremu horietan eskaintzen diren erabilera publikoko produktu eta zerbitzuetan, bereziki leihatiletan, erabiltzaileentzako informazio eta komunikazio sistemak barne. Jendearentzako informazio eta arreta guneetan zeinu-hizkuntzako interpreteen eta gida-interpreteen zerbitzua ematea bermatuko da, bertan dauden interpreteekin edo teleinterpretazioa erabilita, bai eta ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak ere, begizta magnetikoak, adibidez, edo aurrerapen teknologikoen ondorioz sortzen diren bestelako laguntza produktuak.

d) Txartelen salmentan, web-orrien edo gailu mugikorretarako aplikazioen bidezkoan.

e) Bidaiarien errepideko garraioaren erabilera orokorreko zerbitzu erregular berriak emateko ezaugarriak ezartzen dituzten plan edo proiektuek irisgarritasun memoria bat izan beharko dute nahitaez, zerbitzua ematean irisgarritasun unibertsala bermatzeko behar diren soluzio teknikoak jasoko dituen.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintza beharrezkoa izanen da, halaber, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu indardunetan egin beharreko aldaketak tramitatzean, baldin eta kontratu horiek trafiko berriei erantzun beharra badakarte.

6. Bidaiariek eskatu ahalako garraio-zerbitzua ematen dutenek azpiegituren irisgarritasun-baldintzak bermatu behar dituzte, baita desgaitasuna dutenen zerbitzua ziurtatuko duten garraio unitateen gutxieneko portzentaje bat ere, erregelamenduz finkatuko dena.

7. Bidaiarien garraio publikoaren zerbitzu erregularra ematen dutenek prestakuntza eman beharko diete langileei desgaitasuna dutenentzako arretari buruz, bai tratuari dagokionez bai laguntza bitartekoen erabilerari dagokionez.

8. Bidaiarien garraio zerbitzu erregularrak adjudikatzeko lehiaketa guztietako baldintza agiritan, desgaitasuna dutenei ibilgailuen erabilera errazteko baldintzak jaso beharko dira, Estatuko oinarritzko araudian eskatzen direnak, gutxienez.

9. Garraibide publikoek bete beharko dituzten irisgarritasun-baldintzak erregelamenduz ezarriko dira, Estatuko oinarritzko araudi aplikagarrian ezarritakoa eragotzi gabe betiere.

88. artikulua. Garraibideetan irisgarritasuna ezartzeko plana.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, bidaiarien garraio publikorako erabiltzen diren garraibideen irisgarritasun unibertsalari buruzko aurreikuspenak mantenduko ditu garraio edo mugikortasun jasangarriaren plangintzan.

89. artikulua. Ibilgailu automobiletarako aparkatxartela, mugikortasun urriko desgaitasuna duten pertsonentzat.

Desgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartela emateko eta erabiltzeko oinarritzko baldintzak arautzen dituen araudian xedatutakoaren mende egonen da aparkatzeko txartelaren ematea eta erabilpena, galarazi gabe foru eta toki araudian jasotako erabilera-baldintzak eta eskubideak, onuragarriagoak badira.

90. artikulua. Garraiorako neurriak.

1. Bidaiarien garraio publikorako ibilgailuetan eremuak erreserbatu eta seinaleztatuko dira gurpil-aulkien erabiltzaileentzat eta mugitzen laguntzeko beste produktu batzuk erabiltzen dituztenentzat, garraiorako segurtasun-baldintzek horretarako aukera ematen badute; horrekin batera, toki batzuk erreserbatuko dira desgaitasuna izan eta laguntzako animaliak erabiltzen dituztenek lehentasunez erabil ditzaten, bat etorri otsailaren 2ko 3/2015 Foru Legearen II. tituluan aurreikusitakoarekin (3/2015 Foru Legea, otsailaren 2koa, Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duena).

2. Erregelamenduz ezarriko da zer populazio-gunetan izanen den gutxienez ibilgailu berezi bat edo taxi irisgarri bat mugikortasun urriko pertsonen joan-etorrien beharrei lehentasunez erantzuteko.

V. KAPITULUA

Irisgarritasuna herritarren eta Nafarroako administrazio publikoen arteko harremanetan

91. artikulua. Herritarren eta Nafarroako administrazio publikoen arteko harremanak.

1. Erregelamenduz ezarriko da zein diren irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren gutxieneko baldintzak, bulego publikoek eta herritarren arreta eta partaidetzarako prozedurek, gailuek eta zerbitzuek bete beharrekoak, giza baliabideei eta bitarteko materialei dagozkienak barne.

2. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituen departamentuan kontsulta elektronikoak egiteko tramiteak edo bideak ezartzen badira, departamentu horrek bermatuko du, betiere, aukera egonen dela desgaitasuna duten pertsonen eskaerak aurrez aurre aurkezteko edo informazioa bertatik bertara lortzeko, hala eskatzen badute.

92. artikulua. Erregistroko eta herritarren arretarako laguntza bulegoetako langileen prestakuntza.

1. Nafarroako administrazio publikoek beren gain hartu beharko dute prestakuntza ematea, herritarrei bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza eta arreta ematen dieten langileek ezagutza egokia izan dezaten pertsona guztiekin aritu eta haiei laguntza emateko.

2. Langile horientzako prestakuntza planetan prestakuntza berariazkoa egonen da desgaitasuna duten pertsonen arreta emateari buruz eta

erabiltzaileek eskuragarri dituzten laguntza produktuen erabilerari buruz; horretarako, espezializazio eta eguneratze programa iraunkorrak ezarriko dira, orokorrak eta desgaitasun mota guztietan aplikatzekoak.

3. Langileei irisgarritasun unibertsalaren arloko prestakuntza emanen zaie, pertsona guztien beharrazanei zerbitzua emateko.

4. Langileei berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza emanen zaie, desgaitasunaren ikuspegitik.

VI. KAPITULUA

Irisgarritasuna komunikazioan, webguneetan eta gailu mugikorretarako aplikazioetan

93. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak komunikazioan.

1. Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute komunikazioko oztupoak deuseztatuak izatea eta komunikazioaren irisgarritasuna ahalbidetzen duten mekanismoak eta alternatiba teknikoak nahiz pertsonen bitartezkoak ezartzea.

2. Era berean, informazioa eskuratzeko modua erraztu beharko diete desgaitasuna dutenei, eta bermatuko dute interes publikoko testuak eta gehien erabiltzen diren inprimakiak irakurketa errazeko formatuan ematen direla, edo braille sisteman, zeinu-hizkuntzan, letra handituan edo aurrerapen teknologikoen poderioz garatzen diren beste sistema batzuetan.

3. Komunikazio eta publizitate kanpaina instituzionalek bermatuko dute informazioa irisgarria dela pertsona guztientzat.

94. artikulua. Irisgarritasuna komunikabide sozialetan.

1. Hedabideek komunikazioaren irisgarritasuna hobetzen duten aurrerapenak eta sistema berriak txertatzen joan beharko dute erabiltzen dituzten informazio eta komunikazio teknologietan.

2. Foru Komunitateko Administrazioak, ikus-entzunezko komunikazioaren arloko legedia berriazkoan, telebistako ikus-entzunezko edukien irisgarritasun-baldintzak arautuko ditu, azpitiuluak, audiodeskribapenak eta zeinu-hizkuntzako interpretazioa ezarri horretarako.

3. Ikus-entzunezko hedabideek audio-deskribapenerako, azpitiuluetarako eta zeinu-hizkuntzako interpretaziorako sistemak abiarazi beharko dituzte, beren programazioa irisgarri egiteko.

4. Nafarroako administrazio publikoek sustapen-lana eginen dute lan zinematografikoak eta

ikus-entzunezkoak banatzen dituzten enpresak azpitiuluetarako eta audiodeskribapenerako sistemak txertatzen joan daitezten, eta, banaketa digitalaren kasuan, baita audionabigaziorako sistemak ere.

95. artikulua. Irisgarritasuna Nafarroako sektore publikoaren webguneetan eta gailu mugikorretarako aplikazioetan.

1. Informazioaren eta telekomunikazioen gizar-tearen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua bermatuko dituzte sinadura elektronikoan eta weborrien zein gailu mugikorretarako aplikazioen sARBIDEAN; honakoetan, adibidez: administrazio publikoetan, zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten erakunde eta enpresetan eta diseinurako edo mantentze-lanetarako finantzaketa publikoa jasotzen duten webguneetan, Estatuko oinarriko araudiaren esparruan.

2. Nafarroako administrazio publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek horietarako sARBIDE elektronikoa bermatuko dute, eta Internet bidez zerbitzu horiei buruz ematen duten informazioak irisgarria izan beharko du.

3. Aurreko apartatueta aipatzen diren weborriek foru lege honetan ezarritako irisgarritasun maila bete beharko dute pixkanaka, eta aldianaldian irisgarritasunari buruzko adierazpen bat eman eta eguneratu beharko dute, zehaztua, osotasunezkoa eta argia, beren webguneek eta gailu mugikorretarako aplikazioek maila hori betetzen dutela adierazteko, eta irisgarritasun-baldintzen azken berrikuspenaren dataren berri emateko.

4. Irisgarritasunari buruzko adierazpena formatu irisgarrian emanen da, erregelamenduz ezarritako ereduari jarraituta. Nolanahi ere, Estatuko oinarriko araudian ezarritako gutxieneko baldintzak errespetatuko dira.

5. Nafarroako administrazio publikoek zainduko dute informazio irisgarriaren eskaera edo kexa baten aurrean erreklamazioa jartzeko prozedura egokia eta eraginkorra dela, irisgarritasun unibertsala bermatzeko, eta jasotako komunikazioak eta eskaerak modu eraginkorrean tratatu daitezten, eta ebaluatu ahal izateko foru lege honetan ezarritako irisgarritasun-baldintzak bete beharrik noiz eta noraino ezartzen duen neurritz kanpoko zama bat. Erregelamenduz arautuko da prozedura hori, Estatuko oinarriko araudiari jarraituz.

6. Nafarroako administrazio publikoek aldianaldian egiaztatuko dute webguneek eta gailu mugikorretarako aplikazioek betetzen dituztela

foru lege honetan ezarritako irisgarritasun-baldintzak. Erregelamenduz ezarriko dira bai betetze horren jarraipena egiteko metodologia bai jarraipenaren emaitzari buruzko txostenaren edukia.

7. Nafarroako administrazio publikoek prestakuntza programak sustatu eta emanen dizkiete beren langileei webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruz; prestakuntza programa horiek webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen eduki irisgarriak sortu, kudeatu eta eguneratzeko diseinatutakoak izanen dira. Horrekin batera, neurriak hartuko dituzte foru lege honetan ezarritako irisgarritasun-baldintzei buruz kontzientziatzeko, baita webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabiltaileentzat nahiz jabeentzat dituzten onurei buruz eta aurreko apartatuan adierazitako irisgarritasun-baldintzak bete ezean ohartarazpena egiteko mekanismoaz ere.

8. Nafarroako administrazio publikoek sensibilizazio, kontzientziazio, zabalkunde, hezkuntza eta, batez ere, prestakuntza neurriak sustatuko dituzte irisgarritasun unibertsalaren arloan, aurreko apartatuan aipatutakoez gain, beste web-orri batzuen titularrak ere pixkanaka irisgarritasun irizpideak txertatzen joan daitezzen lortzeko.

VII. KAPITULUA

Irisgarritasuna produktu eta zerbitzuetan

96. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak produktuetan.

Nafarroako administrazio publikoek produktu irisgarriak bermatu beharko dituzte eskaintzen dituzten zerbitzuetan, eta exijitu beharko dute produktu horiek kanpora ateratako zerbitzuetan ere eskura egotea. Azken kasu horretan, administrazio publikoek zainduko dute zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresek, entitateek eta erakundeek baldintza hori betetzen dutela.

97. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak zerbitzu publikoetan.

1. Nafarroako administrazio publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek zerbitzu irisgarriak eskaini beharko dituzte, bai erabilerari dagokionez bai horiei buruz ematen den informazioari dagokionez.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira irisgarritasun-baldintzak jendearen eskura dauden zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko eta haiei buruz ematen den informaziorako; informazioa, betiere, irakurketa errazeko formatua, braille sistema, zeinu-hizkuntza, letra handitua edo sistema alternatiboak erabiliz emanen da.

3. Erabilera publikoko zerbitzu sortu berriak ematen dituztenek irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatu beharko dituzte, pertsona guztiek berdintasunez erabil ahal izan ditzaten, desgaitasunean oinarritutako diskriminaziorik gabe.

4. Lehendik dauden erabilera publikoko zerbitzuak ematen dituztenek behar diren neurriak hartuko dituzte ahalik eta irisgarritasun-baldintzarik hoberenak lortzen joateko pixkanaka, doikuntza arazoizkoen printzipioarekin bat betiere. Erregelamenduz ezarriko da zein diren egokitzapen beharrezkoak eta zein den haiek ezartzeko epea.

5. Nafarroako administrazio publikoek zaindu beharko dute kudeaketa azpikontratatuta duten zerbitzuek betetzen dituztela erregelamenduz ezarritako dauden irisgarritasun unibertsalerako baldintzak. Kasu horretan, zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresek, entitateek eta erakundeek baldintza horiek bete beharko dituzte.

6. Erabilera publikoko zerbitzuek jendearen eskura izan beharko dute agiri bat, zerbitzuaren irisgarritasun-baldintzen berri ematen duena. Erregelamenduz ezarriko dira agiri horren edukia, ezaugarriak eta tramitazioa.

7. Nafarroako administrazio publikoek eta zerbitzu publikoak ematen dituztenek beren web-orrietan adierazi beharko dute zein diren ematen dituzten zerbitzuen irisgarritasun baldintzak eta eskuragai dauden laguntza-bitartekoak, eta esparru guztietan sustatu beharko dute irisgarritasun-beharrizan berariazkoak dituzten, batetik bestera joateko zailtasunak dituzten edo arreta presentziala jaso ezin duten pertsonetik harremana errazten duten informazio eta komunikazio teknologien erabilera.

VIII. KAPITULUA

Irisgarritasuna Justizia Administrazioan eta Nafarroako hauteskunde prozesuetan

98. artikulua. Irisgarritasun-baldintzak Justizia Administrazioan eta Nafarroako hauteskunde prozesuetan.

1. Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua sustatuko ditu justiziaren arloan. Horretarako, neurriak hartuko dira egoitza judizialak eta bertako komunikazioa eta informazioa irisgarriak izan daitezzen pertsona guztientzat, besteak beste, begizta magnetikoak jarriz judizio-aretoetan, edo zeinu-hizkuntzaren interpreteak eta gida-interpreteak jarriz, presentzialak nahiz urrutiko interpretazioaren bidezkoak, edo braille sistemak eta irakurketa errazeko sistemak erabiliz informazioan eta seinalizazioan, bai eta laguntza

pertsonala ere, prozesu osoan.

2. Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, bermatuko du desgaitasuna duten pertsonen Nafarroan egiten diren hauteskunde prozesuetan parte hartzeko aukera dutela.

VIII. TITULUA

Desgaitasuna dutenen arreta eta partaidetza antolatzea

I. KAPITULUA

Jarduketa publikoak

99. artikulua. Diagnostikoa eta plangintza.

1. Nafarroako administrazio publikoek, Nafarroako desgaitasunari buruzko plan integral edo toki-ko plan bakoitza egin aurretik, diagnostiko bat egiten dute desgaitasunak Nafarroan edo beren eskumenen tokiko esparruan duen egoerari buruz.

2. Desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako lehenetarako jarduketa guztietarako, foru lege honetan xedatutakoaren esparruan egiten direla aurreikusten bada, foru mailako erabateko plangintza bat egin beharko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak; toki entitateek, berriz, toki mailako plangintza bat egiten dute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako gutxienekoak errespetatuz betiere.

Erabateko plangintza horrek derrigorrean jaso beharko du plangintza berariazkoa desgaitasuna duten pertsonak beren etxeetan edo ingurunerik hurbilenetan gera daitezkeen bermatzeko zerbitzu edo baliabide berriak sortzeko.

Nafarroako toki entitateek, beren planak egiteko, txostena edo laguntza eskatzen ahalko diote gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituen departamentuari edo arlo horretako plangintzarekin zerikusia duten eskumenak dituzten departamentuei.

3. Foru lege honetan ezarritako printzipioen arabera arautuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroan desgaitasuna dutenen eskubideak zaindu eta bermatzeko planifikatzen dituen politiken edukia, eta, gainera, printzipio hauetan ere oinarrituko da: erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, inklusioa, esku-hartze normalizatua, aniztasuna, erakundeen arteko lankidetzak, elkartasuna eta parte-hartzea, bai eta foru lege honetan aurreikusitako gainerakoetan ere. Genero-ikuspegiarekin egiten da, eta politika horien jarraipena eta ebaluazioa datuak sexuaren arabera bereizita egitea ahalbidetuko duten helburuak eta adierazleak zehaztuta.

100. artikulua. Ebaluazioa.

1. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumeneko esparruetan, ebaluazio sistema bat izanen dute foru lege honetan aurreikusitako jarduketak garatzeko sortutako baliabide, zerbitzu eta prozedura espezifikoaren eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko. Sistema horren bidez bermatuko da kasuan kasuko planen ebaluagarritasuna, bai eta Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko eta horien eskubideak bermatzeko politiken planena ere. Horretarako, kontuan hartuko da Nafarroako Foru Komunitateko politika publikoen ebaluagarritasun protokoloan edo helburu bera bermatzen duten beste protokolo batzuetan ezarritakoa.

Nafarroako toki entitateek protokolo horri buruzko informazioa eskatzen ahalko diote gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuari, nahiz eta horri buruzko publikitate aktiboa ere egiten den, gardentasunari buruzko foru araudiarekin bat.

2. Plangintzan jasotakoaren jarraipen eta ebaluazio egokia bermatzeko:

a) Errealitate sozialaren behaketaren eta jarraipenaren arloan eskumenak dituen departamentuaren ardura izanen da ebaluaziora bideratutako jarraipen sistema bat diseinatzea, genero-ikuspegi-duna, eta urteko jarraipen txostenak emanen ditu foru mailako plangintza integralerako.

b) Ebaluaziora bideratutako jarraipen sistemak adierazleak izanen ditu gauzatzea, emaitza eta inpaktua neurtzeko, gutxienik ere honakoen ebaluazio irizpideak barne hartuta: parte-hartzea, iris-pidea, estaldura, eraginkortasuna, efizientzia eta inpaktua, eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren Politika Sozialen Ebaluazio Gidan jasotako irizpideak edo horretarako onesten eta zabalitzen diren beste batzuetakoak erabiltzen ahalko dira; Nafarroako toki entitateek horiei buruzko informazioa eskatzen ahalko dute, nahiz eta horiei buruzko publikitate aktiboa ere egiten den, gardentasunari buruzko foru araudiarekin bat.

Jarraipen sistemak sexuaren arabera bereizitako datuak izanen dituzte, eta kontuan hartuko dute zer alde dagoen neurrien eraginean desgaitasuna duten pertsonen sexuaren arabera.

c) Gizarte-zerbitzuen arloan eskumenak dituen departamentuko unitateek eta erakundeek, errealitate sozialaren behaketa eta jarraipenaren ardura duen erakunde edo unitatearekin elkarlanean, zehaztuko dituzte ebaluazio galderak eta haien tipologia eta diseinua; horrez gain, prozesua koordinatu eta gainbegiratzeaz ere arduratuko dira, eta

haiek adieraziko dituzte, aipatutako erakunde edo unitatearen bitartez, aurreko artikuluan jasotzen den Foru Komunitateko plangintzari dagozkion emaitzak, ondorioak eta gomendioak; Nafarroako toki entitateei ere laguntzen ahalko diete haienak prestatzen.

d) Aurreikusitako ekintzen ardura duten erakundeak edo unitateak identifikatuko dira, zeinak beharurik egonen baitira, organo eskudun bakoitzeko titularraren bidez, egindakoaren, ez egiteko arrazoiaren eta egiteko aurreikuspenen berri ematera, bai eta hori jakinaraztera ere, hala badagokio, planak indarrean jarraitzen duen bitartean erakunde, organismo edo unitateen ardura edo titulartasuna beren gain hartzen dutenei.

e) Jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa eta txostenak jakinaraziko dira, horretarako erabiliz titulu honetako II. kapituluko partaidetza-mekanismoak eta parte-hartze demokratikoari buruzko araudia aplikatuz garatutako partaidetza-bideak, eta horri buruzko ekarpenak jasotzeko bitartekoak jarriko dira.

Dibulгатutako ebaluazio txosten eta informazioetan sartuko dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideekin zerikusia duten arau-hausteak buruzko kexak, honako hauetan jasotakoak:

– Aukera Berdintasunerako Arbitraje Bartzordean.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, foru lege honen bigarren xedapen iragankorraren arabera.

– Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuan, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Bartzordeari Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren ezbetetzeen berri ofizialki eman behar dion erakundearen aldetik.

101. artikulua. Informazioa, zabalkundea eta azterlanak.

1. Jarduera estatistikoa planifikatzeko estrategian bermatuko da arreta berezia jartzen zaiola desgaitasunari, eta aldagai gisa sartuko da.

2. Errealitate sozialaren behaketaren eta jarraipenaren arloan eskumenak dituen departamentuak azterlanak eta ikerketak eginen ditu Nafarroan desgaitasuna dutenen egoerari buruz, barne direla diskriminazio egoerak atzematearekin eta gorroto-delituen balizko gorakadaren zainketarekin zerikusia dutenak, eta desgaitasunarekin lotutako gaiei buruz informazioa eman eta zabaltzeko

mekanismoak izanen ditu, baliabide digital irisgarriak barne.

3. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak jarduketak egin eta mekanismoak aurreikusiko ditu, desgaitasuna dutenek beren eskubideak eta eskubide horiek egikaritzeko eta babesteko dituzten bideak ezagut ditzaten.

4. Errealitate sozialaren behaketaren eta jarraipenaren arloan eskumenak dituen departamentuak berrikuntza soziala eta teknologikoa sustatuko ditu desgaitasuna dutenei zerbitzuak emateko orduan. Halaber, ekimenak sustatuko ditu konponbide teknologikoz landu daitezkeen beharrak antzemateko sektore horretan, sektoreko ordezkarien parte-hartzearekin; horrez gain, teknologia berrien erabilerari lotutako enplegu-nitxoak, zenbait pertsona eta desgaitasun motarentzat egoiak, atzemateko ekimenak ere sustatuko ditu.

102. artikulua. Prestakuntza.

1. Nafarroako administrazio publikoek prestakuntza-planak eskaini beharko dizkiete beren langileei, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta irisgarritasunari buruzkoak, 92. artikuluan aurreikusitakoaz gain.

2. Foru Komunitateko eragile juridikoen artean sustatuko da desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haientzako laguntza ematearen gaineko prestakuntza jasotzea.

3. Prestakuntza horrek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko prestakuntza jasoko du, desgaitasunaren ikuspegitik.

II. KAPITULUA Parte-hartzea

1. atala

Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua

103. artikulua. Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluko kide izanen dira, gutxienez:

a) Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko titularrak libreki izendatutako bi pertsona, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen artean hautatuak.

b) Enpleguaren arloan eskumena duen departamentuak edo erakundeak libreki izendatutako pertsona bat.

c) Hezkuntzaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak libreki izendatutako pertsona bat.

d) Osasunaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak libreki izendatutako pertsona bat.

e) Kultura eta kirol arloan eskumena duen departamentuko titularrak libreki izendatutako pertsona bat.

f) Toki entitateen ordezkari bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatua.

g) Desgaitasun mota guztiak (desgaitasun sensoriala, fisikoa eta organikoa, intelektuala edo garapenarena eta nahasmendu mentala) barne hartzen dituzten erakunde nagusien zazpi ordezkari, erakunde horiek izendatuak, desgaitasun mota guztien ordezkariak ziurtatzeko.

h) Nafarroako Berdintasunerako Institutuko pertsona bat.

2. Egitura eta osaerarekin lotutako gainerako alderdiak erregelamendu bidez ezarriko dira.

104. artikulua. Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluaren eginkizunak.

Honako eginkizun hauek izanen ditu Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluak:

a) Irizpenak eta txostenak ematea, nahitaezkoak eta ez-lotesleak, herritarren sektore horren inklusioa lortzera bideratutako politika eta jarduketan planifikazioarekin, gauzatzearekin eta jarraipenarekin zerikusia duten arau-proiektuei buruz.

b) Desgaitasuna duten pertsonen edo haien elkarte, erakunde, zentro eta zerbitzuei dirulaguntzak eta laguntzak emateko urteko deialdien gaineko informazioa jasotzea.

c) Nahitaezko txostenak ematea gizarte jarduketako esparru horretako plan sektorialeko buruz, eta horien aplikazio eta gauzatze mailaren jarraipena egitea.

d) Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren aplikazioari eta betearazpen mailari buruzko proposamenak egitea, desgaitasunaren arloan.

e) Desgaitasuna duten pertsonen buruzko jarduketara proposamenak egitea, eta, hala dagokionean, Nafarroako administrazio publikoari eta gizarte jarduketako esparru horrekin lotutako erakunde, instituzio eta entitate publiko eta pribatuei bidaltzea.

f) Desgaitasuna dutenen giza eskubideen arloko nazioarteko tresna juridikoak sustatzea Nafarroako Foru Komunitatean eta haien jarraipena egitea.

g) Desgaitasuna dutenen eta haien familien egoera orokorra, beharrak, eskariak eta etorkizuneko joerak ezagutu, aztertu eta horien berri zabaltzea. Halaber, gizarteko errealitate horren bilakaerari buruzko azterlanak eta aurrera begirako ikerketak egitea.

h) Desgaitasunaren arloko politika publiko eta pribatuen esparruan jardunbide onak eta ekimen gomendagarriak ezagutaraztea.

i) Desgaitasunaren esparruan ikerketa, prestakuntza, berrikuntza, etika eta kalitate jarduerak bultzatzea.

j) Legeek eta erregelamenduek edo Nafarroako Gobernuak arlo horretan esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak.

k) Foru lege hau eta bera garatzen duten erregelamenduzko xedapenak bete daitezzen sustatzea.

l) Foru lege honen betetzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.

m) Aztertu eta biltzea teknika arloko aurrerapenak nahiz foru lege honen eta bere erregelamenduen aplikazioaren ondorioz jasotako iradokizunak, bai eta legearen xedea betetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak har daitezzen bultzatzea ere.

2. atala

Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua

105. artikulua. Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua.

1. Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Orentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseilua parte-hartzean oinarritutako organo bat da, lehendakari izango den eskumena duen departamentuari atxikia, irisgarritasunaren arloko araudiaren arloan kontsulta, interpretazio, jarraipen eta kontrol eginkizunak dituena; bertan Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak egonen dira ordezkaturik, eta, horiez gainera, ordezkari handieneko elkarteak, desgaitasuna dutenen eskubideak defendatzeko helburua dutenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak eta inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo ematen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak.

2. Kontseiluko burua lehendakari izango den departamentuko titularrak izanen da eta, horrez gain, kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat, gutxienez ere zuzendari nagusiaren maila izanen duena, Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzeko. Edozein kasutan ere, lehendakari-tzako eskumena duen zuzendari nagusia kontseiluko kide izanen da, eta idazkari lanak beteko ditu.

b) Administrazio elektronikoaren arloan esku-mena duen zuzendari nagusia.

c) Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren ordezkari bat.

d) Desgaitasuna dutenen arloan ordezkari-tza handienekoak diren irabazi-asmorik gabeko erakundeek lau ordezkari. Ordezkaritza handieneko erakundeak dira halakoak direnak bai kuantitatiboki, kide gehien dituztenak izateagatik, bai kualitatiboki, dauden desgaitasun mota desberdinetatik gehiago biltzeagatik.

e) Kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarte nagusien bi ordezkari.

f) Inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarleen hiru ordezkari.

g) Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.

3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Aginduzko txostenak ematea irisgarritasunaren arloko foru lege aurreproiektuez eta erregelamenduzko xedapenen proiektuez.

b) Aztertzea eta jasotzea bai teknikaren aurre-rapenak bai irisgarritasun unibertsalaren alorrean foru lege honek ezartzen duena aplikatzearen ondorioz jasotako iradokizunak.

c) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege honen aplikazio esparruetako ingurune guztietan irisgarritasun unibertsalaren eta ororentzako diseinuaren baldintzak betetzeari dagokionez, eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko organoei bidezkoa den zehapen espedientea abiaraz dezatela proposatzea.

d) Urtero txosten bat egitea foru lege honetan irisgarritasun unibertsala dela-eta jasotzen diren xedapenen betetze-mailari buruz. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari bidaliko zaio.

e) Bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua onestea eta aldatzea.

3. atala

Pertsonarengan zentratutako arretarako sareari sostengu emateko batzordea

106. artikulua. Pertsonarengan zentratutako arretarako sareari sostengu emateko batzordeko ordezkari-tza.

Pertsonarengan zentratutako arretarako sareari sostengu emateko batzordean, gutxienez ere bi kide izendatuko dituzte desgaitasuna dutenei arreta ematen diharduten eta pertsonarengan zentratutako ikuspegia, ekintzak eta arreta ereduak dituzten zentroak edo zerbitzuak kudeatzen dituzten pertsonak edo erakundeek, eta beste bi kide, berriz, nahasmendu mentala dutenei arreta ematen dihardutenek.

4. atala

Parte hartzeko beste organo edo modu batzuk

107. artikulua. Osasunarekin eta gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten organoetan parte hartzea.

1. Osasun arloko foru araudian aurreikusitako parte-hartze sozialeko organoetan desgaitasuna dutenen ordezkariak sartuko dira.

2. Laguntza emanen zaie, zenbait mekanismoen bidez (adibidez, dirulaguntzen deialdiak) irabazi-asmorik gabeko erakundeek, desgaitasuna dutenei arreta ematea badute xede, eta elkarrekiko laguntzako eta osasunaren prebentzio eta sustapenerako programak garatzen badituzte desgaitasuna dutenentzat edo haien familientzat.

3. Bultzatuko da osasun-zentroetan, gizarte-zerbitzuen zentroetan edo zentro soziosanitarioetan dauden partaidetza-organoeetan sar daitezen desgaitasuna duten pertsonak eta haien senideak edo hurbilekoak, boluntarioak edo sostengua ematen dieten lagunak, edo, modu alternatibo edo osagarrian, kide horiek dituzten taldeak, haien parte hartze eta integrazioarako lagungarri eta pizgarri izan daitezen.

108. artikulua. Parte hartzeko beste organo batzuekiko esku-hartzea.

Desgaitasuna duten pertsonen ordezkari-tzarik ez duten parte-hartze sozialeko organoetan, desgaitasuna dutenei zuzenean eragiten dieten gaiak jorratzen dituztenean, hartutako erabakien berri eman beharko diete Nafarroan ordezkari-tza handiena duten desgaituen elkarleen federazioei.

5. atala

Nafarroako Gizarte Arretaren Etika Batzordea

109. artikulua. Nafarroako Gizarte Arretaren Etika Batzordearen aurreko jarduketak.

Desgaitasuna edo nahasmendu mentala duten pertsonak artatzen dituzten gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileek, haien familiek edo ordezkariak, bai eta gizarte-zerbitzu horietako profesionalek eta zentro, zerbitzu eta erakundeetako zuzendaritzaz eta kudeaketaz arduratzen diren pertsonak ere, kontsultak edo jarduketak susta ditzakete Nafarroako Gizarte Arretaren Etika Batzordearen edo Desgaitasunaren arloko Etika Batzorde Sektorialaren aurrean, beren eskumeneko laguntza-jardunari loturik, pertsonak beren nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea izateko duten eskubideari buruz, inolako diskriminaziorik gabe, bai eta praktika sozialaren alderdi etikoak identifikatu, aztertu eta ebaluatzearekin zerikusia dutenei buruz ere.

6. atala

Desgaitasuna duten haurren eta nerabeen parte-hartzea

110. artikulua. Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluan sartzea.

Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluan sartuko dira desgaitasuna duten haurrak edo nerabeak. Organo hori Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko foru legedian dago aurreikusia.

111. artikulua. Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluarekiko eta beste batzuekiko harremana.

Desgaitasuna izan eta Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluko kide den haur bat, gutxienez, Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluan parte hartzera gonbidatuko da, bai eta foru lege honetan aurreikusitako organo aholku-emaitzetan parte hartzera ere, haurtzaroiari eta desgaitasunari eragiten dioten gaiak jorrazten dituztenean eta desgaitasuna duen adingabe bat organo horietako kide ez denean.

7. atala

Xedapen komunak

112. artikulua. Emakumeen eta gizonen, nekatoen eta mutikoen ordezkariak parekatua.

Administrazio publikoek sustatuko dute emakumeak eta neskek proportzio orekatuan egon daitezela kapitulu honetan aurreikusitako partaidetza-organoetan.

Oreka hori bermatzerik ez dagoenean, bermatuko da pertsona bat egonen dela gutxienez, kidea edo aholkularia, parte hartu beharreko gaietan aditua eta genero-berdintasunaren arloko prestakuntza duena.

113. artikulua. Desgaitasuna duten pertsonen presentzia sustatzea.

Administrazio publikoek eta desgaitasunaren arloko entitateek, partaidetza-organoetan ordezkariak daudenean, sustatuko dute desgaitasuna duten pertsonak foru lege honetan aurreikusitako partaidetza-organoetan sartzea edo horietara joatea.

IX. TITULUA

Bitartekaritza eta arbitrajea

114. artikulua. Bitartekaritza.

1. Desgaitasuna duten pertsonak, kasuaren arabera beharrezkoak diren laguntzak erabiliz, dituzten desadostasunak beren borondatez aurkezten ahal dituzte bitartekaritza-prozedura batean aztertuak izateko, akordio bat lortzearren.

Aukera hori ezin izanen da erabili emakumeen kontrako indarkeria barne hartu duten urraketen kasuetan.

2. Bitartekaritzaren arloko araudiarekin bat, bitartekaritza prozedurek desgaitasuna dutenen aukera-berdintasuna bermatu beharko dute, foru lege honetan eta irisgarritasun unibertsalaren arloan indarra duen araudian aurreikusitakoarekin bat. Bereziki bermatu beharko dira inguruneen irisgarritasuna, zeinuen hizkuntzaren eta ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoen erabilera, braille sistemarena, ukimenezko komunikazioarena edo beste edozein bitarteko edo sistemarena, desgaitasuna duten pertsonak prozesuan osoki eta berdintasunez parte hartzen dutela ziurtatzeko.

3. Aldeek adosten dutenean sistema elektronikoak erabiltzea bitartekaritza prozeduran, sistema horiek foru lege honetan eta informazio gizartearen zerbitzuen arloan indarra duen araudian aurreikusitako irisgarritasun-baldintzak bete beharko dituzte.

4. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ahalegina eginen da jendeak jakin dezan bitartekaritza existitzen dela desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien arteko gatazkek kudeatu eta konpontzeko mekanismo gisa. Nafarroako Gobernuak, helburu horrekin, bitartekaritza zerbitzu publiko eta inpartziala emanen du desgaitasuna dutenentzat.

115. artikulua. Arbitrajea.

Alderdiek beren burua arbitraje sistemaren esanetara jartzea borondatezkoa izanen da, eta espresuki geratuko da jasota, idatziz.

Honako hauek egonen dira arbitraje-organoetan: interesa duten sektoreen ordezkariak, desgai-

tasuna duten pertsonen eta beren familien erakunde nagusien ordezkariak, eta, zein bere eskumenen esparruan, administrazio publikoen ordezkariak; arbitraje batzordearen izaera izanen dute.

Abenduaren 1eko 1417/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat, Nafarroan arbitraje batzorde bat eratuko da, aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren arlokoa, arbitraje sistemaren kudeaketa eta administrazioarako kide anitzeko organoa izateko.

Foru lege honen 4. artikuluan aurreikusitako esparruetan irisgarritasun unibertsalaren arloan sortzen diren kexa eta erreklamazioak izanen dira arbitraje sistemaren xedea.

116. artikulua. Arbitraje sistema onartzea eta hari uko egitea.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arbitraje sistemaren mende jartzea eta hari uko egitea abenduaren 1eko 1417/2006 Errege Dekretuaren III. kapituluaren ezarritakoaren arabera izanen da. Errege dekretu horren bidez ezarri zen desgaitasunarekin lotutako aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasunaren arloan kexak eta erreklamazioak ebazteko arbitraje sistema.

117. artikulua. Arbitraje prozedura.

Irisgarritasun unibertsalaren arloko arbitraje prozedurak abenduaren 1eko 1417/2006 Errege Dekretuaren V. kapituluaren aurreikusitakoa bete beharko du.

X. TITULUA Zehapen araubidea

118. artikulua. Zehapen araubidea.

Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsalaren arloan babes osoa dutela bermatze aldera, Nafarroan aplikatuko den zehapen araubidea Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean ezarritakoa izanen da. Testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

Lehen xedapen gehigarria. Foru lege honek irisgarritasunaren arloan xedatutakora egokitzeko jarduketa plana.

Foru lege honen ondoriozko betebeharrak guztiak betetzeaz gain, Nafarroako Gobernuaren departamentuek, edota departamentuen arteko politiken koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuak, Nafarroako Gobernuaren izenean, irisgarritasun unibertsalaren arloko jarduketa plan bat

aurkeztuko dute Nafarroako Parlamentuan, eta bertan finkatuko dira irisgarritasun unibertsalerako eta ororentzako diseinurako eskubidearen inguruan egun dauden gabeziak ahalik eta eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki-erakundeek egokitzeko plan integralak onestea.

Foru lege honen ondoriozko betebeharrak guztiak betetzeaz gain, Nafarroako toki entitateek irisgarritasunaren arloko jarduketa plan integralak onetsi edo osatuko dituzte. Plan horietan, foru lege honen aplikazio-eremua osatzen duen araudi osoa eta errealitate objektiboa aztertuko dira, bertan ezarritako irisgarritasun unibertsalari neurritara pixkanaka egokitzeko, edo, kasua bada, arazoizko egokitzapenak egiteko, eta hartu beharreko neurriak, egutegia eta horretarako behar diren zenbateko ekonomikoak finkatuko dira. Horrez gain, 99. artikuluan arabera ezartzen diren alderdiak garatuko dituzte, gutxienez, beren plangintzan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Egokitzapen terminologikoak.

1. Foru araudian “desgaituak”, “minusbaliatuak” edo “urrituak” aipatzen direnean, “desgaitasuna duten pertsonak” aipatzen direla ulertuko da, eta foru araudian “ezgaituak” edo “judizialki aldatutako gaitasuna duten pertsonak” aipatzen direnean, “beren gaitasunaz baliatzeko laguntza behar duten pertsonak” aipatzen direla ulertuko da.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzako tutoretzapeko zentroi edo zerbitzuei buruzko aipamen guztiak intentsitate handiko laguntzak dituzten zentro edo zerbitzuei buruzkoak direla ulertuko da, eta gizarte-zerbitzuen zati bat identifikatzeko egiten diren “gaixotasun mentalen” aipamen guztiak “nahasmendu mentalari” edo “osasun mentaleko nahasmenduari” egiten zaizkiola ulertuko da.

3. Desgaitasuna duten pertsonen edo haiek ordezkatzeko dituzten entitateek haiei buruzko terminologia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egindako dokumentazioan jasota dagoena, berrikusteko proposatzen ahalko diote gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuari, hark berrikus dezan eta dagokion egokitzapen terminologikoa proposa diezaien bere unitate edo erakundeei edo beste departamentu batzuei.

Laugarren xedapen gehigarria. Sostengu fiskalaren alorreko neurriak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak progresibitate-irizpideen arabera tributu-neurriak hartuko ditu desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat, haien desgaitasunaren ondoriozko gainkostuak samurtzen laguntzekoak.

Bosgarren xedapen gehigarria. Gerora etorritako desgaitasunen bat izanez gero enpleguari eusten lagunduko duten neurriak bultzatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, erakunde edo administrazio eskudunen aurrean, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ezarritako moduan, legedia aldatzea edo egokitzea sustatuko du, gerora etorritako desgaitasuna duten pertsonak lanean eta pentsioa jasotzen egotea hein batean eta aldi baterako bateragarriak izan daitezela ahalbidetzeko, lanpostura urratsez urrats itzultzea errazteko.

Seigarren xedapen gehigarria. Mota desberdinetako enplegu-zentro berezien kalifikazioa eta inskripzioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ekimen sozialeko enplegu-zentro berezi gisa kalifikatuko eta inskribatuko ditu bere eskumenen esparrukoak direnak, hala eskatzen badute eta kontratu publikoei buruzko foru araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Onura publikoko eta ezinbesteko enplegu-zentro berezi gisa kalifikatuko eta inskribatuko ditu bere eskumenen esparrukoak direnak, hala eskatzen badute eta enplegu-zentro bereziei buruzko Estatuko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, Nafarroako Foru Komunitatean eskumenak dituen enplegu-zerbitzu publikoak ezartzen eta argitaratzen dituen parametroen arabera.

3. Irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezi gisa kalifikatuko eta inskribatuko ditu bere eskumenen esparrukoak direnak, hala eskatzen badute eta Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako Itun Sozialak arautzen dituen azaroaren 16ko 13/2017 Foru Legearen 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Zentro okupazionalen plazarak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko du Nafarroako Foru Komunitateko zentro okupazionalen badaudela behar beste plaza desgaitasuna duten pertsonentzat, plaza horiek behar bezala banatuta daudela lurraldean eta esparru okupazionalen aniztasuna egokia dela; horretarako, dagozkion

lankidetzak-hitzarmenak sinatuko ditu zerbitzuok ematen dituzten entitateekin.

2. Gizarte zerbitzuen alorreko eskumenak dituen departamentuak ezarri beharreko mekanismoak ezarriko ditu ziurtatzeko betetzen direla zerbitzurako sarbideari buruzko arauak, zerbitzu hori balia dezaketen pertsona guztiek arreta egokia jasotzen dutela eta arreta hori ematean dagozkion laguntzak erabiltzen direla pertsona ardatz duen arreta-ereduari jarraikiz.

3. Gizarte zerbitzuen alorreko eskumenak dituen departamentuak lantalde bat eratuko du, profil, programa, erratio eta profesional desberdinak finkatzeko baliabidea darabilten desgaitasuna duten pertsonen izaten ahal dituzten tipologiaren arabera.

4. Zentro okupazionalen zahartze aktiboaren esparruan gauzatzen dituzten programak ere sustatuko ditu gizarte zerbitzuen alorreko eskumenak dituen departamentuak.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluaren osaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, gutxienez ere, desgaitasuna duten bi haur eta nerabe batuko ditu Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseilura. Kontseilu horren eraketa Nafarroako parte-hartze demokratikoari buruzko foru legedian dago aurreikusia.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Familia-unitateen errentaren haztapena, desgaitasuna duten pertsonen egoteagatik, familientzako politiken esparruko laguntzen ondorioetarako.

Familientzako politiken arloan eskumena duen departamentuak, desgaitasuna duten pertsonen entitateen ordezkari handiena duen erakundeari proposamen bat helarazi ondoren, koefiziente bat hartuko du kontuan familientzako politiken esparruan ematen diren laguntzetan, baldin eta laguntza horiek jasotzeko aukera familia-errentaren mailak baldintzatzen badu edo maila horrek laguntzen zenbatekoa zehaztean eragina badu. Koefiziente horren arabera, desgaitasuna duen kideren bat duten familia-unitateen errenta murriztu egingen da desgaitasuna duten kideen kopuruaren proportzioan.

Hamargarren xedapen gehigarria. Sariak desgaitasuna duten pertsonentzako zentro okupazionalen.

Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak, modu parte-hartzailean, irizpide orientagarri batzuk ezarriko ditu bere eskumeneko

lurralde-eremuk zentro okupazionaletan ezartzen diren sarien zenbatekoa zehazteko.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Dokumentazio elebidunaren euskarria, irakurketa errazeko formatuan.

Bi euskarritan jartzen ahalko dira euskararen foru araudiaren arabera edo hura garatzen duenaren arabera bertsio ofizialean euskarri bakarrean egon behar duten dokumentuen irakurketa errazeko bertsioak.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Foru legearen irisgarritasuna.

Onetsia izan ondoren, foru lege hau eskainiko da irakurketa errazeko formatuan, braille sisteman, zeinu-hizkuntzetan, letra handituan eta/edo testua ororentzako irakurgarri eginen duen beste edozein formatutan.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Genero-indarkeriaren biktimen arretaren esparruko irisgarritasuna.

Foru administrazioak bermatuko du larrialdietako zentroak, harrera-etxeak, egoitza-pisuak eta genero-indarkeriaren biktimen arretarako den beste edozein zentro eta zerbitzu erabat irisgarriak izatea, bai eraikinei dagokienez bai emandako arreta profesionalari dagokionez, desgaitasuna duten emakume guztientzat, desgaitasuna edonolakoa dela ere.

Lehen xedapen iragankorra. Erregelamenduzko garapen indarduna.

Foru lege honetan eta Estatuko oinarrizko araudian xedatutakoaren aurkakoak ez diren heinean, foru lege honek indarra hartzen duenean indardun diren Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenek indarra izaten jarraituko dute harik eta foru lege honetan aurreikusitako arau-garapenek indarra hartu arte.

Bigarren xedapen iragankorra. Informazioa, kexak eta bitartekaritza.

Aukera Berdintasunerako Arbitraje Batzordea arautzen duten estatuko araudian eta hitzarmenetan aurreikusitako sistema eraginkor ez den bitartean, Foru Komunitateko Administrazioak horiekin lotutako eginkizun batzuk garatzen ahalko ditu, hala nola kexei erantzun, informazioa eman eta entitateekiko bitartekaritza egin, antzeko sistema bat antolatuz.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe geratzen dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea, haren azken xedapenetako lehena izan ezik.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatzea.

Bat. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko honako lege hauen testua jarraian adierazitakoa izanen da:

19. LEGEA. Borondate-deklarazioen deuseztasuna, deuseztagarritasuna eta hutsaltzea.

Eragotzi gabe 47. legean xedatutakoa, borondate-deklarazioak deusezak izanen dira baldin eta horiek egin dituztenek egintza edo kontratua eta haren ondorio juridikoak ulertu eta nahi izateko ahalmenik ez badute horiek egiterakoan, edo deklarazio horiek helburu ezinezkoa edo moralaren aurkakoa badute, edo legez debekaturik badaude. Deusezak izanen dira, halaber, desgaitasuna dutenek egindakoak, baldin eta, ezarritako laguntza-neurrien arabera, beste pertsona batek haiek ordezkatzuz jardutea badagokie.

Deuseztagarriak dira adingabe emantzipatugabeek egindako deklarazioak, salbu eta frogatzen denean ez zeukatela inolako arrazoimenik horiek egiteko unean; zeren eta, kasu horretan, erabat deusezak izanen baitira. Era berean, deuseztagarriak dira pertsona emantzipatuek behar bezalako laguntzarik gabe egindako borondate-deklarazioak, 48. legeak xedatzen duenaren arabera laguntza hori beharrezkoa denean. Deuseztagarriak izanen dira, halaber, desgaitasuna duten pertsonen emandakoak, baldin eta pertsona horientzat laguntza-neurriak ezarri badira, neurri horietan aurreikusitako osagarririk gabe jarduten dutenean.

Borondate-deklarazioak hutsalgarriak dira legeak hala xedatzen duenean.

21. LEGEA. Bidegabeko eragina.

Borondate-deklarazioak deuseztagarriak dira egiten direnean noren eta, egileslea bere mende izanda, bestela eskuratuko ez lukeen abantaila bat berarentzat edo beste batzuentzat lortzeko asmoz egoera hori aprobetxatzen duenaren alde.

Abusuzko eragina. Era berean, deuseztagarriak dira beste pertsona baten abusuzko eraginaz egiten direnean, halako moldez non pertsona

horrek onura bat lortzen baitu aprobetxatuz beragan jarritako konfiantza, deklaratailearen herstura, edo desgaitasuna dela-eta laguntza-neurriak ezarrita dituzten pertsonak neurri horietan aurreikusitako osagarririk gabe jarduten dutela.

36. LEGEA. Preskripzioa geldiaraztea.

Preskripzioa geldiarazten dute demanda aurkezteak, adiskidetze eskaera bat aurkezteak, arbitraje prozedura hasteak, auzibidez kanpoko erreklamazioak eta eskubidearen edo betebeharraren esanbidezko errekonozimenduak nahiz errekonozimendu inplizituak.

Etetea. Preskripzio-epeen zenbaketa eten egiten da honako kasu hauetan:

1. Doako laguntza juridikoa eskuratzeko eskaera bat aurkeztearen ondorioz eta abokatua behin betiko izendatu arte.

2. Atariko eginbideak bideratzen diren bitartean edo erlazio juridiko-prozesalaren eraketa baliodunerako ezinbestekoak diren antzeko beste prestaketa-egintza batzuk bideratzen diren bitartean.

3. Aurretiazko erreklamazio administratiboak izapidetzen diren bitartean, nahitaezkoak diren kasuetan.

4. Adingabeen uzietan, legeko ordezkariarik ez duten bitartean.

5. Desgaitasuna duten pertsonen uzietan, pertsona horiek beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak ezarrita badituzte, neurri horietan aurreikusitako haien gaitasuna osatzeko ordezkariarik edo laguntzarik ez duten bitartean.

6. Bitartekaritza-prozesu bat hasi dela formalki frogatzearen ondorioz.

7. Jaraunsle ezagunik ez duen jaraunspen-ondare baten aurkako uzietan, defendatzaile judizialik hautatu ez den bitartean.

8. Ezinbesteko arrazoiengatik.

44. LEGEA. Ondare babestuak.

a) Kontzeptua eta ezaugarriak. Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat, pertsona horiek familia-erkidegoaren edo -taldearen kide badira are elkarrekin bizi ez direnean ere, ondare bereziki babestuak eratu ahal izanen dira, haien ondareari ondasun eta eskubide batzuen dohainikako ekarpena eginez, eta beharrezkoak diren neurriak ezarri horiek zer helbururi atxikiak dauden zehazteko, bai eta haiekin lorturiko etekinak pertsona horien premiei erantzuteari lotzeko ere. Horrek ez du eragotziko lege orokor nahiz

bereziek haien ondare-babesari buruz xedatzen dutena.

Eratze-egintzan xedatutakoak arautuko ditu ondare horiek, eta egintza horrek ez dio inolako titulartasunik ez eta eskubide errealik ere emanen onuradunari. Ondareak ez du erantzukizunik izanen onuradunari, erataileari edo ekarpenak egin zituzten gainerako pertsonen haren eraketaren ondoren suerta lekizkiekeen haren helburuaz bestelako betebeharreri dagokienez.

b) Eraketa. Ondare babestuak eratu ahal izanen dituzte, beren izaeragatik edo errentagarritasunagatik onuradunaren bizi-premiak asetzeko balio duten ondasun eta eskubideen ekarpena eginez, pertsona edo entitate hauek:

– desgaitasuna edo mendekotasuna pairaturik ondarearen onuraduna denak, bere kabuz edo behar duen laguntzarekin,

– ezarritako laguntza-neurrien arabera onuraduna ordezkatzan dutenek, haren baimenarekin,

– haren familia-erkidegoko edo -taldeko edozein kidek.

Eraketa gauzatuko da notario aurrean egindako eskritura publiko edo testamentu baten bidez. Agiri horietan honako hauek jaso beharko dira nahitaez, beste xedapen batzuk ezertan eragotzi gabe:

1. Izen-abizenen bidez identifikatzen den edo diren onuradunari edo onuradunei loturik egiten den ondarearen izena.

2. Eratailearen identifikazioa eta borondatea.

3. Hasierako ondasun- eta eskubide-inbentarioa.

4. Ondarearen administratzea eraendu behar duten arauak eta administratze hori kontrolatzeko neurriak, eta hori egikaritzeaz arduratuko diren pertsonen izendapena.

5. Gerakinaren likidazioa egitean horri eman beharreko erabilera, zeina izaten ahalko baita ondasunak lehengoratzeko eratailearen jaraunslen alde edo pertsona jakin batzuen alde, eratailearen ahaide izan nahiz ez izan, 224. legean ezarritako mugarekin.

Era berean, epaileak eratzten ahalko du, baldin eta laguntzak emateko arduraren duen pertsonak, justifikaziorik gabe, uko egiten badio ondare babestua eratzeari interes legitimoa duen edozein pertsonak emandako ondasun eta eskubide egoki eta nahikoekin; pertsona horrek Fiskaltzara jotzen ahalko du agintaritza judizialak eska dezan.

45. LEGEA.

c) Administrazioa. Eratze-eskrituran administratzaile izendatutako pertsonak beren kudeaketa gauzatu beharko dute eskritura horretan ezarritakoari jarraituz, betiere errespetatuz onuradunaren eskubideak, nahiak, borondatea eta lehentasunak, gehiegikeriak saihesteko beharrezkoak diren babesekin, eta ondasunak beren produktibitateari eusteko edo hori areagotzeko moduko egoeran gordetzeko behar den arretaz, hori guztia eraketan ezarritako baldintzak edo hirugarrenek egindako ekarpenak eragotzi gabe.

Betebeharrak hartu ahal izanen ditu ondarearen kontura, eta haren interesak defendatzeko legitimazio prozesala izanen du.

Eratze-eskrituran aurreikusita ez dagoen orotarako, borondatezko neurrien aurreikuspenak aplikatuko dira, edo, halakorik ezean, kuradoretza-arauak.

d) Kontrola eta kontu-ematea. Eratze-eskrituran ezarritako kontrol neurriak ezertan eragotzi gabe, administrazio-zereginerako izendatutako pertsonak urteroko kontu-emate betebeharra dute eskrituran izendatutako pertsonarekiko, bai eta onuradunarekiko edo haren legezko ordezkariarekiko ere.

e) Azkentzea eta likidazioa. Ondare babestua azkenduko da onuradunaren heriotzarengatik edo heriotza-deklarazioarengatik, ondarea eratzeko oinarri hartu zen izaeraren galeragatik edo ondarea eratzean ezarritako epea bukatzeagatik edo baldintza suntsiarazlea betetzeagatik, kasua bada.

Ondarea azkentzeak berekin ekarriko du administratzaileak ondare hori likidatzea, salbu eta haren eratze-tituluan beste pertsona bat izendatu bazen eginkizun horretarako; kasu horretan, eraketan ezarri zen erabilera eman beharko dio gerakinari pertsona horrek.

Ondasunen xedea eratzailearen jaraunsleei itzultzea ezarri bada eta horrelakorik ez badago, Nafarroako Foru Komunitateak eskuratu, eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak babesteko helburuetarako aplikatuko ditu.

49. LEGEA. Ordezkaritza.

Adin nagusiko edo adingabe emantzipatu orok ahalordedunaren bidez egin ditzake berak bere kabuz egin ahal izanen lituzkeen egintza guztiak, Konpilazio honetan ezarritako mugapenez bestelakorik izan gabe.

Errebokagarritasuna. Ahalorde-emaileak askatasunez erreboka dezake ordezkaritza-ahalordea, salbu eta ahalordea izaera errebokaezinez eman

denean berariaz, ahalordedunaren interes zilegi baten ondorioz, edota errebokaezintasuna justifikatzen duen kontratu-harreman bat dagoenean ahalordedunaren eta ahalorde-emailearen artean.

Prebentziozko ahalordeak: Adinez nagusi edo adingabe emantzipatu orok prebentziozko ahalordeak eman ditzake eskritura publiko batean, halako moldez non ahalorde horien indarraldia hasi eta garatuko baita noiz eta, bere gaitasuna egikaritzeko laguntza beharrean dagoenean.

Prebentziozko ahalorde horiek izaten ahalko dute pertsona edo ondareari dagokienez ahalorde-emaileak zehaztuko duen hedadura, edozein sostengu- eta kontrol-neurri ezartzen ahalko dute, bai eta horiek egikaritzeko dituzten pertsonak izendatu ere.

Ahalorde-emailearen ezkontidearen edo bikotekide egonkorraren alde emandako prebentziozko ahalordea automatikoki azkenduko da elkarrekin bizitzea uzten dioten unean, salbu eta ahalorde-emaileak kontrako zentzuko xedapena ematen badu edo haren egoera ikusita ahalordearen iraupena justifikatzen duen arrazoiren bat baldin badago.

Behin gaitasuna egikaritzeko laguntza-premia sortu denean, ahalorde-emailearen aldeko laguntza-neurriak ezartzen dituen ebazpen judizialak ahalordean zehaztutako neurriez bestelakoak xedatzen ahalko ditu soil-soilik horiek arrazoitu egiten badira eta haren interesak babesteko beharrezkoak badira.

49 bis LEGEA. Borondatezko laguntza-neurriak.

Arrazoi nahikoa dagoenean pentsatzeko ezen guraso-erantzukizuna edo tutoretza duen adingabe batek, adinez nagusi izan aurreko bi urteetan, laguntza beharko duela adinez nagusi izan ondoren bere gaitasun juridikoa egikaritzeko, adingabe horrek adin-nagusitasunera iristen denerako egindako aurreikuspenak hartuko dira kontuan, edo, halakorik ez badago, agintaritza judizialak ezartzen dituenak, adingabeak, gurasoek, tutoreak edo Fiskaltzak hala eskatuta, adingabeari prozesuan parte hartzeko aukera emanez eta haren borondatea, nahiak eta lehentasunak kontuan hartuz.

52. LEGEA. Seme-alabatasunaren edukia eta efektuak.

Behar bezala zehazturiko aitatasun eta amatasunak guraso-erantzukizuna esleitzen diete gurasoei, 64. legearen eta hurrengoan arabera; seme-ari edo alabari, abizenak, Erregistro Zibilari

buruzko legeriarekin bat etorri; eta bai batzuei bai besteari, Konpilazio honetan aitortutako eskubide eta betebeharrak.

Arestikoa gorabehera, ondoko legeek berariaz aurreikusten dituzten kasuetan aipatzen diren ebazpenetan, epaileak zilegi izanen du, arrazoiturik, xedatzea ezen seme-alabatasunaren efektuak harreman horren deklaratzeko hutsezkoak izanen direla, edo efektu horien norainokoa murriztea.

Aitatasuna edo amatasuna epaiketa bidez gurasoaren errefusatze funsgabearen aurka zehaztu bada, edota guraso hori kondenatzen duen epai penalaren bidez, guraso horrek ez du izanen guraso-erantzukizunik edo seme nahiz alabaren gaineko bestelako babes-eginkizunik, ezta lege-aginduzko eskubiderik ere haren ondarearen gain edota haren "mortis causa" oinordetzan. Eta seme edo alabaren beraren edo horren legezko ordezkariaren borondatez bakarrik jarriko zaizkio seme edo alabari gurasoaren abizenak.

Guraso bakoitzak, nahiz eta guraso-erantzukizunaren titular ez izan edo horren egikaritza eduki ez, bere seme-alaba adingabeak jagoteko betebeharra du, bai eta horiei mantenua emateko ere. Gauza bera gertatuko da beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak behar dituzten seme-alaba adindunekin eta adingabe emantzipatuekin.

Gurasoetako edozeinek edo, hala badagokio, laguntza emateko ardura duenak eskatuta, agintaritza judizialak zaintzeko betebeharrak hori nola gauzatu behar den ezartzen ahalko du, semearen edo alabaren borondatea, interesak eta lehentasunak kontuan hartuta.

54. LEGEA. Aitorpena.

a) Forma. Aitorpena egin beharko da Erregistro Zibilararen arduradunari egindako adierazpenaren bidez edota beste agiri publiko baten bidez.

Gurasoek seme-alabatasuna biek batera edo bakoitzak bere aldetik aitor dezakete. Bakoitzak bere aldetik eginez gero, kasuko aitorpenean ezin izanen dute adierazi beste gurasoa nor den, salbu eta nortasun hori jadanik zehaztuta dagoenean.

b) Gaitasuna. Aitorpena 14 urte baino gehiagoko pertsona orok egin dezake. Adingabe emantzipatugabea bada, beharrezkoa izanen da epailearen onespena, Fiskaltzari entzunaldia eman ondoren; bere gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita baditu, horietan xedatutakoa beteko da, agintaritza judizialak neurriaren nahikotasunari buruz eta hura xedatzeko beharrari buruz modu arrazoituan ezartzen duena eragotzi gabe.

c) Baldintzak. Adin nagusikoaren edo adingabe emantzipatuaren aitorpenak haren esanbidezko edo isilbidezko baimena izan beharko du.

Emantzipatu gabeko adingabearen aitorpena Erregistro Zibilean inskribatzen ahalko da, ezertan eragotzi gabe haren legezko ordezkariak duenak errefusa adieraztea, hurrengo apartatuan ezarritakoari jarraikiz eta adingabe aitortuaren interes gailenean oinarrituz.

Gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita dituen pertsonaren aitorpena Erregistro Zibilean inskribatzen ahalko da, ezertan eragotzi gabe ordezkari-laguntza emateko izendatu denak errefusa adieraztea.

Adingabeko ama emantzipatugabeak adierazitako errefusaren kasuan, defendatzaile judizial bat izendatuko zaio horretarako, ezertan eragotzi gabe Fiskaltzak zuzenean egitea errefusa.

Errefusa gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita dituen ama batek adierazten badu, neurri horietan xedatutakoari jarraituko zaio, edo, halakorik ezean, defendatzaile judizial bat izendatuko zaio horretarako, ezertan eragotzi gabe Fiskaltzak zuzenean egitea errefusa.

Halaber aitortzen ahalko da jadanik zendutako seme edo alaba bat, baldin eta ondorengo ahaideak utzi baditu. Horiek adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak baldin badira, aitorpenak haien esanbidezko edo isilbidezko baimena izan beharko du. Emantzipatu gabeko adingabeak badira, aitorpena inskribatzeko modukoa izanen da, baina halaber zilegi izanen da haien legezko ordezkariak errefusa adieraztea, haien interes gailenean oinarriturik.

Gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita dituzten pertsonak direnean, aitorpena inskribatzeko modukoa izanen da, baina halaber zilegi izanen da hura errefusatzea, neurri horietan aurreikusitakoaren arabera. Laguntza-neurriak ez badago edo aski ez badira, neurri bat ezarriko da horretarako, borondatez edo epai bidez.

d) Aitorpena errefusatzea. Errefusa urtebeteko epean formalizatu beharko da aitorpena jakinarazi zenetik; jarraitu beharko dituen izapideak Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legeak ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeko ezartzen dituenak dira, eta baietsi eginen da aitorturiko pertsonaren edo haren ondorengo ahaideen interesaren aurkakoa denean.

55. LEGEA. Seme-alabatasunari buruzko akzioak. Xedapen orokorrak.

a) Froga. Aitatasuna eta amatasuna mota guztietako frogabideak erabiliz erreklamatu eta aurkaratu ahal izanen dira, Konpilazio honetako xedapenei jarraiturik. Epaileak ez du demanda onartuko baldin eta horrekin batera ez bada aurkezten demandari oinarri ematen dioten egitateei buruzko froga-hastapenik.

b) Kontraesana. Ezin da seme-alabatasunik erreklamatu legez zehaztuarekin kontraesanean dagoenik, aldi berean bigarren hori aurkaratu gabe. Konpilazio honek deklarazte-akzioa egikaritzeko legitimazioa aitortzen dien pertsonen legitimazioa izanen dute halaber, eta epe berean, kontraesanean dagoen seme-alabatasuna aurkaratzeko; are aurkarazte-akzioa lokabetasunez egikaritzeko legitimaziorik ez dutenean ere.

Epai irmoz ezarritako seme-alabatasuna ez da ezen kasutan aurkaratzen ahalko.

c) Babes-neurriak. Prozeduran zehar, epaileak egoki deritzen neurri guztiak hartuko ditu adingabe emantzipatugabea babesteko, pertsona horren seme-alabatasuna denean demandaren xede; bai eta haren ondasunak babesteko ere. Araubide bera aplikatuko zaie desgaitasuna duten eta ordezkariatzako laguntza-neurriak dituzten pertsonen.

d) Legitimazioa. Adingabe emantzipatugabeei dagozkien akzioak egikari ditzakete horien legezko ordezkariak nahiz Fiskaltzak, desberdintasunik gabe, eta gauza bera desgaitasuna duten eta ordezkariatzako laguntza-neurriak dituztenei dagozkienekin.

e) Prozesuko ondorengotza. Demandatzailea hildakoan, horren jaraunsleek zilegi izanen dute jadanik abiatuta dauden akzioen egikaritzeari jarraipena ematea.

56. LEGEA. Aurkarazte-akzioak.

Ezertan galarazi gabe Erregistro Zibilar buruzko legediak erregistro-idazpenen aurkaratzeari eta zuzenketari buruz dioena, seme-alabatasunaren aurkaraztea honako xedapen hauei jarraikiz eginen da:

a) Amatasunaren aurkaraztea.

Jaiotza-inskripzioan agertzen den amatasuna auzibide zibilean aurkaratu ahal izanen da, frogatzen baldin bada erditzea sinetsarazi dela edo ustezko seme edo alaba eta jaiotza pertsona berbera ez direla.

Amatasunaren eta egoera-erregistrazioaren koinzidentzia baldin badago, amatasun hori zuzenean aurkaratzen ahalko duten bakarrak dira seme edo alaba, batetik, eta, bestetik, bere amatasunaren

inskripzio faltsuaren edo horren ondoriozko seme-alabatasunaren jatorri diren egitateetan kontzienteki eta borondatez parte hartu ez duen emakumea.

Ez baldin badago amatasunaren eta egoera-erregistrazioaren koinzidentziarik, interes zilegi eta zuzenekoa dutenek ere aurkaratzen ahalko dute amatasun hori.

b) Senarraren aitatasuna aurkaraztea.

Amaren senarraren aitatasuna senar horrek aurkaratu ahal izanen du harik eta urtebete igarotzen den arte seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatu zenetik, baina epe hori ez da igarotzen hasiko jaiotzaren berririk ez daukan bitartean, edo, horren berri izanda ere, ez baldin badaki aitatasun biologikorik ez duela; eta kasu horretan, urtebeteko epea igarotzen hasiko da horren jakitun bihurtzen den unean edo ustez horren jakitun izateko taxuzko aukera izan duen unean.

Baldin eta senarra hil egiten bada aurreko paragrafoan zehazturiko epea igaro aurretik, horretarako akzioa oinordeko bakoitzak izanen du epe hori amaitzeko falta den denbora-tartean. Hiltzen bada inskripzio hori egin ez delarik, jaiotzaren edo bere aitatasunaren berri izan gabe, haren oinordekoek zilegi izanen dute aipaturiko epean aurkaraztea abiaraztea.

Seme edo alabak berak ere aurkaratzen ahal du aitatasuna, urtebeteko epean, adin-nagusitasuna, emantzipazioa edo beraren jaiotza inskribatzen denetik, hori geroagokoa izanez gero. Laguntza-neurria aurreikusita badu, laguntza-neurriarekin gauzatu ahal izanen du akzio hori.

Amak bere izenean nahiz seme edo alabaren ordezkari gisa egiten ahalko du aurkaraztea, seme edo alaba hori adingabe emantzipatugabea denean edo ama izendatu bada ordezkariatzako laguntza emateko. Epea urtebetekoa izanen da, inskripzioaren unetik hasita edo senarraren aitatasunik ezaren berri izan duen unetik hasita.

c) Aitorpena aurkaraztea.

Adostasunaren akatsa edo eraginaren abusua tarteko direla egin den aitorten bat haren egilesleak aurkaratzen ahalko du akatsaren desagerpenaren ondorengo urtean zehar.

d) Aitorpenaren bitartez zehazturiko aitatasuna aurkaraztea.

Adingabe emantzipatugabearen edo ordezkariatzako laguntza duenaren ordezkariak zilegi izanen du, aitorpena dela-eta berak adierazitako errefusa ezetsi bada, horrela zehazturiko seme-alabatasu-

na aurkaratzea, aitortua egin duenaren gurasotasuna egiazkoa ez izateagatik. Halaber, seme edo alabaren edo horren ondorengo ahaideen interesetan, zilegi izanen du, hura zendu ondoko aitortua denean, akzioa egikaritzea aitortuaren efektuak epaian murriztu daitezzen, 52. legeak adierazitakoaren arabera. Bi kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea urtebetekoa izanen da, seme-alabatasuna zehaztuta geratu denetik.

Adingabetasun-aldian aitortua izan den pertsonak edo adingabe zirelarik aitortua izan zen pertsona zenduaren ondorengo ahaideek zilegi izanen dute horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea adin-nagusitasuna edo emantzipazioa lortu ondoko urtean zehar.

Horrela zehazturiko gurasotasuna halaber aurkaratzen ahalko dute horrekin kalteturik suertatzen direnek, gurasotasuna inskribatu ondorengo lau urteetan.

57. LEGEA. Deklaratze-akzioak.

a) Ezkontzako seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa.

Aitak, amak eta seme edo alabak edonoz erreklamatzeko ahal dute ezkontzako seme-alabatasuna, semearena edo alabarena. Egoera-erantzukizuna egonez gero, akzioa egikaritzen ahal dute interes zilegi eta zuzenekoak duten hirugarrenek.

b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa.

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa honako hauek egikaritu ahal dute:

1. Seme-alabek, beren bizitza osoan zehar. 55. legearen d) letran aurreikusitako kasuetan, manu horretan ezarritakoa beteko da.

Akzioa semearen edo alabaren ondorengo ahaideek egikaritzen ahalko dute, baldin eta hura adingabe zelarik edo ordezkariatzeko laguntza-neurri bat ezarria zuenean hil bazen.

2. Gurasoek, ustezko aitatasun edo amatasunaren berri izan ondoko edo horren berri izateko aukera taxuzkoa izan ondoko urtebeteko epean.

Seme-alabatasuna zehaztu gabe dagoenean, beharrezkoa izanen da guraso batek bere aitatasun edo amatasuna deklaratu izan dadila nahi badu aldez aurretik aitortua egin izana 54. legeak ezarritakoari jarraituz, eta horren arabera seme-alabatasunaren zehaztapena ezin egin izana aitorturiko pertsonaren edo, kasua bada, haren ondorengo ahaideen baimenik ezagatik,

edo kasuan kasuko legezko ordezkarien errefusa judizialki baietsia suertatzeagatik.

Kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea eten egingen da aitortua egiten den unean, eta epe-kontaktarekin jarraitu egingen da baimenik eza frogatzen denetik edo errefusa baiesten duen ebazpena irmo bihurtzen denetik.

Deklaratze-akzioa baiesten duen epaiak zehaztu egingen du seme-alabatasuna, baina zilegi izanen du, seme edo alabaren nahiz haren ondorengo ahaideen interesetan, haren efektuak mugatzea, 52. legeak xedatuari jarraikiz.

3. Zuzeneko interes zilegi bat daukaten pertsonak, baldin eta egoera-erantzukizuna badago, eta edonoz.

64. LEGEA. Izena eta kontzeptua.

Guraso-erantzukizun deitzen zaio beren seme-alaba adingabe emantzipatugabeen gainean gurasoek dagozkien betebeharrak eta ahalmenen multzoari, zeinak helburutzat baitu haien garapen erabatekoa lortzea, haien nortasun eta interes gorenaren arabera eta haien eskubideak eta osotasuna errespetatuta.

Titulartasuna. Guraso-erantzukizuna bi gurasoena da, batera.

67. LEGEA. Guraso-erantzukizuna egikaritzea.

a) Erregela orokorra. Guraso-erantzukizunak berezko dituen betebeharrak eta ahalmenak eta horien ondoriozko erabaki guztiak hitzartu denaren arabera egikaritu eta hartuko dituzte gurasoek, eta, hitzarmenik ezean, biek batera edo horietako bakar batek, baina bestearen esanbidezko edo isilbidezko adostasuna duela.

Baliozkoak izanen dira, hala ere, haietako edozeinek bere kabuz gauzaturiko egintzak, horiek egin badira seme-alabaren ohiko beharrezkoak asetzeko, familiaren inguruabarren eta tokiko usadioaren arabera, edo presako konponbidea behar duten egoeretan.

b) Banakako egikaritzearen legezko esleipena. Lege zibil edo penaletan aurreikusitako beste kasu batzuk ezertan eragotzi gabe, gurasoetako batek ordezkariatzeko laguntza-neurriak baditu, edo gurasoetako baten absentsia-deklarazioa badago, beste gurasoak egikaritutako du guraso-erantzukizuna.

c) Banakako egikaritzearen esleipen judiziala. Guraso bakoitzak esku-hartze judiziala eskatzen ahalko du honako kasu hauetan:

1. Besteak ezintasuna duenean, eta guraso-erantzukizunaren egikaritzaaren esleipen eskuliboa eskatzeko xedeaz.

2. Guraso-erantzukizunaren baterako egikaritzea larriki eragozten duen edozein arrazoi dagoenean, epaileak gurasoei bereizirik esleitu ahal izan diezaien, guztiz edo hein batez, eginkizun-egikaritzea, edo horien artean banatu ahal izan ditzan eginkizunak, arrazoiturik egokitzat jotzen den aldirako, eta ezertan eragotzi gabe hark zuzenean hartu ahal izatea adingabeen interesak hobeki babesten dituzten neurriak.

3. Guraso-erantzukizuna egikaritzeko orduan desadostasunak daudenean, epaileak gurasoetako bati esleie diezaion erabakitze-ahalmena. Desadostasunak behin eta berriro agertzen badira, epaileak zilegi izanen du aurreko zenbakian aurreikusitako ebazpenetako edozein ematea.

Borondatezko Jurisdikziopeko izapideen bitartez bideratuko dira apartatu honetan aurreikusitako prozedura judizialak.

d) Bitartekaritza. Desadostasunak direla-eta hasitako prozeduretan, gurasoek bitartekari-tapean jar ditzakete beren desadostasunak.

71. LEGEA. Zaintza eta jagoletza.

Gurasoetako edozeinek epaileari seme-alaba adingabeen eguneroko zaintza eta zainketari buruzko erabakia hartzea eskatzen dionean, epaileak adingabeetako bakoitzaren interes zehatzerako komenigarriena den zaintza mota erabaki ahal izanen du, dela bi gurasoek partekatutakoa dela horietako bakarrarena.

Horretarako, kontuan hartuko ditu guraso bakoitzak aurkezten dituen eskaera eta guraso-erantzukizunerako plangintzarako proposamenak, eta, hala denean, aditu-txostenetan adierazitakoa ere bai; Fiskaltzari entzunen dio, baita haren ustez adingabeen buruzko iritzia adierazi behar dutenek diotena ere, eta honako faktore hauek hartuko ditu aintzat:

1. Seme-alaben adina.

2. Gurasoen gaitasuna, gurasoen artean dagoen harremana eta adingabeek elkarbizitzan zehar guraso bakoitzarekin sortu duten lotura.

3. Guraso bakoitzak agertzen duen jarrera, honako hauei dagokienez: bere betebeharrak bere gain hartzea, bestearen eskubideak errespetatzea, eta, bereziki, beren artean kooperatzea eta harremana bermatzea seme-alaben eta bi gurasoen, haien familia hedatuen eta, hala denean, guraso bakoitzaren bikotekide berrien artean.

4. Seme-alabek gizartean eta familian duten errotzea.

5. Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste-ko zentzutasuna badute eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urte baino gehiago dituztenena.

6. Gurasoek seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko duten gaitasuna eta borondatea.

7. Gurasoek familia-bizitza eta lana uztartzeko nolako modua duten.

8. Gurasoen artean alde zuzenetik egon litezkeen akordio eta hitzarmenak, justifikatu egin badizkiote.

9. Elkarbizitza-araubideari begira munta berezia duen beste edozein inguruabar.

Kasua edozein dela ere, erabakiak jomugatzat izanen du posible den heinean interes guztiak uztartzea, lehentasunezkatzat harturik seme-alaba adingabeenak, eta seme-alabekiko beren harremanetan gurasoen berdintasuna ziurtaturik seme-alabentzat onuragarri den orotan, eta ardurakidetzat sustaturik.

Epaileak jagoletza partekatua erabakitzen badu, gurasoetako bakoitzarentzat seme-alabekiko elkarbizitzarako araubide bat ezarriko du, familiaren egoerari egokituia, bi gurasoei ziurtatuko diena berdintasunez egikaritu ahal izatea beren eskubideak eta betebeharrak.

Zaintza banakakoa izanen dela erabakitzen badu, epaileak beste gurasoerako komunikazio-eta egonaldi-araubide bat ezarriko du, haren berriazko inguruabarrak ikusita, hark bermatuta izan dezan Konpilazio honetako legeen arabera esleitu dituen guraso-erantzukizunaren berezko ahalmena eta betebeharren egikaritzea.

Non eta berriaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da anai-arrebak bereiztea dakarren konponbiderik erabakiko.

Ez da zilegi izanen zaintza eta jagoletza gurasoetako bati esleitzea, ez indibiduala ez partekatua, hurrengo bi baldintza hauek batera betetzen badira:

a) Beste gurasoaren edo seme-alaben biziari, osotasun fisikoari, askatasunari, osotasun moralari edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunari eraso egiteagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta baldin badago.

b) Kriminalitate-zantzu arrazoizkoak eta funtsatuak daudela dioten ebazpen judizial arrazoitu bat eman bada.

Era berean, zaintza eta jagoletza ez dira esleituko baldin eta epaileak ondorioztatzen badu, alderdien alegazioei eta froga praktikatuak erreparratuta, badaudela familia- edo genero-indarkeria- ren zantzu funtsatuak eta arrazoizkoak.

Bi kasu horietan hartzen diren neurriak berri- kusgarriak izanen dira, kasua bada jurisdikzio penalean horri buruz emanen den ebazpen irmoa- ren arabera.

Ezkontide edo bikotekide baten aurkako sala- keta ez da bere horretan nahikoa izanen automati- koki ondorioztatzeko ezen bestearenganako edo seme-alabenganako indarkeria, mina edo meha- txuak daudela, ez eta hari esleitzeko ere seme- alaben zaintza eta jagoletza.

Hirugarrenen aldeko zaintza. Salbuespen gisa, epaileak xedatzen ahalko du seme-alaben zaintza eta jagoletza beste senide edo hurbileko batzuei esleitzea, hori onartzen badute, edo, kasua bada, adingabea babesteko ahalmenak legez esleiturik dituen entitate publikoari; hori guztia, ezertan eragotzi gabe esleipen horri dagokion figura juridi- koa gero batean formalizatzea.

Zaintza hori erabakitzen duen ebazpenean, epaileak adingabearen harrera, tutoretza edo babes-neurria era dadila premiatuko du, kasu bakoitzaren arabera, nahiz eta zilegi izanen duen, neurri horiek ezertan eragotzi gabe, bere ustez gurasoek mantendu beharrekoak diren guraso- erantzukizunaren ahalmenak eta betebeharrak ezartzea.

Adingabeen eta beste pertsona batzuen arteko bisitak. Guraso-erantzukizunari buruzko neurriak erabakitzen dituen ebazpen berean, epaileak zile- gi izanen du, gurasoetako edozeinek edo Fiskal- tzak eskatuta, adingabeen eta beste senide eta hurbileko batzuen arteko komunikazio-, bisita- eta harreman-sistema ezartzea, batez ere anai-arreba eta aitona-amonekikoa, hori onuragarria bada haientzat, eta pertsona horiei entzunaldia eman ondoren.

75. LEGEA. Etetea.

Lege zibil edo penaletan aurreikusitako kasuak ezertan eragotzi gabe, zilegi izanen da guraso- erantzukizunaren edo horren ahalmenetakoren baten titulartasuna etetea baldin eta absentzia edo ezintasuna badago edo hala aurreikusten bada gaitasuna egikaritzeko ezarritako laguntza- neurrietan, baina betiere salbuetsirik epaileak gurasoen eskuetan utzi beharreko zatik deklaratu- zen guraso-ahalmenak.

Etetea eragin duen arrazoa amaitzen denean, epaileak zilegi izanen du seme edo alabaren inte-

resa dela-eta ahalmen horien egikaritzeari ezarri beharrekoak diren mugak jartzea.

Gabetzea. Zilegi izanen da gurasoetako edo- zein edo biak epai bitartez gabetzea guraso-eran- tzukizunaren edo horren ahalmenetakoren baten titulartasunaz, beren betebeharrak larriki edo erre- pikapenez urratu badituzte, baita urraketa horrek adingabearen babesgabetasunik ekartzen ez due- nean ere.

Gabetzea eraginkorra izanen da epaia irmo bilakatzen denetik, ezertan eragotzi gabe kautelaz etetea erabaki ahal izatea.

Auzitegiek, adingabearen onura eta interesen- tan, berreskuratze osoa edo partziala erabaki dezakete, baldin eta gabetzea eragin zuen arra- zoia amaitu bada.

Az kentzea. Seme-alaben gaineko guraso-eran- tzukizuna az kentzen da:

1. Seme edo alabaren edo bi gurasoen herio- tzaren edo heriotza-deklarazioaren ondorioz.
2. Seme edo alabaren emantzipazioagatik edo adin-nagusitasunagatik.
3. Seme edo alabaren adopzioaren ondorioz, haren lehenagoko gurasoei dagokienez, haietako- ren batekiko loturak iraun ezean.

Guraso-erantzukizuna az kentzearekin batera, amaitu egiten dira seme edo alabaren arlo per- tsonalean eta ondarean zituen efektuak, eta zilegi izanen da kontu-ematea eta, kasua bada, kalte- galeren ordainketa ere eskatzea, 66. legean eza- rritakoaren arabera.

Sorberritzea. Hildakotzat deklaraturiko seme edo alaba bere adin-nagusitasunera heldu baino lehen berragertzen bada, sorberritu eginen da haren gaineko guraso-erantzukizuna.

Hildakotzat deklaraturiko gurasoa berragertzen bada, haren guraso-erantzukizuna sorberritu egi- nen da onuragarria baldin bada seme-alabentzat, eta epaileak erantzukizun horren ahalmenak mugatu ahal izanen ditu, horretarako arrazoiak emanaz.

76. LEGEA. Defendatzaile judiziala.

Gurasoen eta haien ardurapeko seme-alaben artean interes kontrajarriak daudenean, beharrez- koa izanen da defendatzaile judizialaren esku-har- tzea.

Interes-kontrajarpena guraso batekin bakarrik gertatzen bada, besteari dagokio seme edo alaba- ren ordezkartza, izendapen judizialaren beharrik izan gabe.

Epaileak defendatzailea izendatuko du, berak zehazturiko ahalmenekin, kasua bada tutoretza egikaritzea legokiekeen pertsonen artetik.

78. LEGEA. Itunak egiteko askatasuna.

Ezkontza-itunen bidez, ezkontideek askatasunez adostu ahal izanen dute beren ezkon-araubide ekonomikoa, 7. legean ezarritako mugak besterik izan gabe.

Ezkontideen gaitasun indibiduala. Ezkontide bakoitzak zilegi du bere kabuz eskubideak egikaritu eta defendatzea eta edozein administrazio-, xedatze- eta ordezkartza-egintza judizial nahiz estrajudizial egitea, borondatez edo legez ezarritako mugak besterik izan gabe.

Ezkontideen absentziaren, gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntzaren beharraren edo ezkontideen legezko banantzearen kasuetan, Kode Zibilarren xedapenak aplikatuko dira Konpilazio honetan aurreikusi ez diren kasuetan.

86. LEGEA. Aldaketa.

Ezkontza-itunak edonoiz aldatzen ahal dira, baldin eta 84. legeak ezarritako forma betetzen bada eta horretarako adostasuna ematen badute, ezkontideek edo ezkongaiak ez ezik, aldaketa egiteko unean bizirik dauden beste egilesleek, aldaketak azken horiek eman edo jasotako ondasun eta eskubideetan eragina duen neurrian.

Hirugarrenen aurrean aurkaratzeko modukoa izateko, beharrezkoa izanen da aldaketa inskribatzea, lege horren bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Ezkontide bat hiltzen bada, edo gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurrien pean badago, eta beraz, ordezkartza behar izanez gero, itunak ezin izanen dira aldatu, non ez den halakorik aurreikusi itunetan bertan.

Ezkontideren batek edo lege honen lehen paragrafoan ezarritakoaren arabera esku hartu behar duen beste edozein egileslek gerora gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza beharko balute, dauden edo horretarako ezartzen diren neurrietan aurreikusitakoa beteko da.

Lege honek ezarritakotik salbuesten dira espresuki egindako itunaren ondorioz edo beren iaeragatik errebokagarriak diren estipulazioak.

Ezkontideen arteko elkarrekikotasunezko oinordetza-itunak ezkontideek berek aldatzen edo errebokatzen ahalko dituzte, eta ez da beharrezkoa izanen itunon gainerako egilesleen adostasunik.

94. LEGEA. Administratzea eta xedatzea.

Ezkontza-kapitulazioetan edo eskritura publikoan hitzarturikoak arautuko ditu konkista-ondasunen administrazioa eta xedatzea.

Ezer itundu ezean, bi ezkontideei batera dagozkie halakoak, hurrengo apartatueta ezarritakoa eragotzi gabe:

1. Ezkontideetako batek ezintasunen bat badu eta, horren ondorioz, ezin badu baimenik eman konkista-ondasunak administratu edo xedatzeko egintza baterako edo batzuetarako, edo baimena ematearen aurka agertzen bada horretarako justifikaziorik gabe, epailea izanen da ebatziko duena.

2. Ezkontideetako edozeinek bere kabuz egin ditzake konkista-sozietatearen ondasun edo eskubideen gaineko administrazio-egintzak eta izaera bereko diruaren edo balore-tituluen gaineko xedatze-egintzak, baldin eta horiek beraren esku edo izenean badaude; halaber, beraren alde eraturikotzat agertzen diren kreditu-eskubideak erabil ditzake. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe kasuan kasuan bidezko diren itzulketak.

3. Bi ezkontideak adingabeak badira, beharrezkoa izanen da horien gurasoen laguntza edo, kasua bada, haien legezko ordezkariarena, helburua baldin bada ondasun higiezinak, merkataritza-nahiz industria-establezimenduak, horien oinarrizko osagaiak edo aparteko balioa duten objektu amankomunak besterendu edota kargatzea.

Aurreko paragrafoan aipatzen den laguntza ez da beharrezkoa izanen ezkontideetako bat bakarrik denean adingabe; halakoetan, nahikoa da bi ezkontideen adostasuna.

4. Gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duen ezkontideari dagokion administrazioa eta xedapena ezarritako laguntza-neurrietan aurreikusitakoaren arabera eginen da.

5. Ezin izanen da ezein ezkontideren baimena ordeztu konkista-ondasunak dohainik besterendu edo kargatzeko egintzetarako. Hala ere, bi ezkontideek zilegi izanen dute beren kabuz neurrizko dohaintzak egitea, familiaren posizioaren eta gizarte-usadioen arabera.

6. "Mortis causa" egintzen bidez, ezkontide bakoitzak xedatzen ahal ditu bere ondasun pribatiboak, bai eta ezkon-sozietatea desegindakoan konkista-ondasunetatik dagokion zatia ere. Konkista-ondasun zehatzak xedatzen direnean, 251. legeak legatuari buruz ezarritakoa bete beharko da.

104. LEGEA. Neurri judizialak.

a) Adin nagusiko seme-alaben mantenurako ekarpena. Itunik ez dagoenean, epaileak ezarriko du zein den ezkontide bakoitzak egin beharreko ekarpena, oraindik ekonomikoki haien mendeko diren adin nagusiko seme-alaben bizibiderako, eta baloratuko du bidezkoa den ala ez seme-alabeta-ko edozeinen desgaitasunagatik ezartzea ekarpen hori, 73. legean ezarritakoarekin bat, aplikatzekoa den guztian.

Hala eta guztiz ere, epaileak ezar dezake, hala eskatzen denean, seme-alabei ematea zuzenean guraso bakoitzak adin nagusiko seme-alaben bizibiderako ordaindu beharreko kopurua.

b) Familiaren etxebizitza. Adingabeko seme-alabak dauden kasuetarako 72. legean ezarritakoa eragotzi gabe, halakorik ez dagoenean edo denak adin nagusikoak direnean, epaileak behar handiena duen ezkontideari ematen ahal dio familiaren etxebizitza erabiltzeko eskubidea, nahiz eta etxebizitzaren titularrak ez izan, aldi baterako betiere.

Epaileak ezarriko du etxebizitza erabiltzeko eskubidearen epea, zuhurtziaz, eta inguruabarrak kontuan harturik, batez ere ekonomikoki gurasoen mende dauden adin nagusiko seme-alaben bizitantze-beharrak.

Seme-alabaren batek desgaitasuna badu, eta, horren ondorioz, familiaren etxebizitza erabiltzen jarraitzea komeni bada, epaileak eskubide horren iraupen-epea zehazten ahal du, kasuan kasuko inguruabarren arabera.

Etxebizitza osoaz edo zati batez eta adierazitako ondasunez xedatzeko, horien erabilera aurreko paragrafoen arabera esleitu bada, bi ezkontideen adostasuna beharko da, edo, halakorik ezean, epailearen baimena. Familiaren etxebizitzaz xedatzeko ahalmenaren murrizketa hori Jabetza Erregistroan jasoko da. Xedatzaileak okerreko adierazpena edo adierazpen faltsua egiten badu etxebizitzaren erabilerari buruz, adierazpen horrek ez dio kalterik egiten eskuratzailerari onustedunari.

105. LEGEA. c) Desorekagatiko konpentsazioa.

Ezkontza haustean ezkontideetako baten egoera ekonomikoa desorekatua bada beste ezkontidearekiko familiari emandako dedikazioagatik, epaileak haren alde ezartzen ahal du, hala eskatuz gero, desorekagatiko konpentsazio bat, eman daitekeena aldi baterako edo epe mugagaberako prestazio gisa, edo osotarako diru-kopuru gisa; horretarako, besteak beste, inguruabar hauek hartuko ditu aintzat:

1. Bizikidetzaren guztizko iraupena, eta denbora horretan familiari emandako dedikazioa.

2. Ezkontide bakoitzaren egoera ekonomiko orokorra ezkontza haustean, eta, bereziki, ezkontzaren zehar ezkontzaren ondasun-erantzaren arabera ezkontide bakoitzarentzat izandako ondare eskualdaketek eragindakoa.

3. Ezkontide bakoitzaren lan edo lanbide aukerak, adina eta osasun egoera kontuan hartuta, eta seme-alaben zaintzan etorkizunean izanen duen dedikazioa.

4. Eskatzaileak lanerako aukerak, aukera profesionalak edo prestazioak jasotzeko aukerak galdu izana, eta, batez ere, galera hori gertatu bada beste ezkontidearen jardueretan edo haren prestazio eskubideen aitortzearen laguntzeagatik.

5. Familiaren etxebizitzaren erabilera nori esleitu zaion, kasua bada, eta zer gastu araubide dakarren horrek.

Aldaketa. Konpentsazioa aldizkako prestazio gisa ematea ezarri denean, aldi baterakoa edo mugagabea izan, haren zenbatekoa, ordainketa modua edo iraupena aldatzen ahal du ezkontide baten edo bestearen inguruabarrak aldatzen badira, eta, horrekin batera, konpentsazioa ezarri zenean zuten egoera.

Az kentzea. Konpentsazioaren prestazioa arrazoi hauengatik azkentuko da: hartzekodunaren heriotza, ezkontza edo bikote egonkorra osatzea, edo beste norbaitekin ezkonbizitza egitea, ezarritako epea betetzea, bai eta prestazioak bere xedea betetzeari uztea dakarren beste edozein inguruabar ere.

Kasu horietan, prestazioaren aldaketa edo azkentzea deklaratu duen epaiak bere atzeraeraginezko efektuak eraman ahal izanen ditu aldaketa edo azkentze hori eragin duen arrazoiak sortu zen uneraino.

Zordunaren heriotza. Zordunaren heriotzak ez du berez azkentzen konpentsazio gisa ezarritako prestazioa.

Kasu bakoitzean epaileak ebatziko du prestazioaren iraupenaz, haren zenbatekoaren aldaketaz, prestazioa zenbateko oso batekin edo ondasun batzuk entregatzearekin ordezteaz edo hura azkentzeaz, bai eta, kasua bada, betebeharraren erantzukizunaz eta banaketa ekitatiboaren egiteaz zordunaren oinordeko unibertsal edo partikularren eta, baleude, biziarteko gozamenen artean. Horretarako, inguruabar hauek hartuko ditu kontuan, kasuan aplikagarritzat jo ahal dituen beste batzuek gain:

1. Zer balio garbi, errentagarritasun eta likidezia duten jarauntsiaren ondareak eta horren gainean oinordekoek edo gozamedunek dituzten eskubide zehatzek.

2. Ezkontideek dituzten betebeharrak, seme-alaba adingabekoen edo gaitasuna egikaritzeko laguntza behar dutenen edo adin nagusiko seme-alaba ekonomikoki mendekoen bizibideari loturikoak, bai eta beste mantenu-betebehar batzuk ere, Konpilazio honetako legeen edo lege orokorren arabera beren gain hartu beharrekoak direnak.

3. Haietariko bakoitzak dituen beharrian pertsonalak eta ekonomikoak.

Lege honen arabera prestazio horretara behar turik gerta daitezkeen pertsonak zilegi izanen dute eskatzea, kasuko deklarazio- edo exekuzio-prozeduran, ordainketa eten dadila harik eta aurreko apartatuan aipatzen diren gaiak behin betiko ebazten diren arte. Etendura horren efektuak atzeraeraginez aplikatuko dira zordunaren heriotzaren uneraino.

151. LEGEA. Xedatzea, beharriana dagoenean.

Edozein eskuzabaltasun-egintzaren bitartez inori xedatze-ahalmena ematen bazaio beharri-egoera baterako, honako hauek ulertuko dira, bestelakorik suertatu ezean:

1. Pertsona horren erabakimen askearen mende egonen dela beharriaz ote dagoen baloratzea.

2. Xedatze-ahalmena ematen baldin bada pertsona fisiko jakin baten edo batzuen baimena izanez gero bakarrik, mugapen hori efekturik gabe geratuko dela halako pertsonak hil egin badira, beren zereginari uko egin badiote edo gaitasun juridikoa egikaritzeko ordezkartzako kuradoretza ezarri badiote baimen-ahalmen horri eraginez, salbu eta adostasuna ematea dagokien pertsonak betetzen duten karguaren edo eginkizunaren arabera izendatu badira.

154. LEGEA. Ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasuna.

Honakoak ezduin dira eskuratzeko:

1. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, atentatu egiteagatik xedatzailearen edo kausatzailearen, haren ezkontidearen edo harekin bikote egonkorrean bizi den pertsonaren edo haren ondorengo ahaideen, aurreko ahaideen edo anai-arreben biziaren kontra, edo horietakoren bati lesio larriak eragiteagatik.

2. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, familiaren esparruan indarkeria fisikoa edo psikikoa erabili ohi izateagatik xedatzailearen edo kausatzailearen kontra edo aurreko zenbakiak aipatzen dituen pertsonetako baten kontra.

3. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, askatasunaren, integritate moralaren eta sexuaskatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik, baldin horien pairatzaile suertaturikoa xedatzailea edo kausatzailea edo lehen aipaturiko pertsonetako bat bada.

4. Epai irmoaren bidez kondenatu dena, familia-harremanen kontrako delitua egiteagatik, kalte-tuaren edo haren legezko ordezkariaren eskuratzeari dagokionez.

5. Salaketa edo lekukotza faltsuagatik kondenatu dena, xedatzailea edo kausatzailea salatu izanagatik legearen arabera zigor astuna duen delitu batengatik, edo haren kontrako prozesu judizialean deklarazioa egin izanagatik.

6. Kausatzailearen bortxazko heriotzaren berri izanik, hilabeteko epean justiziari horren berri eman ez diona, justiziak ofizioz ekin ez badio, salbu eta, legearen arabera, akusatzeke betebeharririk ez badu, kasu horretan debeku hau bertan behera geratuko baita.

7. Ebazpen judizial irmoaren bidez gabetu dena guraso-erantzukizunaz, edo kausatzaile adingabearen tutoretza, familia-harrera edo zaintza kendua duena, hari egotz dakiokien kausagatik.

Ebazpen judizial irmoaren bidez kuradoretza kendua duena edo gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak ezarriak dituen kausatzaileari laguntza ematea azkendua duena, hari egotz dakiokien kausagatik.

8. Desgaitasuna duen pertsona bati juridikoki zor zaion arreta eman ez diona, haren ondasunen edo eskubideen eskuratzeari dagokion afera batean.

9. Mehatxuz, iruzurrez edo indarkeriaz norbait behartzen duena xedatze-egintza bat egitera, edo hori egitea edo egindakoa errebokatzea eragozten diona, bai eta egitate horien berri izanik horietaz baliatzen dena ere.

10. Egileslearen xedatze-egintza suntsitu, faltsutu, ezkutatu edo eraldatzen duena.

Ezduintasun-arrazoia indarririk gabe gelditzen dira egilesleak haien berri baldin bazeukan xedatzea egitean edo, haien berri geroago izanda, agiri publikoan barkatzen baditu edo dudarik eragiten

ez duten egintzen bidez adiskidetzen bada ezduinarekin.

Ezduintasuna dagoela irizteko, delazio-uneari begiratuko zaio, salbu eta kausa kontuan hartzeko beharrezkoa denean ebazpen judizial irmoa edo epea bukaturik egotea.

184. LEGEA. Testamentua egiteko ezgaitasuna.

Ezin dute testamenturik egin:

1. Hamalau urte baino gutxiagoko pertsonak.

2. Testamentua egiteko unean borondatea ulertzeko eta adierazteko gaitasunik ez duten pertsonak, ezta horretarako bitartekoak edo laguntzak izanik ere.

204. LEGEA. b) Dohainik.

Testamentugileetako batek ere ezin ditu bere ondasunak dohainik xedatu, ondoko kasuetan izan ezik:

1. Ermandadeko testamentuan bestelakorik ezarri izanez gero.

2. Xedatzea gainerako testamentugile guztien adostasunarekin egiten duenean.

3. Testamentugileetako beste batek ezarritakoa ez izatea ondasun horiek testamentuan xedatzearen kausa, ez eta xedatze horren baldintzaztaile ere.

4. Desgaitasunaren edo mendekotasunaren aitorpena testamentua egin ondoren jaso duten ondorengo edo aurreko ahaideen bizi-premiak diruz asetzeko xedapenak direnean.

257. LEGEA. Inbentarioa.

Bere eskubidea egikaritu ahal izateko, gozamen- duna gozamen horren hedaduran sartzen diren ondasun guztien inbentarioa egin beharko du honako kasu hauetan:

1. Baldin aurrez hildakoak testamentuan edo eskritura publiko batean hala ezarri badu.

2. Jabe soilak horretarako errekerimendua egiten badio, salbu eta aurrez hildakoak hori espresuki baztertu badu.

3. Jabe soilen artean adingabeak edo heriotza gertatzen den datan beren gaitasuna egikaritzeko laguntza-neurriak ezarrita dituzten pertsonak badaude.

Forma eta epeak. Inbentarioa eskritura publikoan agerrarazi behar da, eta hil ondorengo sei hilabeteko epearen barnean egin beharko da, aurreko apartatuko 1. eta 3. zenbakietan aurreiku-

sitako kasuetan, edo errekerimenduaren ondorengo sei hilabeteetan, 2. zenbakiko kasuan, ezertan eragotzi gabe epe hori etetea ezinbesteko arrazoiak direla eta, arrazoi horiek dirauten bitartean.

Alarguntza-gozamenak ez badu hasi behar beste pertsona batzuentzat ezarritako gozamena azkendu arte, borondatezko gozamena azkentzen denean hasiko da epe horien zenbaketa.

Testamentua, oinordetza-ituna edo halako egintzetan ordenaturiko jaraunsle-izendapena deuseza bada edo gozamenean eragina duen bestelako eztabaidarik badago, deuseztasuna deklaratzeko epai irmoa gozamen- duna jakinarazten zaionean hasiko da inbentarioa egiteko epeen zenbaketa.

Jabe soilaren eskubideak. Jabe soilari dei egin beharko zaio inbentario-osaketara, eta gozamen- duna galdatu ahal izanen dio adieraz dezan zer notarioren aurrean egin zuen hori edo horren eransketa. Kopia lortzeko eskubidea izanen du, eta gozamen- duna eskatzen ahalko dio balizko oker eta hutsuneak eskritura publiko- zuzendu ditzan.

287. LEGEA. Bitartealdia.

Fiduziarioak kausatzailearen ezkontidea, bikotekide egonkorra edo aurreko ahaideak izanez gero, beren eginkizuna osorik beteta ez daukaten bitartean, administratze- eta xedatze-ahalmenak izanen dituzte oraindik xedatu ez dituzten ondasunen gainean. Fiduziarioak beste batzuk badira, jarauntsi-erkidegoari buruzko erregelak aplikatuko dira deitzen artean, baina horietako bat adingabea bada edo gaitasuna egikaritzeko laguntza-neurriak baditu ezarrita, fiduziarioen adostasuna beharko da xedatze-egintzak gauzatzeko.

342. LEGEA. Inbentarioa

Jaraunsleetatik bat adingabe eman- tzipatugabea bada, gaitasuna egikaritzeko laguntza-neurriak baditu ezarrita edo horren absentsia- deklarazioa egin bada, kontulari-banatzai- leak jarauntsiko ondasunen inbentarioa egin beharko du, kausatzaileak hori salbuetsi ezik, jaraunsle, hartzekodun eta legatu-hartzaileei zitazioa eginda.

345. LEGEA. Banaketa egiteko moduak.

Banaketa ez bada egiten III. kapitulu- an arauturiko formetatik bat erabiliz, jaraunsleek, aho batez adostuta, komenigarri deritzoten moduan banatu dezakete jarauntsia.

Horrela egindako banaketa baliozkoa eta erabat eraginkorra izanen da, epailearen esku- hartze edo onespeneraren beharrik gabe, baldin eta eman- tzipatu gabeko jaraunsle adingabeak lege- zordez

katurik badaude banaketan, eta jaraunsleen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko ezarri diren edo ezarrita zeuden neurrietan izendatutako pertsonak jarduten badu.

Jaraunsleen arteko akordiorik ezean, horietako bakoitzak eutsi eginen dio bere eskubideari, eta Prozedura Zibilaren Legean ezarritako moduan egikaritzen ahalko du. Nolanahi ere, beren desadostasunak bitartekaritza edo erabaki arbitralaren esanetara jarri ahalko dituzte.

508. LEGEA. Motak.

Kausarik gabeko aberastea, oro har. Baldin eta norbaitek, bere kabuz nahiz hirugarren baten bitartez, ezer eskuratzen edo atxikitzen badu edo beste edonola aberasten bada halakorik justifikatzen duen kausarik egon gabe, eta irabazi bat lortzen badu beste pertsona batengandik edo haren kaltetan, haren ondarea urritzen duena, behartuta egonen da jaso duena itzultzera edo lortu duen ondare-abantailaren balioa ordaintzera. Halaber, ondare-urritzea jasan duenari egindako kaltearen ordaina eman beharko dio, legez hori ezartzen denean edo epaileak egokitzat jotzen duenean.

Egintza ez-zilegiaren edo immoralaren bitarteko eskurapena. Ulertzen da eskurapen kausagabea dela egintza ez-zilegi baten edo hitzarmen debekatu edo eskuratzaillearentzat immoral den baten ondorioz eginikoa.

Kasu horretan, eskuratzailleak betebeharra du berak jasotakoa haren fruitu, etekin edo interesekin batera itzultzeko eta eragindako kaltearen ordaina emateko. Gauza galdu egin bada, betebeharrak bere horretan iraunen du, baita ezusteko kasu baten ondorioz izan denean ere, eta haren balioa itzuli behar izateaz gain, kaltearen ordaina ere eman beharko da, kasua denean.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez da aplikatuko eskuratzaillea adingabe emantzipatugabea bada edo bere gaitasuna egikaritzeko laguntza behar badu eta ez badu laguntza hori jaso; halakoetan, bere aberastearen gaineko erantzukizuna baizik ez du izanen.

Kausarik gabe atxikitzea. Ulertzen da gauza bat kausarik gabe atxikitzen dela kontraprestazio bat gauzatzeko jaso denean eta hori ez denean gauzatu, edo betebeharrak bidegabe baten kobrantza gisa jaso denean, ordaintzailearen eta kobratzailearen errorez, edo jatorrian baliozkoa zen kausa baten ondorioz jaso denean, gero kausa horrek une batetik aurrera jada ez badu justifikatzen eskuratutakoa atxikitzea.

Kasu horietan, eskuratzaillea behartuta dago bere aberaskina itzultzera. Horrez gain, aplikatzekoa izanen da Konpilazio honek edukitzarako xedatzen duena.

537. LEGEA. Itzulketa.

Mailegua adingabeentzat edo gaitasuna egikaritzeko laguntza behar dutenentzat deuseza dela deklaratu ondoren, ez da egonen hori zertan itzuli, haien beharrak betetzeko edo probetxuzko inbertsiorako modu justifikatuan erabili ezean.

Bi. 227. legea indargabetzen da.

Hiru. Seigarren xedapen iragankorra gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Seigarren xedapen iragankorra. Zarrastelkeriak ezkontza-itunetan duen eragina.

Ezkontza-itunetan beren ezkontzaren ondason-eraentza itunduta duten ezkontideetako batek zarrastelkeriaz jardunez gero, aplikagarri izanen dira Kode Zibilaren xedapenak, ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bigarren eta bosgarren xedapen iragankorrekin bat etorri hartutako neurriek indarrean jarraitzen duten bitartean. Lege horren bidez, legedia zibila eta prozesala aldatu zen, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko.

Araubide bera aplikatuko da, aipatu legearen aurretik beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten ezkontideetako bati buruz hartutako neurriek bere horretan badiraute”.

Azken xedapenetako bigarrena. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrari buruzkoa, aldatzea.

Honako aldaketa hauek eginen zaizkio azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeari, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrari buruzkoari:

Bat. 16. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Adingabeek eskubidea dute beren gurasoek edo tutoreek lagunduta egoteko, salbu eta horrek osasun laguntza kaltetzen edo oztopatzen badu. Baldintza beretan, desgaitasuna dutenek, beren gaitasuna egikaritzeko laguntza behar badute, eskubidea dute laguntza hori ematen dietenek lagunduta egoteko”.

Bi. 19. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“19. artikulua. Kolektibo espezifikoa.

1. Osasun laguntza gizatasunez ematearen printzipioarekin bat, profesionalak eta osasun-zentroek ahalegindu beharko dute haien erabiltzaileei laguntza pertsonalizatua eta horien inguruabar pertsonalen arabera ematen, foru lege honetako eskubideak errespetatu eta betetzearen lagungarri, erabiltzaile horiek babes berezia merezi duten kolektiboetakoak direnean, hala nola adinekoak, desgaitasuna dutenak, nahasmendu mentalak dauzkatenak, bereziki mendekotasun egoeran daudenean, adingabeak, gaixotasun kronikoak dituztenak, gaixotasun arraroak dituztenak, gaixo terminalak, tratu txarren biktimak, droga-mendekotasuna dutenak, etorkinak, bazterketa soziala jasateko arriskuan daudenak, gutxiengo etnikoak kasu, eta, oro har, bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden talde zehatzak”.

Hiru. 24. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“24. artikulua. Desgaitasuna duten pertsonak.

Artikulu honek helburu du Nazio Batuen Era-kundeak Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan aitortutako eskubideak betetzea. Espainiak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen Konbentzioa, eta 2008ko maiatzaren 3az geroztik dago indarrean.

Halaber, aplikatzekoak dira desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko araudi orokorraren artikulua eta araudi hori garatzeko xedapenak.

Edozein motatako desgaitasuna duten pertsonen osasun laguntza egokia emateko eta horiek informazioarako duten eskubidea bideratzeko, administrazio publikoek behar diren jarduketak sustatuko dituzte hizkuntza- eta ulermen-oztopoak minimizatzen. Nolanahi ere, administrazio publikoek Espainiako zeinu hizkuntzak arautu eta gorren, entzuteko desgaitasuna dutenen eta gorritsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak aitortzen dituen urriaren 23ko 27/2007 Legean ezarritako betebeharrak errespetatuko dituzte”.

Lau. 43. artikulua 4. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“4. Desgaitasuna duten pazienteen kasuan, beren gaitasuna egikaritzeko laguntza behar badute, informazio-eskubidearen titular izanen dira pertsonak beraiek, hura ulertzea ahalbidetzen duen hizkuntza egokian, edo, hala badagokio, ezarrita dauden laguntza-neurrietan aurreikusitako pertsonak”.

Bost. 51. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

“1. Baimen informatua ordezkartzez emanen da honako kasu hauetan:

a) Pazientea, hura artatzeaz arduratzen den sendagilearen iritziz, erabakiak hartzeko gauza ez denean, edo haren egoera fisiko edo psikikoak egoeraz jabetzeko biderik ematen ez dionean. Pazienteak legezko ordezkari ez badu, pazientearekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonak emanen dute baimena, edo ezarritako laguntza-neurrietan aurreikusitakoak. Pazienteak aurretik pertsona bat izendatu badu bere izenean baimen informatua emateko, hari egokituko zaio erabakia hartzea.

b) Pazienteak laguntza behar duenean erabakia hartzeko. Kasu horretan, ezarritako laguntza-neurrien arabera eman beharko da baimena.

c) Hamasei urtetik beherako pazienteak gaitasun intelektualik eta emozionalik ez duenean interbentzioaren norainokoa ulertzeko. Kasu horretan, adingabearen legezko ordezkariak emanen du baimena, adingabearen iritzia entzun ondoren, horren heldutasun-mailaren arabera.

2. Adingabe emantzipatuak edo hamasei urte beteta dituzten adingabeak direnean, ez badute laguntzarik behar beren gaitasuna egikaritzeko, baimena ezin izanen da ordezkartzez eman. Hala eta guztiz ere, arrisku larriko jardueren kasuan, medikuaren irizpidearen arabera, gurasoen informazioa emanen zaie, eta haien iritzia kontuan hartuko da kasuan kasuko erabakia hartzeko.

3. Ordezkaritza bidez jarduten duenaren erabakia adingabearen edo gaitasuna egikaritzeko laguntza behar duenaren osasunaren aurkakoa dela uste izanez gero, profesional arduradunak egitateak agintari eskudunari jakinarazi beharko dizkio, hala ezartzen baita legedi zibilean”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Otsailaren 15eko 1/2011 Foru Legea aldatzea, mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun-egoera balioesteko ekipok eta organoa osatuko dituzten langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituena.

Seigarren xedapen gehigarri bat gehitzen zaio otsailaren 15eko 1/2011 Foru Legeari. Hona hemen testu berria:

“Seigarren xedapen gehigarria. Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioen arteko koordinazioa.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendentasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aurreikusitako mendekotasun egoera baloratzeko baremoaren arabera baloratu diren pertsonen desgaitasun-gradua baloratzeko, koordinazio-mekanismoak ezarriko dira bi egoerak aitortzeko eskumena duten ekipoen artean, mendekotasun egoera baloratzeko ekipoen irizpen teknikoak nahikoak diren zehazteko, desgaitasun-gradua kalifikatu eta onartzeko ekipo profesionalak kasuan kasuko irizpenak eman ditzaten desgaitasun-gradua aitortzeko”.

Azken xedapenetako laugarrena. Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea aldatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

Aldatu egiten da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea, eta honela idatzita geratuko da:

Bat. 4. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Europar Batasuneko kide diren estatueta nazionalitatea izan eta Nafarroako edozein udal-tan erroldaturik dauden herritar guztiak, bai eta egoitza Nafarroan daukaten atzerritarrak ere, izanen dira foru lege honetan ezarrita dagoen gizarte zerbitzuen sistemaz baliatzeko eskubidearen titularrak; horrek ez ditu galaraziko beste autonomia erkidego batzuekin elkarrekikotasunaren printzipioaren ildotik egindako aldebiko hitzarmenetan ezar daitezkeen salbuespenak, ez eta gizarte-zerbitzuen alorrean eskudun den departamentuak egin ditzakeen beste salbuespen batzuk ere, desgaitasun eta/edo mendekotasun aitortua eta Nafarroan familia errotua daukaten pertsonen ohiz kanpoko zirkunstantzien ondoriozkoak”.

Bi. 6. artikulua f) apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“f) Hartzaileari eraginen dion edozein esku-hartzeri buruz alde aurretik informazioa jasotzeko eskubidea, baimen berariazkoa eta librea eman ahal izateko. Esku-hartzearen ondorioz hartzaileak egoitza-zentro batean geratu behar badu, baimenak idatzizkoa izan beharko du. Beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten pertsonen eta adingabeen baimena emanen da horretarako legez ezarritako neurrien edo prozeduraren arabera”.

Hiru. 8. artikulua 1 k) apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“k) Sendagileak agindu gabe eta gainbegiratu gabe immobilizazio edo murrizketa fisiko edo tratamendu farmakologikorik ez jasateko eskubidea, erabiltzailearen nahiz hirugarrenen segurtasun

fisikorako arrisku berehalakorik ez badago. Azken kasu horretan, egindako jarduketak dokumentu bidez justifikatu beharko dira, eta erabiltzailearen espedientean jasoko dira dokumentuok, erregelamenduan ezartzen den moduan. Fiskaltzari ere jakinaraziko zaizkio.

Aurreko baldintzak betetzen badira ere, euskailuen erabilerak arrazoizkoa izan behar du, eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak ezarritako gutxieneko protokoloari lotua, genero-ikuspegia izan behar du, eta azken baliabidetzat hartu behar da, erregelamendu bidez aurreikusita dauden aukera alternatibo guztiak probatu eta agortu ondoren, ez baita komenigarritasunagatik edo inertziagatik erabili behar; ildo horretatik, euskailuen erabilera murrizteko edo desagerrarazteko lan egin beharko da, eta dagoz-kion murrizketa- edo desagerrarazte-planak egin beharko dira, profesionalen, erabiltzaileen eta, hala badagokio, haien familien inplikazioarekin”.

Lau. 86. artikulua d) apartatua aldatzen da, eta ñ) apartatu berri bat gehitzen da. Testu hau izanen dute:

“d) Egoitza batean sartu, bertan gelditu eta bertatik ateratzeko gizabanakoen askatasunaz baliatzea galaraztea, salbu eta adingabeentzako lege indardunek ezarritakoaren kasuan”.

“ñ) Euskailuen erabilera arrazoizkoarekin lotutako betebeharrak ez betetzea, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak ezarritako gutxieneko protokoloaren baldintzak ez betetzeagatik edo euskailuen erabilera desagerrarazteko edo murrizteko lan egin ez izanagatik dagoz-kion murrizketa- edo desagerrarazte-planak eginez, profesionalen, erabiltzaileen eta, hala badagokio, haien familien inplikazioarekin”.

Bost. 87. artikulua b) apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“b) Zerbitzuen erabiltzaileei edozein motatako immobilizazio edo murrizketa fisikoak jasanarazi edo tratamendu farmakologikoak jasoaraztea, sendagileak agindu gabe eta gainbegiratu gabe edo baimen informaturik gabe, non eta ez dagoen erabiltzaileen edo hirugarrenen segurtasun fisikorako arrisku berehalakorik, edo, arrisku berehalakoa badago, Fiskaltzari ez jakinaraztea, ez dokumentatzea edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak ezarritako gutxieneko protokoloan aurreikusitako aginduak ez betetzea”.

Sei. 89. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Aurreko kapituluaren ezarritako arau-haustek honako zehapen hauek ekarriko dituzte:

a) Arau-hauste arinak: idatzizko kargu-hartzea edo gehienez ere 1.500 euroko isuna.

b) Arau-hauste astunak: 1.501 eurotik 24.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunak: 24.001 eurotik 150.000 eurora bitarteko isuna.

2. 85. artikulua c) eta d) letretan tipifikaturiko arau-hauste arinen zehapen gisa, sei hilabete hiru urtera bitarteko epean arau-haustearen xede izan den prestazio horretaz baliatzeko debekua ezarriko zaio gizarte-zerbitzuen erabiltzaileari. Arau-haustea gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak ezarri dituen erabiltzaile baten legezko ordezkariak egin badu, 750 eurora arteko zehapena ezarriko zaio azken horri, eta erabiltzaileari ez zaio aplikatuko puntu honetan xedatutakoa.

Arau-haustea egoitzako zerbitzuei dagokienean, zehapen gisa gizarte-zerbitzura igorriko da erabiltzailea, edo, zerbitzu horren onuradun izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, emandako prestazioa kenduko zaio”.

Zazpi. Hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Euskal luei buruzko betebeharrak.

1. Adinekoen, desgaitasuna dutenen edo nahasmendu mentala dutenen esparruko gizarte-zerbitzuetan, prestakuntza emanen zaie langileei euskailuen erabilera saihesteko prozedurei buruz; prozedura horiek ingurune-, harreman- eta elkarrikitasun-alternatibak izanen dituzte ardatz, euspenak ahalik eta gutxienez eta ezinbestekoak bakarrik izan daitezzen, eta, beharrezkoak direnean, ahalik eta ageritasun gutxienez eginak.

2. Euspena gauzatzean, mezu lasaigarriak emanen zaizkio erabiltzaileari, eta ahaleginak eginen dira euspenean ahalik eta denbora gutxienez iraun dezan; ahal dela, pertsona ez da bakarrik utziko, eta langileen taldean baretzeko teknikan trebatutako langileak izanen dira, pertsonaren erreakzioarekiko simetrikoa den erantzun bat eman beharrez, jarrera profesionala izateko.

3. Euspenean ostean, idatziz jasoko da euspenean eragin duen egoera, eta txosten bat eginen da (erregulatu bidez garatuko da horren edukia). Txosten horren ondorioen artean jasoko da

zerk lagundu izanen zukeen euspenean saihesten edo euspenean iraupena murrizten, eta erreparazio-jarduera bat planifikatu eta gauzatuko da, erregulatu bidez edo gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak ezarritako gutxienekoen protokoloan aurreikusitako bilerak, jarraibideak eta parte-hartzea aintzat hartuta.

4. Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuak kontrol- eta jarraipen-lanak eginen ditu departamentu horrek baimendutako zentro eta zerbitzu sozialetan erabiltzen diren euspene fisiko eta farmakologikoen gainean; osasun arloko eskumena duen departamentuak ere gauza bera egingen du bere eskumenean esparrukoetan.

5. Gizarte-zerbitzuen edo zentro soziosanitarioren titular diren pertsona edo erakundeek gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko edo osasun arloan eskumena duen departamentuko ikuskatzailetzara igorri beharko dute langileek, egoiliarrek edo erabiltzaileek edo haien familiek erabiltzaileei eusteko edozein jardunbide desegokiri buruz eginen duten salaketa edo komunikazio oro, eta pertsona horiei bermatu beharko diete ez dela inolako ondorio negatiborik izanen salaketa edo komunikazio horren ondorioz.

6. Gizarte-zerbitzuetako edo zentro soziosanitariotako langileek, egoiliarrek edo erabiltzaileek edo haien familiek erabiltzaileei eusteko edozein jardunbide desegokiri buruzko edozein salaketa edo komunikazio bidaltzen ahalko dute gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko ikuskatzailetzara eta Pertsonarengan zentratutako arretarako sareari sostengu emateko batzordera edo osasun arloan eskumena duen departamentuko ikuskatzailetzara”.

Azken xedapenetako bosgarrena. 11/2005 Foru Legea aldatzea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

14. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“**14. artikulua.** Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.

1. Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileek ondoko alderdiak bilduko dituzte, gutxienez:

a) Dirulaguntzaren xedearen definizioa. Dirulaguntzari ezarri zaion onura publikoko edo gizarte onurako xedea azalduko da.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa, edo banakako dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko modua, aldezturik zehaztu ahal bada.

c) Dirulaguntzen onuradun diren pertsonen edo entitateen eta, egonez gero, foru lege honen 8.

artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan adierazitako entitateetako kideek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten betekizunak.

d) Aurreko letran aipatutako betekizunak betetzen direla nola frogatu behar den, eta betekizunok noiz arte bete behar diren, halako eperik ezarzen bada.

e) Eskaera egiteko eta ezarritako betekizunak betetzen direla frogatzeko epeak.

f) Dirulaguntza emateko modua, lehentasunak, irizpide objektiboak eta, oro har, dirulaguntza emateko aintzat hartu behar diren parametroak.

Irizpideak erabiltzen ahalko dira eskatzaileen artean lehentasunak ezartzeko, hala nola erdietsi nahi dituzten helburu sozialak (desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden edo hura jasateko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitea; lan eta soldata baldintzen hobekuntza; profesional gazteen eta langileen erakunde edo sozietate txikien parte-hartzea; enplegu-zentro bereziki eta laneratze enpresekin azpikontratatzea); irizpide etikoak eta gizarte erantzukizunekoak, dirulaguntzaren xedeko jarduerari aplikatuak; prestazioa eman behar duten langileen prestakuntza, osasunaren babesa eta parte-hartzea; edo antzeko beste batzuk.

1.i) azpiapartatuaren arabera aurreko paragrafoan aurreikusitako betebeharrak sozialik ezartzen ez bada, baloratzeko irizpide sozialek gutxienez ere puntu guztien %10eko haztapena izan beharko dute.

g) Foru lege honen 20. artikuluan 3. apartatuan aipatzen den kide anitzeko organoaren osakera, halako organorik egonez gero. Dirulaguntzaren kudeaketarekin lotutako hiru pertsona izanen ditu kide, gutxienez.

h) Dirulaguntza emateko prozedura antolatu, instruitu eta ebatzi behar duten organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea.

i) Pertsona edo entitate onuradunak eta, halakorik bada, foru lege honen 10. artikuluan zehaztutako entitate laguntzaileek izanen dituzten betebeharrak, eta horiek ez betetzearen ondorioak.

Betebeharrak horien artean, izaera sozialeko batzuk ezartzen ahalko dira, hala nola artikuluan honen 1.f) azpiapartatuko bigarren paragrafoan aurreikusitakoak.

j) Pertsona edo entitate onuradunak edo entitate laguntzaileak zein epetan eta nola frogatu behar duen dirulaguntzaren helburua bete dela

eta hartutako funtsak beren xederako erabili direla, hala egindako gastuari nola funtsen ordainketari dagokionez, foru lege honen 16. artikuluan 3. apartatuan ezarritako mugaraino.

k) Dirulaguntza ordaintzeko modua eta epeak, eta, hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunei eskatzen ahal zaizkien berme motak eta zenbatekoak, onartutako dirulaguntzaren aurrerakinak ordaintzea aurreikusten bada.

l) Interes publikoak zaintzeko beharrezkotzat jotzen diren berme-neurriak, eta onartutako dirulaguntzak berrikusten ahalko diren kasuak, halakorik bada.

m) Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna, hala zehazten denean, administrazio berak, beste administrazio publiko batzuek, beste entitate publiko edo pribatu batzuek edo partikularrek, Estatukoek nahiz atzerrikoek, eman ditzaketenean beste dirulaguntza batzuekiko.

n) Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak, dirulaguntzaren xede den jardueraren finantzaketari buruzko publizitatea dela eta.

ñ) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak egiteko pertsona edo entitate hornitzaileen kontratazioaren efizientzia eta ekonomia nola frogatu behar diren, foru lege honen 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

o) Zer inguruabarrek eman dezaketen ebazpena aldatzeko bidea, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz.

p) Dirulaguntzak ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ez-betetzeak mailakatzeko erabiliko diren irizpideak. Irizpide horiek aplikatuko dira pertsona edo entitate onuradunak azkenean hartuko duen zenbatekoa zehazteko edo, hala denean, itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko, eta proportzionaltasun irizpideari lotuko zaizkio.

q) Oinarri arautzaileen eta deialdiaren aurka jarri ahal diren administrazio errekursoak.

r) Emandako dirulaguntzei eta dirulaguntzen onuradun diren pertsonen edo entitateen zerrendari emanen zaien publizitate-araubidea eta publizitate-maila”.

Azken xedapenetako seigarrena. 2/2018 Foru Legea aldatzea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

36. artikuluan 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Adjudikazio botereek zerbitzu, obra eta hornidura kontratuen eta zerbitzuak emateko kontra-

tuen adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatuko diete irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro bereziei edo ekimen sozialeko enplegu zentro bereziei edo laneratze enpresei.

Foru lege honen aplikazioaren ondorioetarako, ekimen sozialeko enplegu-zentro berezitzat jotzen dira irabazi-asmorik gabeko entitate pribatu baten edo batzuen (elkartek, fundazioak edo ekonomia sozialeko bestelako entitateak) zuzeneko partaidetza edo sustapena %90 baino gehiagokoa dutenak, zeinek betebeharrak gisa beren gain hartu baitute, estatutuetan edo fundatze-erabakietan, beren etekin guztiak berrinbertitzea desgaitasuna dutenentzako enplegu-aukerak sortzeko.

Enplegu-zentro berezientzat gordetako kontratuetan, lehentasuna izanen dute aurreko apartatuaren arabera gizarte-ekimenekoak diren zentroek, eta ez irabazi-asmorik gabekoak, baldin eta lehenengoek 59.2 c) artikulua arabera ezarritako gutxienezko puntuazioa gainditzen badute”.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Gizarteratzerako eta Errenta Bermaturako Eskubiak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea aldatzea.

10. artikuluko c) apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du aurrerantzean:

“c) Gizarte Segurantzaren prestazioak eta/edo % 65 edo gehiagoko desgaitasuna duten seme-alaben aurreikuspen sozialeko beste sistema batzuek ematen dituzten antzeko laguntzak”.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Jokoa irabazteko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea.

32. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Honako hauek debeku dute jokoan parte hartzea, jokoan aritzea eta berariazko joko-establizimendu bezala baimenduta dauden areto eta tokietan sartzea:

a) Adingabeak. Adingabeek sarbidea debeku dutela adierazi beharko da lokaleko sarreran eta web orriaren atarian, argi eta ongi ikusteko moduan.

b) Epailearen erabakiaz horrela ezarria duten pertsonak.

c) Horditasun, droga-intoxikazio edo erotasun sintomak agertzen dituen edozein pertsona, edo armak eta halakotzat erabil daitezkeen objektuak daramatzala sartu nahi duena.

d) Jokoratze Debekuen Erregistroan joko-ukoko egile diren pertsonak”.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Erregelamenduzko garapena.

1. Foru lege hau onesten denetik sei hilabeteko epean, garatuta egonen dira honako artikulua eta apartatu hauei dagozkien erregelamenduak: 56.1, 56.2, 62.1, 62.2, 74, 76.1, 76.2, 80, 90.2 eta 91.

2. Foru lege hau onesten denetik urtebeteko epean, garatuta egonen dira honako artikulua eta apartatu hauei dagozkien erregelamenduak: 83.2, 83.4, 86, 95.5, 95.6, 97.2 eta 97.6.

Azken xedapenetako hamargarrena. Desgaitasun-alorreko gizarte-erakundeak foru lege honen helburuen lorpenari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate laguntzailetzat ofizialki jotzea.

Foru dekretu bidez arautuko da, sei hilabeteko epean, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien nafar gizarte-erakundeak foru lege honen helburuen hedapenari eta lorpenari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate laguntzaile direla ofizialki deklaratzeko prozedura, eta laguntzailetasun horri dagozkion eskubide eta betebeharrak ezarriko dira.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Artikuluaren izaera.

1. II. tituluko IV. kapitulua eta azken xedapenetako lehena zibilak dira, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 48. artikulua babesean ematen dira.

2. Gainerako artikulua Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44., 46., 47., 48., 49., 50., 53., 58.1.b) eta 58.2 artikuluen babesean ematen dira.

Azken xedapenetako hamabigarrena. Foru lege hau garatzeko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman eta behar diren neurriak har ditzan.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

10-22/LEY-00018. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko azaroaren 24an, ezetsi egin du Navarra Suma talde parlamentarioak zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00018. Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duena.

HITZAURREA

I

Ekonomia soziala, bai eta horrek gizartean eta jarduera ekonomiko orokorrean nahiz Nafarroakoan betetzen duen eginkizuna ere, bereziki garrantzitsuak dira.

2011n Ekonomia Sozialari buruzko 5/2011 Legea onetsi zen, ekonomia soziala osatzen duten entitateendako esparru juridiko komun bat ezarri eta haien sorrera sustatzeko helburuarekin.

Ekonomia sozialari buruzko legeei dagokienez, Europan lehenbizikoa da ekonomia soziala sustatzea interes orokorreko zeregintzat hartu eta botere publikoak premiatzen dituen a –bakoitzaren eskumenen esparruan– ekonomia soziala sustatzeko politikak ezar ditzaten.

Lege honek honela definitzen du ekonomia soziala: 4. artikuluan jasotako printzipioei jarraikiz beren kideen interes kolektiboa edo interes ekonomiko edo sozial orokorra edo bi horiek bilatzen

dituzten entitateek esparru pribatuan egiten dituzten jarduera ekonomiko eta enpresarialen multzoa.

Besteak beste, honako printzipio hauek definitzen dute ekonomia soziala:

– Pertsonak eta helburu sozialak nagusitasuna izatea kapitalaren ginetik, eta hori gauzatzen da kudeaketa autonomo eta garden, demokratiko eta parte-hartzaile batean, zeinak ekarriko baitu erabaki-hartzean lehentasuna ematea pertsonari eta haiek entitateari eginiko lan- eta zerbitzu-ekarpenei, edo xede sozialari, ezen ez kapital sozialari egiten dizkioten ekarpenei.

– Jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak aplikatzea enpresako bazkideek edo kideek eskainitako lanaren edo egindako zerbitzu edo jardueraren arabera nagusiki, eta, kasua bada, entitatearen xede sozialari begira.

– Barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, horren bidez honako hauekiko konpromisoa erraztuz: tokiko garapena; gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna; kohesio soziala; gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea; kalitatezko enplegu egonkorren sorkuntza; bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egitea, eta jasangarritasuna.

– Botere publikoekiko independentzia.

Besteak beste, honako hauek osatzen dute ekonomia soziala: jarduera ekonomiko duten kooperatiba, mutualitate, fundazio eta elkarteak, lan-sozietateak, laneratze enpresek, enplegu-zentro bereziek eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateak.

II

Europar, ekonomia sozialaren sektoreak ekonomia sozialeko 2,8 milioi entitate biltzen ditu, 13,6 milioi laguni enplegua ematen dietenak eta irtenbide zehatzak eta berritzaileak ematen dituztenak aurre egin behar diegun erronka nagusietarako: kalitate oneko lanpostuak sortu eta mantentzen dituzte, lagundu egiten dute talde behartsuak gizarteratu eta lan-merkatuan integra daitezen eta guztiendako aukera-berdintasuna egon dadin, garapen ekonomiko eta industrial jasangarria bultzatzen dute, herritarrek gure gizarteetan parte hartze aktiboa izan dezaten sustatzen dute, garrantzi handia dute Europako gizarte-babeseko sistemetan, eta Europako landa-eremuak eta eremu despopulatuak suspertzen dituzte.

Europako Batzordearen ustez, ekonomia sozialak lagundu dezake eskubide sozialen Europako zutabearen printzipioak ezartzen eta 2021eko Ekintza Plana eta EBk 2030erako dituen helburu nagusiak betetzen; adibidez, enplegu-tasa handitzea eta pobrezia eta gizarte-bazterketaren arriskua duten pertsonen kopurua murriztea. Horretarako, Europako Batzordeak 2021eko abenduan onetsi zuen Europako Ekonomia Sozialeko Ekintza Plana, helburutzat duena ekonomia sozialaren garapena sustatzea eta gizarteaz nahiz ekonomiaz denaz bezainbatean duen indar eraldatzailea bultzatzea.

Estatuan, ekonomia sozialaren sektoreak 43.000 enpresa eta entitate baino gehiago biltzen ditu, 2,2 milioi langile dituztenak jarduera-sektore guztietan.

Politika horiek garatzeko, Espainiako Gobernuak Ekonomia Sozialeko Espainiako Estrategia onetsi du, ekonomia sozialeko entitateen enpresa-eredua eta balioak finkatzeko eta hazkunde ekonomiko jasangarri eta solidario baterako eredu bat sustatzeko, Espainia lehiakorrago eta modernoago batean.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitatean, ekonomia sozialaren sektoreak 1.250 enpresa eta entitate baino gehiago biltzen ditu, zuzeneko enplegua ematen dietenak, jarduera-sektore guztietan, 25.000tik gora pertsonari, kooperatiba, lan-sozietate, laneratze enpresa, enplegu-zentro berezi, fundazio eta ekonomia solidarioko entitateetan. Halaber, ekonomia soziala Nafarroako Gobernuaren politiken parte da, sektore hori ordezkatzen duten erakundeek Nafarroako hainbat kontseilu eta erakundetan parte hartzen baitute, hala nola honako hauetan: Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Merkataritzaren Kontseilua, Lanbide Heziketaren Kontseilua, Lan

Osasunaren Kontseilua, Kontseilu Kooperatiboa, eta abar.

Ekonomia soziala esanbidez sartuta dago 2030erako Nafarroako S4 Estrategian (Nafarroako Espezializazio Adimentsu eta Jasangarriaren Estrategia), 2020-2023 aldirako Nafarroa Suspertu planean eta 2021-2023 aldirako Nafarroako Enplegu Politika Aktiboen Planean.

Nafarroako Gobernuak, sektorea ordezkatzen duten erakundeekin elkarlanean, ekonomia sozialeko berariazko estrategia bat diseinatu du, 2021-2024 aldirako Nafarroako Ekonomia Sozialaren II. Plan Integralean gauzatua (Gobernuaren erabaki baten bidez onetsia 2021eko irailaren 22an). Planaren helburua da ekonomia soziala baliatuta kohesio soziala eta lurralde arlokoa handitzen laguntzea, horretarako 2030 Agendaren, Europako politiken eta suspertze-funtzen erronkak txertatuz.

III

Ekonomia Sozialaren Legearen 7. artikulua xedatzen du ekonomia sozialeko entitateek zilegi izanen dutela beren interesak ordezkatu eta defendatzeko elkarteak eratzea, zeinak elkarren artean taldekatu ahalko baitira.

Estatu-eremuan ordezkaritza duten sektorearteko konfederazioek ordezkaritza izanen dute haien interes ekonomiko eta sozialei eragiten dieten gaiak jorrotzen dituzten Estatuko Administrazio Orokorraren partaidetza instituzionaleko organoetan. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorraren organoetan ordezkaritza izanen dute ekonomia sozialeko entitate gehienak biltzen dituzten estatu-mailako erakundeek, beren izaera juridikoagatik eta jardueragatik berezkoak zaizkien ordezkaritza-jarduera guztietan.

7. artikulua laugarren apartatua xedatzen da autonomia-erkidego bakoitzeko erakunde, federazio edo konfederazio ordezkaritzadunek ordezkaritza izanen dituztela beren interes ekonomiko eta sozialei eragiten dieten gaitan diharduten autonomia-erkidegoetako administrazioen partaidetza instituzionaleko organoetan, autonomia-erkidegoek aurreikusten duten moduan.

CEPES, Ekonomia Sozialeko Espainiako Enpresa Konfederazioa, estatu-eremuan ekonomia sozialaren enpresa-erakunde ordezkarri eta erreferentziazkoa da Espainian, eta solaskide ere bada pertsonak ardatz dituen Ekonomia sozialeko enpresa-eredua bultzatzeko politika publikoak eta sozialak eraikitze aldera.

Honako hauek biltzen dira CEPESen: estatuko konfederazioak; autonomietako konfederazioak; kooperatiba, lan-sozietate, mutualitate, laneratze enpresa eta enplegu zentro berezien interesak ordezkatzeko enpresa-talde berariazkoak. Azken horiek 200 laguntza-azpiegitura baino gehiago dituzte autonomietan, eta CEPES Nafarroa da horietako bat, Nafarroan ekonomia soziala ordezkatzeko duen eskualde-erakundea.

CEPES Nafarroak (Ekonomia Sozialaren Enpresa Konfederazioa) Nafarroako ekonomia sozialaren familien erakunde ordezkariak biltzen ditu, eta indar-batuketaren erakusle da, bultzatzekoa ekonomia sozialaren garapena eta haren presentzia enpresa-eredu hori sustatzen eta ikusgarriago egiten laguntzen duten erabakitze-foro, -erakunde eta -guneetan.

IV

Ekonomia Sozialaren Legearen 8.2 artikulua berariaz premiatzen ditu botere publikoak ekonomia soziala txerta dezaten prestakuntza-etapa desberdinetako ikasketa-planetan; hain zuzen, hala jasota dator Espainiako Estrategian, zeinak berariaz jasotzen baitu ekonomia sozialeko enpresen eta unibertsitatearen artean ezagutzatransmisioa bultzatzea.

Bestalde, Nafarroako Ekonomia Sozialaren II. Plan Integralean berariaz jasota datoz gazteak unibertsitate-eremuko ekintzailatza kooperatiboan sentsibilizatu eta gaitzeko jarduketak, eta gauzatzeko 1.3.2 ekintzan –ekonomia solidarioa ikastetxeetara hurbiltzeko programa– eta 1.3.3 ekintzan –Campus kooperatiboa– [“b. Unibertsitate-eremua: prestakuntza ematea Kooperatibismoaren eta Ekonomia Sozial enpresariaren inguruan eta Nafarroan dauden gazte unibertsitateari zuzendutako Ekintzailatza Kooperatiboa”].

V

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen du unibertsitate publikoen gizarte-kontseilua dela gizarteak unibertsitatean duen partaidetza-organoa, eta gizartearen eta unibertsitatearen arteko harreman-elementu gisa taxutzen da. Artikulu horretan jasota dator autonomia-erkidegoetako arauari dagokiela gizarte-kontseiluaren osaera eta eginkizunak arautzea eta haren kideak hautatzea.

Nafarroako Foru Komunitatean, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legeak arautzen ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren

izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera.

Lege horren 9. artikularekin bat, hemeretzi kidek osatzen dute Gizarte Kontseilua. Sei kidek unibertsitate-erkidegoa ordezkatzeko dute; eta gainerako hamahiruek, Nafarroako interes sozialak, honela banaturik:

a) Bost kide, Nafarroako Parlamentuak gehien-oso hautatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikaletan emaitza ofizialen arabera ordezkari gehien lortu dituzten bi sindikatuak proposaturik hautaturikoak.

c) Bi kide, Nafarroako Foru Komunitatean ordezkarietasun handienekotzat jotzen diren enpresaburuen elkarteak proposaturik araudi indardunaren arabera hautatuak.

d) Lau kide, Hezkuntza Departamentuko titularrak proposaturik hautatuak.

Ildo berean doa Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 8ko 7/2010 Foru Dekretuaren 4. artikulua.

Foru legearen hitzaurreak azaltzen duenez, gizarte-kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organo kideaniztuna da, eta erakundearen eta gizartearen arteko harremanetarako elementua da; beste hainbat eginkizunen artean, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean aritzearena du, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparru berria eraikitzen, eta unibertsitatearen eta haren ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzearena, unibertsitate-kalitatearen mesedetan.

Horregatik guztiagatik, erabat justifikatuz jotzen da NUPeko Gizarte Kontseiluaren osaera ekonomia sozialaren ordezkari bat txertatzearen beharra eta egokitasuna, era horretan ekonomia soziala unibertsitate-eremuan sardadin eta ekarpena egin diezaien ekonomia sozialaren eta unibertsitatearen arteko harremanei. Horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legearen 9. artikulua aldatzea.

Hori horrela, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzea proposatzen da, honelaxe:

Artikulu bakarra. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legearen 9. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

“9. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak hogeita bat kide izanen ditu.

2. Sei kidek unibertsitate-komunitatea ordezkatuko dute, honela banatuak:

a) Berezko hiru kide: errektorea, idazkari nagusia eta kudeatzailea.

b) Gobernu Kontseiluak bere kideen artean hautatutako hiru kide, unibertsitate-komunitatea ordezkatuko dutenak: irakasle bat, ikasle bat eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordez-kari bat.

3. Hamabost kidek Nafarroako interes sozialak ordezkatuko dituzte, honela banatuak:

a) Bost kide, Nafarroako Parlamentuak gehien-go osoz hautatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikaletan emaitza ofizialen arabera ordez-kari gehien lortu dituzten sindikatuak proposaturik hautatuak.

c) Bi kide, araudi indardunaren arabera Nafarroako Foru Komunitatean ordezkaritasun handienekotzat jotzen diren enpresaburuen elkar-teek proposaturik hautatuak.

d) Bi kide, Nafarroako ekonomia sozialaren ordezkaritasun handienekotzat jotzen den edo diren erakundeak edo erakundeek proposaturik hautatuak.

e) Lau kide, unibertsitatearen arloko eskumena duen departamentuko titularrak proposaturik hautatuak”.

Azken xedapenetako lehena.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak otsailaren 8ko 7/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren Antolaketa eta Fun-tzionamendu Erregelamenduaren egokitzapena egin beharko du, haren osaerari dagokionez foru lege honen 1. artikuluen bidez egiten den alda-ketara doitzearren.

Azken xedapenetako bigarrena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamu-nean.

10-22/PRO-00019. Foru Legea, aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, foru lege bat onetsi zuen, aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, aldatzen duena Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua

HITZAURREA

2020ko martxoaren 14an alarma egoera deklaratu zenetik COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko, Nafarroako Foru Komunitateak zenbait salbuespenezko eta premiazko tributuen neurri hartu ditu, aipatu osasun krisiak eragindako kalteak arintze aldera, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera aitorturiko tributuen arloko eskumenak baliatuta. Neurri horiek aldatzeko eragin dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araubidean, horien helburu nagusia izanik errenta ertain eta baxuen trataera hobetzea.

Erregaien eta elektrizitatearen handizkako merkatuko prezioen igoera, Ukrainako gerraren ondorioz areagotu egin dena, aurrekaririk gabeko gupil inflazionista eragiten ari da, eta horrek arazoak sortzen dizkie batez ere erosahalmen txikiagoa duten eta egungo krisiak gehien kalte-tzen dituen errentei.

Egoera horri aurre egiteko eta prezioen igoerak eta horrek dakarren inflazioak errenta baxuetan eragiten dituen ondorioak arintzeko xedez, proposatzen da PFEZaren araubidean kuota osoan egiteko aparteko kenkari bat jasotzea, 2022ko zergaldian aplikatuko dena.

Hala, kenkariaren zenbateko finko bat ezartzen da banakako aitortzenentzat, 540 eurokoa, 18.000 eurotik beherako lan etekin garbiak

eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak aitortzen dituztenentzat. Zenbateko horretatik aurrera, 35.000 euro arteko lan etekin garbiak edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak aitortzen dituztenentzat muga horretarainoko errentarekiko alderantziz proportzionala den ehuneko bat aplikatuko da. Baterako aitortzenentzat, kenkaria 900 eurokoa izanen da 30.000 eurotik beherako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak aitortzen dituztenentzat, eta zenbateko horretatik aurrerako eta 53.000 eurorainoko errentei muga horretarainoko errentarekiko alderantziz proportzionala den ehuneko bat aplikatuko zaie. Hala ere, kenkaria ez da aplikatuko 4.000 eurotik gorako bestelako errentak jasotzen badituzte.

Kenkaria ez da aplikatuko 2.000 eurotik gorako bestelako errentak jasoz gero.

Hori dela eta, proposatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea. Hona testua:

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, xedapen gehigarri berri bat erantsiz; honako testu hau izanen du xedapen berriak:

“Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. 2022rako aparteko kenkaria lan etekinak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jasotzen dituzten subjektu pasiboentzat

1. Lan etekinak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jasotzen dituen subjektu pasiboak, familia-unitate bateko kide ez bada, honako zenbateko hauek kendu ahalko ditu kuota osotik 2022an:

a) 2022an 18.000 euro edo gutxiagoko lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jaso dituen subjektu pasiboak: 540 euro.

b) 2022an 18.000 eurotik gorako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jaso dituen subjektu pasiboak: 540 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien

zenbatekoa ken 18.000 euro, eta horren emaitza bider 0,032.

1. apartatuan ezarritako kenkaria ezin izanen da aplikatu subjektu pasiboaren gainerako errentak, salbuetsiak barne, 2.000 eurotik gorakoak badira.

2. Lan etekinak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinak jasotzen dituen subjektu pasiboa familia-unitate bateko kide bada, kenkaria aplikatuko da soilik VI. tituluaren arauturiko baterako tributazioa aukeratuz gero, eta honela zehaztuko da familia-unitate osoarentzat:

a) Familia-unitateak 2022an 30.000 euro edo gutxiagoko lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak jaso baditu: 900 euro.

b) Familia-unitateak 2022an 30.000 eurotik gorako lan etekin garbiak eta/edo enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak jaso baditu: 900 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi

horien zenbatekoa ken 30.000 euro, eta horren emaitza bider 0,039.

2. apartatuan ezarritako kenkaria ezin izanen da aplikatu familia-unitatearen gainerako errentak, salbuetsiak barne, 4.000 eurotik gorakoak badira.

3. Xedapen honetan arauturiko kenkaria egiteko, lan etekin garbiak eta enpresa-jardueren ondoriozko etekin garbiak zehazterakoan aintzat hartuko dira salbuetsitako errentak.

4. Xedapen honetan araututako kenkaria ez da bateragarria izanen Nafarroako Foru Komunitatean Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko premiazko neurriak hartzeari buruzko apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretuaren 26. artikuluan araututako energia-krisiaren ondoriozko inpaktu ekonomikoa arintzeko aparte-ko kenkariarekin”.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.

10-22/PRO-00017. Foru Lege proposamena, Nafarroako Gizarte Ekin-tzako Hirugarren Sektoreari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2022ko azaroaren 24an egindako bileran, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreari buruzko Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2022ko urriaren 14ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00104. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, eta jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2022ko azaroaren 23an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, eta jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Hezkuntza Departamentuaren bidez, maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, eskola-egun guztietan bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, jarraitua edo zatitua.

2. Jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, ikasleak sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-22/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa.

ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak, 2022ko azaroaren 30ean egindako bilkuran eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa onetsi zuen.

Haren azken xedapena betez eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluekin bat, agintzen da aipatu aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2022ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa

HITZAURREA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak ezartzeko aukera ematen du. Prozedura horiek aplikatuko dira aipatu legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten lanpostuetan, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa murrizteko xedez.

Bestalde, Nafarroako administrazio publikoen esparruan, 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, onetsi da zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Era berean, jasota utzi behar dugu Parlamentuko Mahaiak, abenduaren 28ko 20/2021 legean ezarritakoari jarraikiz, erabaki bat hartu zuela 2022ko maiatzaren 30ean, zeinaren bidez adieraz-

ten baitira aipatu legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta, horrenbestez, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuei loturik dauden lanpostuak, behin-behinekotasun tasa murrizteko xedez.

Prozesu hori burura eramateko, eta erakunde honek duen arau-autonomia baliatuta, bidezkoa da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua helburu horietara egokitzea, jarraian lanpostu hutsak betetze aldera xede horrekin ezarritako aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko prozesuaren bidez.

Zehazki, bost aldaketa sartzen dira. Lehengoaren bidez Estatutuaren 4. artikulua aldatzen da, eta horren bidez ezartzen dira aldi baterako langileak administrazio-araubidean kontrataturik egoteko gehieneko epeak, bai eta epe horiek ez bete-tzeak dakartzan ondorioak ere. Bigarrenik, 9. artikulua aldatzen da oposizio-lehiaketaren faseen ordena aldatzeko aukera jasotzeko, efizientzia arazoiek hala justifikatzen dutenean.

Bestalde, xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamaikagarrena, zeinean aurreikusten baita merezimendu-lehiaketaren edo oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko deialdiak egiteko aukera, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoari jarraikiz, eta, halaber, arautzen baita egonkortze prozesuak ez gainditzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikoa.

Horretaz gain, beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hamabigarrena, zeinaren bidez behin-behinekotasuna kontrolatzeko neurriak ezartzen baitira.

Azkenik, beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hamahirugarrena, legezko estaldura emateko Nafarroako Parlamentuan funtzio publikora sartzeko hautaproseduretan parte hartzeko eskubi-deengatiko tasa bat ezartzeari.

Hori guztia dela-eta, indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren laugarren xedapen gehigarrian eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako prozeduraren bidez, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, ondoren ezarritako moduan:

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

1. 4. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Langile kontratatu dira administrazio- nahiz lan-araubidean aldi baterako dihardutenak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzura.

2. Nafarroako Parlamentuak administrazio-araubideko langileak xede hauetarako bakarrik kontratatu ahalko ditu:

a) Aldi baterako programak gauzatzea, azterlan edo proiektu zehatzak edo ohikoak ez diren lan bereziak egiteko. Programa horiek ezin izanen dute hiru urte baino gehiago iraun.

b) Langileak ordezkatzea.

c) Beren plantilla organikoetan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzea, gehienez ere hiru urterako.

d) Behar bezala arrazoitutako langile-beharrian berriei aurre egitea, horretarako langile nahikorik ez dagoela frogatuz gero, gehienez ere bederatzi hilabetez. Ezin izanen da inola ere kontratu hori luzatu, ezta beste bat formalizatu ere, premia berari erantzuteko.

3. Langileak administrazio-araubidean kontratatzeak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionarioen izaera aitortzea.

4. Artikulu honen bigarren apartatuko c) letran aurreikusitako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugikortasunerako Estatutuan aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute lanpostu huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespen gisa, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitzen ahalko dute, baldin eta dagokion deial-

dia argitaratu bada hiru urteko epean, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte betetzen ahalko du lanpostua, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko.

5. Halaber zilegi izanen da lan-araubidean kontratatzea, aldi baterako, zerbitzuaren beharri zanei erantzuteko beharrezkoak diren langileak, Parlamentuaren aurrekontuek zehazturiko mugen barruan eta aldi baterako langile gisa izan daitezkeen gehieneko iraunaldiak errespetatuz.

6. Langile kontratatuek jasoko dituzten ordainsariak dira betetzen ari diren lanpostuari dagozkionak. Halaber jasoko dituzte graduari dagokion ordainsaria eta emandako zerbitzuengatik antzinasun-saria, salbu eta beste administrazio publiko batengandik jasotzen badute. Era berean, familiarentzako laguntza jasoko dute, funtzionarioentzako ezarritako modu berean”.

2. 9. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“9.1. artikulua. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izateko izangaien hautaketa meritua eta gaitasun-oinarrien arabera eginen da, deialdi publikoa eginda eta oposizio bidez edo oposizio-lehiaketa bidez.

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa denean, eraginkortasuna helburu, oposizio-lehiaketak dituen bi faseen ordena aldatzen ahal da”.

3. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamaikagarrena. Hona testua:

“Hamaikagarrena. Aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko deialdia.

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, salbuespenez, merezimendu-lehiaketaren edota oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdiak eginen ditu, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Enplegua egonkortzeko aparteko prozedura horiek behin bakarrik eginen dira, eta betiere errespetatuko dituzte aipatu legean ezarritako epeak. Prozesu horiek lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunen eta publikotasunaren printzipioen arabera gauzatuko dira.

2. Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurek kasuko deialdian xedatutakoa bete beharko dute. Oposizioaldian 60 puntu emanen dira, eta lehiaketaldian, berriz, 40.

Lehiaketaldia baloratzeko, oposizioaldia gainditu duten izangaiek soilik aurkeztu beharko dituzte merezimenduak.

Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozeduren ondorioz aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak eratuko dira. Zerrenda horiek subsidiarioki aplikatuko dira, funtzio publikoan sartzeko hautapen prozesu baten ondorioz indarrean dauden kontrataziorako izangaien zerrenden atzetik, baina lehentasuna izanen dute aldi baterako kontrataziorako hautapen prozedura batetik datozen izangaien zerrenda indardunekiko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

3. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduraren bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurek kasuko deialdian xedatutakoa bete beharko dute. Lanbide-merezimenduen balorazioan 60 puntu emanen dira, eta bestelako merezimenduen balorazioan, berriz, 40.

4. Enplegua egonkortzeko aparteko prozedurek ukitutako lanpostuak aldeztu aurretik eskainiko dira barne mugikortasuneko prozesu batean, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

5. Zerbitzuan emandako urte bakoitzeko ordainsari finkoen hogeitau egunen besteko konpentsazio ekonomikoa emanen da, eta urtebetetik beherako aldiak hilaletara hainbatuko dira (hamabi hileroko, gehienez ere). Konpentsazio ekonomikoa hori administrazio-kontratudun langileentzat izanen da, baldin eta Administrazioarekin duten harremana amaitzen bada ez zailakoa esleitu egonkortzeko hautapen prozesuetan deitutako lanposturik.

Izangaiak ez baldin badu parte hartzen lanpostuak egonkortzeko hautapen prozesuan ez du eskubiderik izanen, inola ere ez, konpentsazio ekonomikoa jasotzeko. Apartatu honetan adierazitako ondorioetarako, izangaiak prozeduran parte hartu ez duela ulertuko da hark prozeduran jarraitzen ez duenean hari berari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik”.

4. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamabigarrena. Hona testua:

“Hamabigarrena. Behin-behinekotasuna kontrolatzeko neurriak.

1. 4. artikuluan ezarritako gehieneko iraunaldiak ez badira betetzen ukitutako kontratudun lan-

gileek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute. Konpentsazio hori beren ordainsari finkoen hogeitau egunen baliokidea izanen da zerbitzu-urte bakoitzeko, eta urtebetetik beherako aldiak hilaletara hainbatuko dira, gehienez ere hamabi hilekotan.

2. Konpentsazio hori jasotzeko eskubidea lana benetan eteten den egunetik aurrera sortuko da, eta ez-betetzea sorrarazi duen kontratuarekin soilik lotuta egonen da zenbatekoa.

3. Ez da konpentsazio-eskubiderik izanen zerbitzu-harremana diziplina arrazoiengatik edo borondatez uko egiteagatik amaitzen bada.

4. Arlo honetako jarduketa irregularrek indarreko araudiaren arabera erantzukizunak eskatzea ekarriko dute”.

5. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamahirugarrena. Hona testua:

“Hamahirugarrena. Funtzio publikoan sartzeko hautaprozeduretan parte hartzeko eskubideengatik tasa.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Parlamentuan funtzio publikora sartzeko hautaprozeduretan parte hartzeko eskubideengatik tasa kudeatu, likidatu eta bildu ahalko du, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

2. Hautaprobaren deialdian espresuki finkatuko dira izangaiek eskubideak aurkezterakoan ordaindu beharreko azterketa eskubideak.

3. Hautaprobe bakoitzean biltzen diren azterketa eskubideak Nafarroako Parlamentuko aurrekontuko diru-sarrerak izanen dira”.

Xedapen iragankor bakarra. Ondorioak

4. artikuluari testu berria ematen dion eta hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen duen artikulua bakarraren 1. eta 4. apartatuetan jasotako aurreikuspenak soilik aplikatuko zaizkie Estatutuaren aldaketa hau indarrean sartu ondoren kontraturiko aldi baterako langileei.

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

